


Eusko Jaurlaritzak,  
2017-2020 Legegintzaldian,  
**giza eskubideen eta  
bizikidetzaren**  
arloan sortutako  
dokumentuen bilduma

9



1. Proiektu orokorra
2. Iragana argitzea
3. Biktimak
4. Memoria
5. Espetxe-politika
6. Hezkuntza
7. Erlijio-aniztasuna
8. Asiloa eta migrazio zaugarria

## 9. Nazioarterako ekarpena

10. Eranskina. ETaren armagabetzea eta desegitea

**2020ko uztaila**

Giza Eskubide, Bizikidetzeta eta Lankidetzaren Idazkaritzaren Idazkaritza Nagusia

**EUSKO JAURLARITZA**



**GOBIERNO VASCO**

LEHENDAKARITZA  
Giza Eskubide, Bizikidetzeta  
eta Lankidetzaren Idazkaritza Nagusia

PRESIDENCIA  
Secretaría General de Derechos Humanos,  
Convivencia y Cooperación



## Aurkibidea

---

Bilduma honen aurkezpen orokorra.	4
Liburu honen aurkezpena.	6
<b>1. dokumentua.</b> Giza Eskubideen arloko Eusko Jaurlaritzaren Nazioarteko Jardueraren Lehentasunak.	9
<b>2. dokumentua.</b> Giza eskubideen defendatzaileak babesteko euskal programa.	21
<b>3. dokumentua.</b> 2018-2021 aldirako Garapenerako Lankidetzaren IV. Gida Plana.	45
<b>4. dokumentua.</b> Nazioartean bakeari ekarpena egiteko euskal programa.	145

---

## Bilduma honen aurkezpen orokorra

---

2011ko urriaren 20an, IX. Legegintzaldiko (2008-2012) azken urtean, ETAK “jarduera armatuaren behin betiko amaiera” iragarri zuen. Urtebete geroago, hauteskunde autonomikoak egin ziren eta Iñigo Urkullu Renteria buru zuen lehen gobernuari bide eman zioten (X. Legegintzaldia: 2012-2016). Hamarkaden ondoren lehen aldiz, euskal politikak eta gizarteak indarkeriaren eta terrorismoaren mehatxurik gabeko Legealdiari ekin zioten.

Une hartan, Lehendakariak hartutako lehen erabakietako bat Bakegintza eta Bizikidetzarako Idazkaritza Nagusi berri bat sortzea izan zen, Eusko Jaurlaritzako Lehendakariari atxikia eta haren mende zuzenean. Helburu nagusia indarkeriaren amaiera ordenatua lortzen laguntzea eta *Gizartea Elkartzea* zen.

2016ko irailaren 25ean izan ziren berriro EAEko hauteskundeak. Urte hartako urriaren 20an, Eusko Legebiltzarrak hasiera eman zion XI. Legegintzaldiari (2016-2020). 2016ko azaroaren 23an, Iñigo Urkullu Renteria izendatu zuten Lehendakari, bigarren agintaldian.

Aurreko Legegintzaldiko Bakegintza eta Bizikidetzarako Idazkaritza Nagusiari dagokionez, Lehendakariak egitura horri eutsi zion, baina aldaketa batzuk eginda izenari eta funtzioei dagokienez. Horrela, Giza Eskubide, Bizikidetzaren eta Lankidetzaren Idazkaritza Nagusia izena hartu zuen. Hirugarren esparru hori sartu zuen, *lankidetzarena*, Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentzia haren barruan sartu zelako. Idazkaritza horri atxikita geratu zen, halaber, errefuxiatuen krisi humanitarioari eman beharreko erantzunaren koordinazioa.

Horrela, XI. Legegintzaldian Idazkaritzak bere barne-egituran Biktimen eta Giza Eskubideen Zuzendaritza, *Gogora* Memoriaren, Bizikidetzaren eta Giza Eskubideen Institutuko Zuzendaritza eta Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentziaren Zuzendaritza izan ditu.

XI. Legegintzaldian, aurrekoan bezala, Idazkaritzak Legegintzaldiko plan estrategiko bat izan du: 2017-2020rako Bizikidetzaren eta Giza Eskubideen Plana. Gogora Institutuak eta Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentziak sail-plan mailako bi jarduera-programaren bidez antolatu dute beren egitekoa.

2017-2020rako Bizikidetzaren eta Giza Eskubideen Plana 2017ko apirilaren 4an aurkeztu zen, eta urte bereko urriaren 10ean onartu zen behin betiko. Aurreikuspenetatik 16 ekimen eta horietatik eratorritako programa eta jarduera ugari atera dira.

Liburu-bilduma honek hamar liburutan biltzen ditu 2017-2020rako Bizikidetzaren eta Giza Eskubideen Planaren garapenaren esparruan Legegintzaldi honetan sortutako dokumentu nagusiak. Horien egitura, izenburuak kontuan hartuta, honako hau da: (1) Proiektu orokorra, (2) Iragana argitzea, (3) Biktimak, (4) Memoria, (5) Espetxe-politika, (6) Hezkuntza, (7) Erljio-aniztasuna eta (8) Asilo eta migrazio zaugarria, (9) Nazioarteko ekarpena, eta (10) Eranskina: ETaren armatzea eta desegitea.

Bederatzigarren liburu honek nazioarterako ekarpenari buruzko dokumentuak biltzen ditu.

### Giza eskubideen agenda Covid-19aren ostean

2016an amaitu zen Legegintzaldiaren eta 2020an amaitu denaren artean, beste aldaketa esanguratsu bat egon zen Eusko Jaurlaritzaren arlo horren izendapenarekin lotuta, baina kontzeptuzko funts garrantzitsu batekin. “Bakearen” eta “bizikidetzaren” Idazkaritza izatetik “giza eskubideen” eta “bizikidetzaren” Idazkaritza izatera igaro zen. Aldaketa horren atzean 2016aren amaieran adierazitako egoeraren diagnostiko hau zegoen:

*“Bakea, terrorismoak eta indarkeriak markatutako garai baten amaierari lotua, atzean geratzen ari zen agenda giza ikusten zen sozialki. Egiteke zegoen agenda bat zen, iraganari lotua. Giza eskubideekin lotutako bizikidetzaren formulazioa, egiteke zeuden erronkak ahaztu gabe, mundu aldakor eta ziurgabetasunez inguratutako baten erronketara hobeto egokitzea zen. Giza eskubideen eta orainari eta etorkizunari lotutako bizikidetzaren agenda azaleratu zen”.*

Diagnostiko hura zehatza izan zen. Euskal XI. Legegintzaldiko denbora, arlo horretan, funtsezko bi egitate-  
ren ondorioz igaroko da historiara:

- Alde batetik, ETAre armagabetzea 2017ko apirilaren 8an, eta behin betiko desegitea 2018ko maiatza-  
ren 3an. Hori guztia iraganaren ondorio eta zeinu anakroniko gisa; izan ere, bidegabea izateaz gain,  
onartezina eta jasanezina zen gure garaiko euskal eta europar gizartean.
- Bestalde, euskal gizartean giza eskubideekin, berdintasunarekin, justiziarekin, ingurumenarekin, migra-  
zioekin, errefuxiatuekin, askatasunarekin eta abarrekin lotutako kezka eta ezinegon sozialen agenda  
berri bat finkatzea.

2020an, ETAre amaierari lotutako egiteke dauden zereginen agenda bat geratzen da, batez ere hiru ere-  
mutan: biktimen arloko politika publikoak, memoriari eta ETAr buruzko hausnarketa kritiko eta partekatua,  
eta adostasuneko eta bizikidetzarako espetxe-politika.

Dena den, giza eskubideen euskal agenda gero eta gehiago da giza eskubideen agenda globala. Iragana-  
ri lotutako tokiko agendatik giza eskubideen agenda globalarekin erabat bat egiteko trantsizioari buruzko  
hausnarketa horrek XII. Legegintzaldiaren hasiera markatzen du (2020-2024).

Aipatu bezala, 2016ko amaierako diagnostiko hark azpimarratzen zuen beharrezkoa zela “mundu aldakor  
eta ziurgabetasunez inguratuaren erronketara egokitzea”. Ordura arte ezagututako ezerk ezin zuen hobeto  
sinbolizatu aldaketa eta ziurgabetasuna, 2020aren hasieran planeta osoan agertu zen Covid-19 pandemiak  
baino. XI. Legegintzaldia ere historiara pasako da, azken aldia pandemia honen ondorioengatik monopoli-  
zatuta egon delako.

Tokiko eta planetako bizipen hark indartu eta berretsi baino ez du egin Euskadin giza eskubideen agen-  
da globala errotzea. Munduaren errealtateari beste begirada bat emateko eskatzea gogoeta kontzeptuala  
baldin bazen, pandemiaren ondoren errealtatearen agindua da orain. Paradigma-aldaketa baten aurrean  
gaude, eta oraindik ez dakigu zer irismen eta ondorio dituen.

Galdera berri batzuk eginda daude. Ez, ordea, erantzun guztiak. Idazkaritza honen jarduera-eremuan bi  
galdera garrantzitsu daude: batetik, nola adieraziko dira giza eskubideen urraketa- eta urrakortasun-modu  
berriak?; eta, bestetik, nola planteatu beharko dira giza eskubideen defentsarako eta sustapenerako politika  
publikoak pandemiaren atzean zehaztutako errealtate berrian?

Covid-19ren ondorioei buruzko eztabaida batzuek giza eskubideen balio hierarkikoki gorenaren gaineko  
lehia sakona iragartzen dute. Iritzi eta eragin globaleko korrante boteretsuek beren balioaren mesprexua  
defendatzen dute, edo, edozein kasutan, indibidualismo materialista baten ardatz ideologikoari lotutako bes-  
te balio batzuen mende egotea.

Ikuspegi ideologiko horrek gutxietsi egiten du komunitatearen zentzua eta guztion ongia “onkeria” antzu eta  
are kaltegarri gisa bilatzen du, eta zenbait balio lehenesten ditu, hala nola lokalismoa, “salba dadila ahal  
duena”, segurtasuna, protekzionismoa edo merkatuaren lidergoa, politikaren aurrean, besteak beste.

Giza eskubideen defentsa eta, ondorioz, elkartasun-betebeharra dira datozen hamarkadetako zeregin na-  
gusia. Jokoan duguna da ea munduaren grabitate-zentroak elkartasunaren ardatzera jotzen duen edo, aitzit-  
tik, indibidualismoaren ardatzean sakontzen duen, bai herritarren kontzientzian duen proiektzioan, bai tokiko,  
nazioko edo nazioarteko politikaren hainbat eremutan duen islapenean.

Covid-19ren ondoren, are arrazoi gehiagorekin, beharrezkoa izango da elkartasunaren, berdintasunaren, ez  
baztertzearen eta giza eskubideen tokiko agenda globalean sakontzen jarraitzea. 2030 Agendaren Garapen  
Jasangarriko Helburuak, Eusko Jaurlaritza bere ekintza osoan konprometituta daudenak, abiapuntu bat dira  
ziklo berri honetan. Horixe da, hain zuzen ere, XI. Legegintzaldia amaitzen eta XII. Legegintzaldia hasten  
deneko zalantzen eta erreferentzien ikuspegia.

---

## Liburu honen aurkezpena

---

2017-2020rako Bizikidetzaren eta Giza Eskubideen Planaren 13. ekimenak giza eskubideen arloko nazioarteko ekintzari buruzko aurreikuspenak ezarri eta bi helburu zehaztu zituen: (1) nazioartean bakea, bizikidetzaren, aniztasuna, elkartasuna eta giza eskubideak defendatzeko egindako esfortzuen parte izatea eta esfortzu horien sinergia sustatzea eta (2) Basque Country marka bakearen eta giza eskubideen aldeko konpromisoari lotzea eta nazioartean bizikidetzarako politiken euskal eredia partekatzea.

Helburu horiek islatzean, Planak hiru esku-hartze eremu nagusi aurreikusten zituen: giza eskubideen aldeko nazioarteko erakundeekin lankidetzaren egonkorra izatea, giza eskubideen aldeko nazioarteko deialdietan, programetan eta kanpainetan parte hartzea, eta bakea eta bizikidetzaren eraikitzearen prozesuetan euskal ekarpena egitea.

Planak gehitzen zuen Eusko Jaurlaritzaren "prest legokeela nazioarteko erakundeekin lankidetzan aritzeko eta giza eskubideen, gatazken ebazpenaren, biktimen eta bakearen arloko edo diskriminazioaren, arrazakeriaren, indarkeriaren, terrorismoaren eta gerraren aurkako nazioarteko beste programa batzuetan parte hartzeko".

Eusko Jaurlaritzak giza eskubideen arloan duen nazioarteko esku-hartzean, bakearen eta bizikidetzaren arloko ekimenak, Gogora Memoriaren, Bizikidetzaren eta Giza Eskubideen Institutuarekin zerikusia dutenak eta Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentziaren bidez garatzen direnak elkartzen dira.

Eusko Jaurlaritzaren giza eskubideen arloko nazioarteko ekintzak berariazko isla izan duen beste esparru bat errefuxiatuek Europako mugetan pairatzen duten krisi humanitarioari emandako erantzunei buruzkoa da. Arlo horretan, jardura ugari egin dira, bai eta sortutako dokumentuak ere. "Asiloa eta migrazio zaurgarria" bilduma honen 8. liburuak horren guztiaren berri ematen du.

2017-2020rako Bizikidetzaren eta Giza Eskubideen Planaren aurreikuspenei jarraikiz, 2018ko irailean Giza Eskubideen arloko Eusko Jaurlaritzaren Nazioarteko Jardueraren Lehentasunak txostena egin zen, **1. Dokumentu** gisa aurkezten dena.

Lehentasun horien artean, nabarmentzekoa da *Giza eskubideen defendatzaileak babesteko euskal programa*, 2011tik garatzen ari dena. **2. Dokumentuak** programa honek aurkezten duen testua erreproduzitzen du. Horri esker, Eusko Jaurlaritzak giza eskubideekiko konpromisoagatik egoera zaurgarrian dauden pertsonak hartzen ditu urtero. Defendatzaileak babesteko programak garatzea biziki gomendatzen dute nazioarteko erakundeek, hala nola Nazio Batuen Batzar Nagusiak (60/161 Ebazpena) eta eskualdeek, Giza Eskubi-

deen Defendatzaileei buruzko Europar Batasunaren 2004ko Gidalerroetatik ondorioztatzen denez. Gainera, arriskuan dauden giza eskubideen defendatzaileak aldi baterako birkokatzeko Plataforma Globalaren parte da Eusko Jaurlaritzaren, Europako Batzordearen ekimena dena.

Giza eskubideen ikuspegia estrategikoa da eta bokazio globala du. Horregatik, Legegintzaldi honen hasieran Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentzia Giza Eskubide, Bizikidetzaren Idazkaritza Nagusiaren egituraren sartu zen. Erabaki horrek agerian utzi zuen Eusko Jaurlaritzaren borondate esplizitua lankidetzako politika publikoak indartzeko eta zeharkako izaera emateko.

Ildo horretan, 2018ko uztailaren 24ko Gobernu Kontseiluak 2018-2021 aldirako Garapenerako Lankidetzaren IV. Gida Plana onartu zuen. Liburu honen **3. Dokumentua** da, hiru helburu ezartzen dituen plana: lehena, lankidetzaren politikaren subjektu diren pertsona eta kolektiboei zuzendua; bigarrena, gure ingurunean elkartasunaren aldeko konpromisoa zabaltzera bideratua; eta hirugarrena, lankidetzaren politika gauzatzeko beharrezkoak diren prozedurak hobetzeari buruzkoa. Giza Eskubideen ikuspegia, Giza Garapen Jasangarria, Agenda 2030, Garapenerako Politiken Koherentzia eta Auzolana dira estrategia hori definitzen duten parametroak. Helburu partekatua euskal lankidetzaren berritzea eta eguneratzea aurrera egitea da.

Legegintzaldiaren amaieran, "Nazioartean bakeari ekarpena egiteko euskal programa" izeneko dokumentu bat prestatu da, XII. Legegintzaldira proiektatzen dena praktikan. Liburu honetako **4. Dokumentua** da. Dokumentu honen eranskinean, era berean, XI. Legegintzaldiaren amaieran lanketa- eta onarpen-prozesuan dagoen beste lan baten gidoia aurkezten da: "Euskal kasuaren ikaskuntzak, indarkeria prebenitzeko eta bakea babesteko".

Euskal kasutik atera daitezkeen ondorioei buruzko hausnarketa da, munduan bakea eraikitzeko beste prozesu batzuetan balizko ekarpena egiteko. 60 urteko indarkeriatik, terrorismotik, zatiketarik eta gatazketarik atera daitezkeen irakaspen nagusietan sakontzen du, batetik; eta gure herrialdean bakearen eta bizikidetzaren alde aldi berean egindako ahaleginetatik, bestetik. Euskal kasuari buruzko ondorioen eduki horrek Euskadik beste indarkeria- eta gatazka-testuinguru batzuetan eman dezakeen ekarpenaren eremua mugatzen du, oinarri etiko batetik. Edukiak XII. Legegintzaldian zabaldu eta islatuko dira





A large, stylized graphic of the number '10' is positioned in the upper right quadrant. The '1' is a solid grey vertical bar with a horizontal top bar. The '0' is a large, solid magenta circle. The background features several overlapping, semi-transparent white geometric shapes that create a layered, paper-like effect.

10

dokumentua

---

Giza Eskubideak sustatzeko Eusko  
Jaurlaritzaren Nazioarteko Jarduketan  
zehaztutako lehentasunak



2019-2020 Gidoia

---

# Giza Eskubideak sustatzeko Eusko Jaurlaritzaren Nazioarteko Jarduketan zehaztutako lehentasunak

---

2018ko iraila

---

Giza Eskubide, Bizikidetzeta eta Lankidetzaren Idazkaritza Nagusiaren

---

**EUSKO JAURLARITZA**



**GOBIERNO VASCO**

LEHENDAKARITZA  
Giza Eskubide, Bizikidetzeta  
eta Lankidetzaren Idazkaritza Nagusia

PRESIDENCIA  
Secretaría General de Derechos Humanos,  
Convivencia y Cooperación



## Atarikoak

---

Eusko Jaurlaritzak *Bizikidetzaren eta Giza Eskubideen 2017-2020 Plana* onartu zuen 2017ko urriaren 10ean. Planaren 13. ekimenak giza eskubideen arloko nazioarteko ekintzari buruzko aurreikuspenak ezartzen ditu, eta honako helburu hauek zehazten ditu:

- Nazioartean bakea, bizikidetzaren, aniztasuna, elkartasuna eta giza eskubideak defendatzeko egindako esfortzuen parte izatea eta esfortzu horien sinergia sustatzea.
- Basque Country marka bakearen eta giza eskubideen aldeko konpromisoari lotzea eta nazioartean bizikidetzarako politiken euskal ereduaren partekatzea.

Helburu horiek gauzatzeko, esku hartzeko hiru eremu nagusi aurreikusten ditu Planak:

- Lankidetzaren egonkorra ezartzea giza eskubideen nazioarteko erakundeekin.
- Giza eskubideen aldeko nazioarteko deialdi, programa eta kanpainen parte hartzea.
- EAEk bere ekarpena egitea bakea eta bizikidetzaren eraikitzearen prozesuetan.

Esparru horretan, Planak azpimarratzen duenez, “mundu globalizatu honetan, giza eskubideen aurkako mehatxuak ere globalak dira, eta Eusko Jaurlaritzaren tankerako gobernu bat nazioartean indarrak batzen saiatu behar da, apertasun osoz baina erabakitaz, giza eskubideekiko eta aniztasunarekiko errespetuan oinarritutako bakearen eta bizikidetzaren aldeko kultura defendatzeko”.

Horregatik, Bizikidetzaren eta Giza Eskubideen 2017-2020 Plana bat dator, argi eta garbi, hazkunde adimenduna, jasangarria eta integratzailea lortzeko Europako estrategiarekin (Europa 2020) eta Garapen Jasangarrirako 2030 Agendaren Helburuekin, oro har, eta, bereziki, 16. helburuan ezarritakoarekin, gizarte baketsu eta inklusiboak sustatzea proposatzen baitu.

Ildo beretik, Planak gehitzen du “Eusko Jaurlaritzaren prest legokeela nazioarteko erakundeekin lankidetzan aritzeko eta giza eskubideen, gatazken ebazpenaren, biktimen eta bakearen arloko edo diskriminazioaren, arrazakeriaren, indarkeriaren, terrorismoaren eta gerraren aurkako nazioarteko programetan parte hartzeko”.

---

## Lerrokatzea eta posizionamendua

<b>Nazio Batuak</b>	Lerrokatze eta posizionamendu estrategiko globalak	Agenda 2030. 16. helburua.
<b>Europar Batasuna</b>	Giza eskubideen aldeko Europako lankidetzarako markoak.	Europa 2020 Estrategia.
<b>Aliantza espezifikoak</b>	Proiektu edo programa partekatuak..	Nazio Batuen beste herrialde eta agentzia batzuk.

Dokumentu labur honek Planaren 13. ekimenean ezarritako aurreikuspenetako bati erantzuten dio, zeina 2020 Nazioartekotzeko Esparru Estrategia – Euskadi Basque Country Estrategia Eguneratzeko prozesuan jaso baita. Hala, aurreikuspen horren arabera, Giza Eskubide, Bizikidetzeta eta Lankidetzaren Idazkaritza Nagusiak dokumentu bat prestatu behar du 2018ko bigarren seihilekoan, Eusko Jaurlaritzak giza eskubideen arloan nazioartean izan beharreko jardunaren lehentasunak definitzeko. Dokumentu hori abiapuntu izango da *Bakeari Laguntzeko Proiektu bat egiteko, euskal kasuari buruzko ikaskuntza-txosten batean oinarrituta.*

Giza Eskubide, Bizikidetzeta eta Lankidetzaren Idazkaritza Nagusiaren jardura osoa planifikatzen duen aipaturako plan estrategikoaz gain, kontuan izan behar da bai Gogorak bai Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentziak errefuxiatuen arloko jardura-eremuan jardura espezifiko planifikatzeko plan sektorialak dituztela.

Lehentasunen definizio horrek kontuan hartu behar du, beraz, Eusko Jaurlaritzak giza eskubideetan egiten duen nazioarteko esku-hartzean bat egiten dutela zenbait arlotako bake- eta bizikidetzeta-ekimenei; hala, hor dira bai Memoriaren, Bizikidetzaren eta Giza Eskubideen Institutuarekin (Gogora) zerikusia dutenak, bai Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentziaren bidez garatzen direnak, baita Europako mugetan errefuxiatuek jasaten duten krisi humanitarioari erantzuteko egiten direnak ere.

Ondorioz, dokumentu honek lehentasunen definizio bat ematen du, zeinetan modu transbertsalean uztartzen baitira Eusko Jaurlaritzako Giza Eskubide, Bizikidetzeta eta Lankidetzaren Idazkaritza Nagusia osatzen duten zuzendaritzak eta jardura-eremuak. Motibo multzo hori dela eta, formatu labur eta eskematikoa du.

Eskema honetan jasotako ekimen asko abian daude jada, eta behar besteko definizioa dute aipatzen diren planetan. Dokumentu honetan sartu dira, baina, lehentasunezkoak direla azpimarratzeko.

Dokumentu honetan aipatzen diren ekimenetako hiru zehazteke edo gehiago garatzeke daude: *Bakeari Laguntzeko Euskal Proiektua* –euskal auziari buruzko ikaskuntza-txosten batean oinarritua–, Kolonbiako bake-prozesurako euskal mahaia eta Nazioarteko memoria-erakundeekiko sareko harremanen artikulazioa. Kasu horietan, eranskin bat gehitu da proiektu horietako bakoitzerako, eta bertan zehazten dira proiektuaren proiektzioa eta egutegia.

# 1. Bost lehentasun-eremu, Eusko Jaurlaritzak giza eskubideen arloan nazioartean jarduteko

Esku hartzeko ardatzak	Lehentasunak	Proiektuak
<b>1. Desberdintasunen kausen aurkako prebentzio-ekintza</b>	· <b>Afrika.</b> Afrikako herrialdeetan giza eskubideen alde lan egiten duten eragileekiko lankidetzatza bultzatzea, haien indarguneak eta giza kapitala sustatzeko.	·Tokiko eragileekin lankidetzan aritzeko zuzeneko jarduerak bultzatzea, Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentziaren hitzarmenen bidez. <b>Aribidean.</b>
<b>2. Desberdintasunen ondorioei aurre egiteko larrialdiko ekintza</b>	·Ahultasun humanitarioa. Ahultasun humanitarioko egoerak arintzeko baliabideak ematea, bereziki adingabeei, migratzaile-errefuxiatuei, gerraren edo bidegabekeriaren biktimei eta beste larrialdi humanitario batzuei dagozkien egoerak badira.	·Nazioarteko deiei eta Eusko Jaurlaritzaren esku-hartze zuzeneko jarduerari erantzutea. <b>Aribidean.</b>  ·GLEAren Laguntza Humanitarioko Estrategia dokumentua garatzea. <b>Aribidean.</b>
<b>3. Migrazio- eta asilo-erronkari erantzutea, giza eskubideen ikuspegitik</b>	·Europako konpromisoa. Europak migrazioaren eta asiloaren erronka osoaren aurrean erantzun solidarioa eta partekatua emateko konpromisoa sustatzea.	·Share proposamena sustatzea, bai Europako erakundearen esparruan, bai estatuz azpiko eragileen eta eragile sozialen aliantza baten bidez, migrazio-erronkaren aurrean erantzun konprometitua emateko. <b>Aribidean.</b>
<b>4. EAEren ekarpena munduan bakea lortzeko</b>	·Bake-prozesuak Bake-prozesuak eraikitzen, garatzen eta burutzen laguntzea, euskal esperientziatik abiatuta. Egungo egoeran, Kolonbiako bake prozesuarekiko aldeko jarrera bereziarekin.	<i>Bakeari Ekarpene egiteko Proiektu bat prestatzea, euskal kasuari buruzko ikaskuntza-txosten batean oinarrituta. (1. eranskina)</i>  ·Aldi berean, Kolonbiako bake prozesurako euskal mahaia dinamizatzea. (2. eranskina)
<b>5. Giza eskubideen programa espezifikoei parte hartzea</b>	·Giza eskubideen defentsa eta sustapena indartzen laguntzea.	· <i>Giza Eskubideen Defendatzaileen EAEko Programa</i> sendotzea eta haren nazioarteko proiektzioa indartzea. <b>Aribidean.</b>  ·Giza Eskubideen aldeko Nazio Batuen goi-komisarioaren Bulegoarekiko (OHCHR) harremana sendotzea eta nazioarteko erakundeekin aliantza berriak sustatzea. <b>Aribidean.</b>  ·Nazioarteko memoria-erakundeekin sare-harremanak jostea. (3. eranskina)

---

# 1. **eranskina.** Bakeari Ekarpena egiteko Euskal Proiektua, euskal kasuari buruzko ikaskuntza-txosten batean oinarrituta

---

Eusko Jaurlaritzako Giza Eskubide, Bizikidetzaren Idazkaritza Nagusiak euskal kasuari buruzko ikaskuntza-txosten bat egingo du 2019ko lehen seihilekoan. Txosten hori Bakeari Ekarpena egiteko Euskal Proiektu baten oinarria izango da nazioartean, eta proiektu horren diseinua 2019. urte horren amaierarako prest egon beharko da.

Euskal kasuari buruzko ikaskuntza-txostenak 60 urteko indarkeriatik, terrorismotik, zatiketarik eta gatazketarik atera daitezkeen irakaskuntza nagusietan sakonduko du, batetik, eta gure herrialdean bakearen eta bizikidetzaren alde aldi berean egindako ahaleginetan, bestetik. Euskal auziari buruzko ondorioen eduki horrek mugatuko du Euskadik beste indarkeria- eta gatazka-testuinguru batzuetan egin dezakeen ekarpena, oinarri etiko batetik.

Txosten horren gidoiak puntu hauek hartuko ditu abiapuntu bezala, gutxi gorabehera:

## **1. Konpromiso etikoa euskal kasuaren begiradaren zeharkako gako gisa**

·Etika muineko gai gisa. Giza eskubideen eskuraezintasuna. Funtsean, jainko bat dela uste duen norbaitek soilik erabili ditzake beste pertsona baten giza eskubideak, beste helburu batzuk lortzeko bitarteko gisa.

## **2. Euskal kasuaren laburpena 1960-2018**

### **3. Hiru ikaskuntza prebentzioaren arloan**

- I. Indarkeriara ez jotzea, ez eta justifikatuta dagoela dirudienean ere...
- II. Metxa piztea erraza da...
- III. Nahikoa dirudiena baino elkarrizketa gehiago...

### **4. Indarkeriaren aldiari aurre egiteko lau ikaskuntza**

- Irteerak eskaintzea.
- Maximalismotik ihes egitea.
- Gizarteari entzutea.
- Biktimei begiratzea.
- Igoaldaren gidoia kontraprogramatzea: insistentzialismoa.

### **5. Hiru ikaskuntza, indarkeriaren ondoren kudeatzeko**

- Atzera begiratzeko konpromiso etikoa: akordio leheneratzailea.
- Eskuzabaltasuna orainari aurre egiteko: ez geroko utzi zaila dena.
- Pluralismoa eta giza eskubideak etorkizuna eraikitzeke: konpromiso ageria.

### **Epilogo**

- Proiektu egituratu eta integrala, bakearen, bizikidetzaren eta giza eskubideen kultura finkatzeko.



## 2. eranskina. Kolonbiako bake prozesurako euskal mahaia dinamizatzea

---

EAEk urteak daramatza Kolonbiarekin lankidetzaren harremanak izaten, bai garapenerako lankidetzaren esparrutik, bai beste sektore batzuetatik, hala nola enpresa- eta instituzio-sektoreetatik. Kolonbiako Gobernuaren eta FARC-EPen arteko Bake Akordioak sinatu ondoren, aukera berriak ireki dira, baita topaketarako eta elkarlanerako guneak ere. Aukera berri horiek estrategia egokienari buruz hausnartzera behartzen gaituzte, herrialdean bake egonkor eta egiazkoa lortzen ahalik eta modu eraginkorrean lagundu ahal izateko, eta, horretarako, garrantzitsua da koordinaziorako, informazio-trukerako eta esku-hartzeen koherentziarako aparteko ahalegina egitea.

Esparru horretan, Kolonbian Bake Akordioak ezartzeko hainbat ekimen gidatzen eta laguntzen ari da Giza Eskubide, Bizikidetzaren eta Lankidetzaren Idazkaritza Nagusia. Akordio horiek 2019an eta 2020an garatzekoak dira –eta, hala badagokio, zabaltzekoak. Horien artean, hauek nabarmentzen ditugu:

**- Kolonbiako bake prozesurako euskal mahaia.** Idazkaritzak koordinazio-mahaia sortu du, eta berorren helburu nagusia Kolonbiako bake-prozesuaren alde dauden euskal eragileen artean konfiantza-gune bat sortzea da. Mahai hori GGKEek, Hegoa Institutuak, Jesusen Lagundiak, Mondragon Korporazioko hainbat erakundeak eta Eusko Jaurlaritzako hainbat sailek osatzen dute.

Mahaiaren koordinazio-lana Caucako iparraldeko lurraldean oinarrituko da batez ere, EAEko lankidetzak lagundutako ekimen eta programa ugari bat egiten duten eremua baita.

**-Lankidetzaren hitzarmena Kolonbiako Nazio Batuen Agentziekin, Nazio Batuen Garapen Programaren bidez.** 2018an, lankidetzaren esparru bat landu da Giza Eskubideen, Bizikidetzaren eta Lankidetzaren Idazkaritza Nagusiaren eta Nazio Batuen Kolonbian duten ordezkariaren artean, elkarrekin garatzeko Kolonbiako Gobernuaren eta Kolonbiako Indar Armatu Iraultzaileen arteko Bake Akordioa ezartzeko ekimenak eta jarduerak. Hauek dira garatuko diren ekimen nagusiak:

- Gizarte zibilak Bake Akordioa ezartzeko elkarriketetan parte har dezan bultzatzea;
- Giza eskubideen defendatzaileen eta gizarte-liderrren babesa bermatzea;
- Prebentzio-azterketak izatea, giza eskubideen defendatzaileak eta liderrak babesteko;
- Beste bake-prozesu batzuekin konparatuta aztertzea eta Kolonbiako bake-prozesuaren diseinuaren alderdi berritzaileak zabaltzea.

**-Egiaren Batzordeari laguntzea.** Bai GLEAk sustatutako ekimenen bidez, bai Biktimen eta Giza Eskubideen Zuzendaritzak sustatutako aldeko akordioaren bidez, Idazkaritzak konpromisoa hartu du berriki sortutako Egiaren Batzordeak Kolonbian abiarazitako prozesuak babesteko eta laguntzeko.

**-Egiatzen misioak, Kolonbiako bake-prozesuari laguntzeko Eusko Legebiltzarreko barne-taldearekin batera.** Giza Eskubideen Defendatzaileen Euskal Programaren jarraipen-misioen artean, lekuan bertan egiaztatze misioak egingo dira, arreta handia jarrita Bake Akordioaren ezarpenaren jarraipenean.

**-EAEko erakunde eta entitateei laguntzea.** Gainera, Kolonbian lan-ibilbide luzea duten eta akordioaren ezarpenean inplikaturik dauden EAEko erakundeek laguntzen jarraituko da. Laguntza hori honako hauen bidez gauzatzen da: bilerak egitea, ekitaldi eta mintegietan parte hartzea, proiektuak finantzatzea eta lankidetzaren hitzarmenak sinatzea.

---

### 3. eranskina. Nazioarteko memoria-erakundeekin sareko harremanak antolatzea

---

Gogora Institutua sendotzeko prozesuan, Gogora nazioartekotzea eta beste memoria-erakunde batzuekin harremanak ezartzea aurreikusten du 2017-2020 aldirako Jarduera Planak. Proposamen honek helburu hori ezartzen hasteko lehen urratsak planteatzen ditu.

Gogora Institutuaren nazioarteko lehen jarduerak **Memoria Historikoari** lotuta egongo dira, nagusiki. 2019an 80 urte bete ziren euskal erbesteratuetik, Gerra Zibila amaitu ondoren. Efemeride hori aintzat izanda, Gogora Institutuak "gerra zibilaren osteko euskal erbestea" hartuko du ardatz, memoria historikoaren eremuan. Horrela, 2019an, Gogora Institutuak Memoria Historikoaren arloan egingo dituen jarduera nagusiak erbestera bideratuko dira: ikerketak, oroitzapenezko ekitaldiak eta nazioarteko harremanak.

Batez ere Frantziara, Mexikora, Venezuelara eta Argentinara emigratu zuten euskal herritarrek. Hala, Gogora Institutuaren nazioarteko ibilbideari ekingo zaio, lehentasuna emanda euskal herritarrek hartu zituzten herrialdeei. Modu horretan, Euskaditik atera behar izan zuten euskal herritarren ondorengoei ere ezagutaraziko zaie Memoriaren Institutua.

Helburua izango da erbestealdiaren memoria jasotzea, lankidetzaz-ildo bat ezartzea eta Gogora Institutua Europako memoria-sareetan eta Euskadiko gizatalde eta ordezkariartean ezagutaraztea.

**1. ardatza. Frantzia.** Harremanak eta koordinazioa ezarriko da Frantziako memoria-sareekin eta -elkarteeekin –hor dira, esaterako, Gurs kontzentrazio-esparruarekin lotutakoak– bai eta II. Mundu Gerra aztertzen duten memoriaren zentro edo museoekin ere.

**2. ardatza. Britainia Handia.** Britainia Handira ere erbesteratu ziren euskal herritarrek, batez ere gerrako haurrak, zeinak ez baitziren inoiz itzuli. Gaur egun, oraindik bada "haur" haien ondorengoen elkarte bat. Elkarte horrekin harremanetan jarri eta lankidetzaz-ildo bat ezarriko da.

**3. ardatza. Amerikako herrialdeak.** Kanpo Harremanetarako Idazkaritza Nagusiarekin lankidetzan eta haren bidez, kanpoko euskal gizataldeekin harremanetan jarriko gara, batez ere Argentinakoekin, Venezuelakoekin eta Mexikokoekin.

Oraintsuko memoriari dagokionez, denboran gertuen dauden gertaera traumatikoak jorratzen dituzten memoria-erakundeekin harremanak ezarriko dira, eta Gogora Institutuak memoriaren pedagogia kritikoaren bidez garatutako programak partekatuko dira.

**4. ardatza.** ExEma Memorialarekin lankidetzaz-esparrua ezarriko da memoriaren esperientziak eta ekarpenak partekatzea ahalbidetuko duen jarduketa-programa batekin, bakea eta bizikidetzaz sendotze aldera.

**5. ardatza.** *Bakeari laguntzeko Euskal Proiektuari* (1. eranskinean jaso da), ekarpena egingo dio, denon eskura jarrita gure herriko memoria kritikoaren pedagogiarekin garatutako programak.







# 2

● dokumentua

---

Giza eskubideen defendatzaileak  
babesteko euskal programa





---

## Giza eskubideen defendatzaileak babesteko euskal programa

---



2018ko azaroa

---

**EUSKO JAURLARITZA**



**GOBIERNO VASCO**

LEHENDAKARITZA  
Giza Eskubide, Bizikidetzeta  
eta Lanbidearen Idazkaritza Nagusia  
Biktimen eta Giza Eskubideen Zuzendaritza

PRESIDENCIA  
Secretaría General de Derechos Humanos,  
Convivencia y Cooperación  
Dirección de Víctimas y Derechos Humanos

**CEA(R)** EUSKADI  
Comisión de Ayuda  
al Refugiado en Euskadi





## Sarrera

---

Munduko hainbat eskualde eta herrialdetan, mehatxuak eta jazarpenak pairatzen dituzte giza eskubideen defendatzaileek eta haien erakundeek, eta arriskuan jartzen dute haien bizitza eta osotasun fisiko eta psikologikoa, bai eta haien senideena ere.

Kolektibo horrek beren lurralde edo jardun-eremutik lekualdatzera behartua izateko arrisku berezia du. Munduan, joera kezagarri eta orokortua eraten dute, oraindik ere, erailketa, eraso eta mehatxuek; sarri, justizia-sistema erabiltzen da haien lana mugatzeko, haiek isilarazteko eta haien sinesgarritasuna ahultzeko, zigorgabetasuna nagusitzen delarik; gizartearen protestak indarkeria neurrigabe erabiliz zapaltzen dira; eta estigmatizazio-kanpainak abiarazten dira, beste bortizkeria-ekintzen artean.

Kriminalizazioa eta judizializazioa dira haien lanari legitimazioa kentzeko eta oztopatzeko gehien erabiltzen den estrategia. 2017. urtean zehar, giza eskubideen milaka defendatzaile atxilotu zituzten, akusazio faltsuak jasan zituzten, baita lege-prozesu luze, garesti eta bidegabeak eta, kasu batzuetan, espetxe-zigor luzeak ezarri zitzaizkien.

Jazarpen- eta behartutako lekualdatze-egoera horiek gero eta ezagunagoak dira, giza eskubideen alde diharduten defendatzaileek, erakundeek eta gizataldeek beren jatorriko herrialde barruan nahiz kanpoan egindako ikusarazte-lanari esker, bai eta nazioarteko komunitatearen laguntza eta babesari esker ere. Nolanahi ere, defendatzaile ugariaren babesgabetasun-egoerak larriki eragozten du giza eskubideen alde egiten duten lan zilegi eta eraldatzailea.

Esparru hori funtsezkoa da lanean jarraitzeko, hartara, aintzat har dadin zein ekarpen baliotsua egiten duten erakunde, gizatalde eta komunitate horiek askatasunaren, berdintasunaren eta justizia sozialaren printzipioak aurreratze eta indarkeriari bide ematen dioten egiturazko kausak ikusgai egin eta erroitik kentzeko.

Hala, nazioarteko babes eta elkartasuneko tresnak dira Aldi batez Babesteko Programak: alde batetik, pertsonen bizitza eta osotasun fisikoa babesten laguntzen dute; bestaldetik, baita jatorriko lurraldean giza eskubideen aldeko prozesuei eusten ere, harrera-herrialdeetako antolakunde, mugimendu eta erakundeekin lotura eratuz.

Giza eskubideen defendatzaileak babestea biziki gomendatzen dute nazioartean<sup>1</sup> eta badu lege-esparrua Europa mailan<sup>2</sup> nahiz Espainia mailan<sup>3</sup> ere.

---

1 60/161 Ebazpena (2. eranskina), Nazio Batuen Batzar Nagusiarena: *Gizabanakoek, taldeek eta erakundeek mundu osoan onartutako giza eskubideak eta oinarrizko askatasunak bultzatu eta babesteko dituzten eskubideari eta betebeharrari buruzko adierazpena.*

2 Europar Batasunaren gidaleroak Giza Eskubideen Defendatzaileei buruz, 2004ko ekainaren 14a. 2008an berrikusiak.

3 1257/2007 Errege Dekretua, "... laguntzen xede diren arreta humanitarioko ekintzak, giza eskubideen defendatzaileei bizi diren herrialdeetatik ateratzen laguntzera zuzendurikoak..." (1.2. art.).

---

# Aurrekariak

---

2011n, Eusko Jaurlaritzaren Herri Administrazio eta Justizia Sailak, Giza Eskubideen Zuzendaritzaren bitartez, Giza Eskubideen Defendatzaileak aldi batez Euskal Autonomia Erkidegoan Babesteko Programa martxan jarri zuen. Gaur egun, Biktimen eta Giza Eskubideen Zuzendaritzaren esku dago programa eta Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentziaren babes dauka, biak Giza Eskubide, Bizikidetzeta eta Lankidetzaren Idazkaritza Nagusiaren mende.

Eusko Jaurlaritzak, hala, nazioarteko esparrura bideratzen du bere jarduera, giza eskubideekiko eta nazioarteko elkartasunarekiko konpromisotik.

CEAR-Euskadik garatzen eta kudeatzen du Programa. Erakundeak ibilbide luzea du nazioarteko babes behar duten edota bazterketa-arriskuan dauden errefuxiatu, lekualdatu, aberrigabe eta migratzaileen giza eskubideak babesten eta sustatzen. Erbestera behartuta dauden pertsonentzat asilo-eskubidea defendatzen du CEAR-Euskadik, baita arriskuan dauden giza eskubideen defendatzaileak babesteko mekanismoak inplementatzea ere, euren lurraldeetara itzul daitezen. Saihestu egingo da, horrela, behartutako lekualdatze amaigabea eta eraldaketa sozialerako prozesuak etetea.

Esparru horretan, 2009an, Kolonbiarekin<sup>4</sup> elkartasunean lan egiten duten zenbait euskal erakunde Kolonbiarekiko Elkartasun Iniziatiba (Kolektiba Colombia) abiarazi zuten. Estatuan –batez ere Asturiasen eta Katalunian– jada abiarazitako babes-esperientziak aztertuta, Euskadin euskal lankidetzeta eta elkartasunaren berezitasunei egokitutako babes-programa bat ezartzeko erabakia hartu zuten.

Programa bi horiek nola funtzionatzen duten ezagutzeko, kontaktuak jatorrian egiteko eta Euskadin ezarri beharreko ereduari buruz ikaskuntzak eskuratzeko, CEAR-Euskadik Giza eskubideen defendatzaileen babeserako Kataluniako programa laguntzeko Nazioarteko Misioan parte hartu zuen 2010ean, eta 2011n, Eusko Jaurlaritzaren Giza Eskubideen Zuzendaritzarekin batera, Kolonbian giza eskubideen egoera egiaztatzeko Asturiaseko VII. Ordezkaritzan parte hartu zuen.

Urte hauetan zehar (2011-2018) 20 lagun izan dira (11 emakume, 7 gizon eta adingabe bi –neska bat eta mutil bat–), Programan parte hartu dutenak, guztiak arrisku-egoeran dauden erakunde, komunitate eta gizatalde desberdinetakoak.

•**Colombia:** Asociación de Mujeres por la Paz y los Derechos de las Mujeres Colombianas (ASODEMUC), Asociación para el Desarrollo Social Integral (ECATE), Comisión Intereclesial de Justicia y Paz, Congreso de los Pueblos, Corporación Social Nuevo Día, Consejo Regional Indígena del Cauca (CRIC), Fundación de Derechos Humanos Joel Sierra, Fundación por la defensa de Derechos Humanos y el Derecho Internacional Humanitario del Oriente y Centro de Colombia (Fundación DHOC), Movimiento de Víctimas de Crímenes de Estado (MOVICE), Movimiento Social y Político Marcha Patriótica, Organización Indígena de Antioquia (OIA), Proceso de Comunidades Negras (PCN), Resguardo Indígena de Honduras.

•**Honduras:** Comité de Familiares de Detenidos Desaparecidos de Honduras (COFADEH), Instituto Ecuaménico Hondureño de Servicios Comunitarios (INEHSCO).

•**Guatemala:** Consejo de Pueblos K'iche' (CPK), Organización de Apoyo a una Sexualidad Integral frente al SIDA (OASIS), Red de Sanadoras Ancestrales del feminismo comunitario (Quiché).

•**Perú:** Asociación de Mujeres de la Provincia de Huancabamba (AMBHA), Convenio Instituto de Apoyo al Movimiento Autónomo de Mujeres (IAMAMC).

•**Mendebaldeko Saharako lurralde okupatuak:** Asociación Saharai de Víctimas de Graves Violaciones de Derechos Humanos cometidas por el Estado Marroquí (ASVDH), Casa de las Mujeres de El Aaiún.

Hauek dira urte hauetan Euskadiko Babes Sarea osatu duten erakundeak eta gizarte-mugimenduak: SEADen Lagunen Elkarte – Euskadi, Emigradxs sin fronteras Elkarte, Paz con Dignidad Elkarte, Gehitu, Joxemi Zumalabe Fundazioa, Mundubat, Mugarik Gabe eta Oxfam Intermon.

---

4 Paz con Dignidad, Mugarik Gabe, Mundubat, Posada de los Abrazos, Colectivo Bachué eta CEAR-Euskadi.

Itzuli<sup>5</sup> eta gero, babestutako pertsonen eta euren erakunde eta gizataldeei egiten zaizkien jarraipenaren barruan, Programa honek 8 bisita egin ditu tokian-tokira: Kolonbiara (2012, 2014, 2015, 2016, 2018), Guatemalara (2015), Perura (2016) eta Hondurasera (2017).

Urte hauetan egindako babes-lanari esker ikasitakoarekin eta egindako gogoetekin agerian geratu dira zenbait premia:

-Euskadiko erakunde sozialekin sakontzea lankidetzan aritzen diren erakunde eta kolektiboek dituzten babes-premien inguruan, haien beharrezanetara gero eta gehiago egokituko diren tresnak eskaini eta aurre egin beharreko arriskuak gutxitze aldera.

-Euskadiko elkarte-sarea indartzea babes gaietan.

-Euskadiko programa sistematizatu eta ondorioak, ikasketak eta gomendioak atera tresna hau indartzen jarraitu ahal izateko. Horretarako, agerian utzi nahi ditugu arriskua gutxitzeko lagungarri diren Programaren gakoak, defendatzaileek jatorrizko herrialdeetan jarrai dezaten lanean. Hori guztia, begirada feminista batetik eta ikuspegi psikosozial eta giza eskubideen ikuspegitik abiatuta.

Horrela bada, esperientziak, ikasketak eta erronkak partekatzeke interesean oinarrituta jaio da, Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentziaren babesarekin, "Defendatzaileak babesten" ekimena. Esteka honetan daude proiektuaren barruan egin diren ikerketak eta tresna desberdinak: <https://defensoras.cear-euskadi.org/>

Ibilbide horri esker metatutako esperientziak jardunbide onen eredu bihurtu du Euskadiko Babes Programa, Espainian eta Europan martxan jarri diren beste ekimen batzuetarako eredu izan dena, hain zuzen.

# Euskadiko Babes Programa

---

## Helburua

Euskal programaren helburua da jaioterrian gauzatzen duten jarduera dela-eta beren bizitza edo osotasun fisikoa arriskuan duten giza eskubideen defendatzaileak babestea, Euskadin sei hilabeterako hartuta.

ANSUR Kolektiboaren<sup>6</sup> arabera, BABES gisa zera ulertzen da: giza eskubideen defendatzaileek, erakundeek eta instituzioek bizitzeko eta lan egiteko eremu seguruak sortzeko eta hedatzeko gauzatzen dituzten ekintzen multzoa. Ildo horretan, babesak osotasun fisiko, emozional eta kolektiboaren aurkako mehatxuei aurre egiteko hainbat estrategia eta ekintza hartzen ditu barruan.

Beraz, uste dugu babesak, mehatxurik ez izateaz gain, pertsonen, komunitateen eta kolektiboen ongizatea ere –alderdi guztiei erreparatuta– hartzen duela bere baitan.

Babesean adituak diren erakundeek hiru estrategia mota nabarmentzen dituzte:

•**Onarpen-estrategiak:** arriskuak gutxitzen dituzte erasotzaile potentzialen erakundearen lanarekiko tolerantzia lortzerakoan. Onarpen-maila areagotzeko modurik onenetarikoa da erakundearekiko onespen orokorra lortzea (komunitatearen baieztoko politikoa eta soziala). Hori lortzeko, harreman positiboari bide eman behar zaie, erakundea ezagutzera eman eta egile independente gisa zilegitasun-kuota handiagoak lortu.

•**Babes-estrategiak:** testuinguruaren eta arriskuaren azterketa oinarri hartuta, segurtasuna areagotu egiten da segurtasun-neurriak eta prozedura operatiboak identifikatu eta martxan jartzean, hala nola, jardute-protokoloak, laguntza psikosoziala kolektiboko kideei, autobabeserako neurriak, informazioa eta komunikazioa modu seguruan erabili.

•**Disuasio-estrategiak:** arriskua gutxitzen dute eustea edo mehatxua ekiditea lortzen baitute, hain zuzen erasoaren koste politikoa areagotzeko dituzten eragin-ekintzen bitartez: salaketa-kanpainak,

---

5 Tokian-tokira egindako bisitei buruzko informazio gehiago, "Prozedura. Jarraipena".


6 ANSUR Kolektiboa(2014).

---

presioa egiteko aliantzak sortu edo indartzea (naziokoak eta nazioartekoak), agintariekin elkarriketa, besteak beste.

Berehala sor daitekeen arrisku-egoeren aurrean, erasoei eta mehatxuei erantzuteko erreakzio gisa ulertu da babes, tradizioz. Azken urteotan, ordea, ikuspegi hori berrikusi beharraz jabetuta, gauzatzen ari diren estrategien eraginkortasuna aztertuta eta egoera zehatz bakoitzaren konplexutasuna eta aniztasunak kontuan hartuta, ikuspegi integralago bat erabiltzen da, 4 dimentsio edo alderdi dituena, hain zuzen: antolaketa, harremanak, alderdi psikosoziala eta segurtasuna.

Alderdi horiek lau hankako<sup>7</sup> mahai baten bitartez daude irudikatuta. Horietako bat moztuz gero, adibidez, mahai osoa kulunkatu egingo da.



•**Antolaketaren inguruak.** Segurtasun instituzionala areagotzeko balio duten erakundearen barne-elementuak edo funtzionatzeko elementuak. Esaterako, barne-espazioak izatea gai hauetan sentsibilizatzeko eta prestakuntza emateko: “inor babestu ahal izateko norbera babestea”-ren garrantzia, erabakiak hartzea babesaren kudeaketan, funtzionamendu- eta antolamendu-alderdiei buruzko printzipioak eta moduak, segurtasun-gorabeheretan testuinguru-, arrisku- eta sistematizazio-analisiak egiteko metodologia, komunikazio-estrategia aldizka berrikustea eta lidergo kolektiboak sustatzea.

•**Harremanak.** Multzo honetan biltzen dira nazio barruan zein nazioartean erakundeak dituen sareak, aliantzak eta koordinazio-espazioak, horien berrikuspina eta horiek areagotzeko eta mantentzeko mekanismoak. Eragin-tresna gisa, agintarieko harremana ere hartuko da kontuan, baita hori gauzatzeko modua eta lortzen diren emaitzak ere.

•**Segurtasun-neurriak.** Segurtasuna handiagoa izatea lortzen duten eguneroko praktikak, prebenitzeko edo erreakzionatzeko jardunbideetan pentsarazteko balio dutenak. Hemen biltzen dira, halaber, norberak hartu beharreko neurriak, informazioaren erabilera egokia, egoera desberdinetan jarduteko protokoloak, larrialdietako planak, bulegoetako segurtasunari buruzko akordioak, bulegoetako bisiten inguruko akordioak.

•**Alderdi psikosozialak.** Erakundeko kideen eta lankide diren pertsonen ongizatea bermatzeko egiten den guztia biltzen ba hemen. Adibidez, indarkeriaren eraginari aurre egiteko moduak, biktimekiko eta herritar zaurgarriekiko harremana, emozioak adierazteko barne-mekanismoak, beldurraren kudeaketa, testuinguruaren eta estresaren ondoriozko nekearen prebentzioa, larrialdi baten ondorengo prebentziozko eta erreakziozko laguntza-estrategiak.

## Giza eskubideen defendatzaileak

Giza Eskubideen aldeko Nazio Batuen Goi Komisarioaren Bulegoari jarraikiz, giza eskubideen defendatzaileak dira indibidualki nahiz besteekin batera giza eskubideak sustatzeko edo babesteko ahaleginak egiten dituzten pertsonak. Termino zabala da, eta barne hartzen ditu giza eskubideen urraketa oro desagerrarazten laguntzen eta eskubideon benetako baliatzea sustatzen dituzten horiek ere, direla banakoak, direla kolektiboak.

---

7 Ídem.

Giza eskubideen defentsa eta sustapena berez da eskubidea, Giza Eskubideen Defendatzaileei buruzko Adierazpenak<sup>8</sup> 1. artikuluan ezarritakoaren arabera: *“Pertsona orok du, banaka edo taldeka, herrialdean eta nazioartean giza eskubideen eta oinarrizko askatasunen gauzatzea eta babesa lortzen saiatu eta bultzatzeko eskubidea”*.

Esparru horretan, Euskadiko Babes Programak hauek jotzen ditu giza eskubideen defendatzailetzat: eskubide politiko, zibil, ekonomiko, sozial eta kultural, nahiz ingurumen-, sexu- eta ugaltze-eskubideen defentsan diharduten antolakunde edo mugimendu sozialei lotutako pertsonak.

Lehentasuna emango zaie giza eskubideen defendatzaileen egoeraren inguruan Nazio Batuen Erreloretza Bereziak finkatutako kolektiboak:

**•Antolakunde feministen kide diren emakumeak eta LGTTBI<sup>9</sup> pertsonen eskubideen defentsan diharduten pertsonak.**

Emakumeen Giza Eskubideen Defendatzaileen Nazioarteko Koalizioak honela adierazi zuen, duela hamarkada bat baino gehiago, emakumezko defendatzaileak<sup>10</sup> aitortzearen beharra: *“Giza eskubideen emakumezko defendatzaileen kategorian daude, batetik, giza eskubideen defentsan diharduten emakume aktibistak, emakume diren aldetik; eta, bestetik, emakumeen eskubideen defentsan jarduteagatik erasoak jasotzen dituzten emakumeak. Aktibista lesbianek, gayek, bisexualak eta transgeneroek giza eskubideen aldeko borroka askotan parte hartzen dute, eskubide sexualen aldarrikapena barne. Kaltebera bihurtzen dira direna direlako eta egiten dutena egiten dutelako, batez ere euren lana zuzenean sexualitatearekin lotuta badago”*. Alabaina, generoa pertsonen espazio pribatuari dagokion alderdi gisa hartzen duten botere-harremanen legitimazio patriarkalak eta heteronormatiboak egin duena izan da giza eskubideak defendatzen dituzten emakumeen eta LGTTBI pertsonen aurkako indarkeriazko praktikak ikusezin bihurtu edota txikiagotu.

**•Eskubide ekonomiko, sozial, kultural eta ingurumen-eskubideen defentsan diharduten pertsonak; batez ere, lur- eta lurralde-eskubidea aldarrikatzen dutenak, populazio indigenak eta afrikarren ondorengoak.**

Front Line Defenders-en<sup>11</sup> arabera, 2017an hil zituzten defendatzaileen %67, lurra, herri indigenen eskubideak eta ingurumena defendatzen ziharduen; eta kasu gehienetan, megaproiektu, erazte-industria eta enpresa handien jardura testuinguruetan.

**•Gutxitutako kolektiboan eskubideen alde diharduten pertsonak.**

## Parte hartuko duten eragileak

Eusko Jaurlaritzako Biktimen eta Giza Eskubideen Zuzendaritza ari da Euskadiko Babes Programa zuzentzen, CEAR-Euskadi ari da kudeaketa lanetan, eta Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentziaren babesa du. Honako hauek hartzen dute parte, Hautaketa Batzordearen kide diren heinean: Eusko Jaurlaritzaren Kanpoko Ekintza Zuzendaritzak, Hegoa Institutuak (Euskal Herriko Unibertsitatea), Pedro Arrupe Giza Eskubideen Institutuak (Deustuko Unibertsitatea), Euskal Autonomia Erkidegoko GGKEen Koordinakundeak eta Giza Eskubideen eta Bake Hezkuntzaren Elkartearen Foroak. Urtero, hautagaitzak aurkezten dituzten euskal antolakundeek Babes Sarea eratzen dute. Azkenik, ANSUR kolektiboak ere hartzen du parte, babesari eta segurtasunari buruzko kontuen inguruan aholkatzen.

8 Gizabanakoek, taldeek eta erakundeek mundu osoan onartutako giza eskubideak eta oinarrizko askatasunak bultzatu eta babesteko dituzten eskubideari eta betebeharrari buruzko adierazpena. Nazio Batuen Asanblada Orokorra 53/144 Ebazpenaren onartua.

9 Lesbiana, Gay, Transexual, Transgenero, Bisexual eta Intersexualak.

10 Barcia, Inmaculada; eta Penchaszadeh, Analia (2012).

11 Front Line Defenders (2017).

---

# Prozedura

---

## Hautagaitzak aurkeztea

Programak hiru pertsona hartzen ditu Euskadin, urtero, sei hilabetez. Eusko Jaurlaritzaren Biktimen eta Giza Eskubideen Zuzendaritzak deialdi ofiziala argitaratzen duen unetik hilabetezko epea zabaltzen da hautagaitzak aurkezteko.

Beste herrialde eta eskualde batzuekin elkartasunean lan egiten duten Euskadiko antolakunde nahiz mugimendu sozialen bitartez aurkezten dira hautagaitzak; izan ere, haiek laguntzen dituzte hautagaiak parte hartzen duten giza eskubideen defentsarako prozesuak, eta, beraz, testuingurua ezagutzen eta bertan diharduten instituzio, erakunde eta elkartasun-sareen irispidean daude.

Euskadiko Programak **prebentzio-izaera** du, eta horren arabera finkatzen da bere funtzionamendu eta agenda. Babesa jasotzen duten pertsonak, giza eskubideen aldeko lanagatik jazarpena eta mehatxuak pairatzen dituzten arren, egoera arriskutsua izanik ere, ez daude herrialdea presaka eta berehala utzi beharrean.

CEAR-Euskadik hautagaitzak jaso, eta Eusko Jaurlaritzaren Biktimen eta Giza Eskubideen Zuzendaritzari bidaltzen dizkio.

## Hautaketa

Biktimen eta Giza Eskubideen Zuzendaritzak deitzen du Hautaketa Batzordea, eta, batzordekideek egoki deritzen txostenak eskatu ahal izango dizkiete hautagaitzak proposatzen dituzten euskal erakundeei, arrisku-egoerak eta horien zergatiak egiaztatzeko, datuen konfidentziasuna eta hautagaiaren eta bere kolektiboaren segurtasuna bermatuta.

Batzordeak adostasunez erabakiko du zer hiru pertsona hartu babespean; horretarako, formulario<sup>12</sup>, bidalitako dokumentazioa eta arrisku- eta genero-irizpideak hartuko ditu oinarri gisa. Irizpide horiekin bermatu nahi dena da Programak balioko duela babestutako pertsonen eta haien kolektiboaren edo komunitateen aurkako erasoak eta indarkeria ekintzak gerta ez daitezen, baita emakume defendatzaileek babes-tresna honetara irits daitezen ere.

Hautagaitza bat aukeratzeko denean, hura proposatu duen euskal erakundea Babes Sarearen parte izatera igaroko da. Erakunde horrek eratu du, orobat, Programaren koordinazioaren (CEAR-Euskadi) eta jatorrian dagoen erakundearen arteko komunikazio kanala.

## Jatorri herrialdetik irteera

Jatorriko herrialdean dauden erakundeak, Babes Sareak eta Programaren koordinatzaileak (CEAR-Euskadi) elkarrekin antolatzen dute hartuko diren pertsonen irteera (bidaia prestatzea, dokumentazioa kudeatzea, itxaropenak zehaztea) eta Euskadin egingo zaien harrera.

## Harrera

Programa ikuspegi feminista eta psikosozialetik garatzen da, eragin politikoa, zaintza eta erakundearen indartzea bideratze aldera.

•**Laguntza psikosoziala:** Programa babesaren ikuspegi integraletik garatzen da, eta hainbat kontu sartzen dira hor barruan: alderdi personalak, antolakuntzari buruzkoak eta politikoak; indarkeria politikoaren eraginez arretoa berezia behar duten pertsonen laguntza psikoterapeutikoa; eta babespean hartutako pertsonen zaintza, herrialdetik aldi batez ateratzeko esperientzia lantzeari dagokionez.

---

12 Ikus erankina.

•**Agenda politikoa:** Hau da Euskal Autonomia Erkidegoko egonaldian egindako lanaren helburua: pertsona horiek eta haien erakundeak instituzionalki eta politikoki babesteko nazioarteko sareak zabaltzea eta indartzea. Praktikan, sare horiek babes-mekanismo bezala jarduten dute; hala, jendeak modua du lurraldean giza eskubideak babesten jarraitzeko. Lan horrek balio du Euskadiko –eta kasuan-kasuan, Espainiako eta Europako– herritarrak sentikor bihurtzeko eta haien aurrean agerian uzteko eta salatzen zer mehatxu-egoera pairatzen duten giza eskubideen defentsan diharduten erakundeek, eta zer aldarrikapen dituzten ildo horretan.

•**Prestakuntza-agenda:** Haien kezka eta interesak zein diren ikusita, asmoa da prestakuntza espezializatua ematea giza eskubideen defentsaz eta sustapenez. Programaren babespeko pertsonen lan-ibilbide aintzatsia dutenez, akademia munduaren eta gizartearen hainbat esparrutan ere parte hartuko dute, hizlari gisa.

## Itzulera

Programa barruko une garrantzitsuetakoa da, bereziki, babestutako pertsonen segurtasunari dagokionez. Testuinguruaren azterketa eta arriskuaren diagnostikoa egin behar dira, jatorrizko lurraldeetara itzultzeko babes-estrategiak eta ekintza-planak zehazteko. Hori guztia, kontuan hartuta zer indargune eta ahulgune dituzten erakundeek eta zer Babes- eta Laguntza-Sare dituzten babestutako pertsonen, baita haiek Euskadin egon bitartean sortu edo indartu diren ere.

## Jarraipena

Itzuli ostean, Programak eta Euskadin egon bitartean sortu den Babes- eta Laguntza-Sareak, babestutako pertsonaren eta haren erakunde, kolektibo edo komunitatearen jarraipena egiten dute.

Ekintza nagusien artean hauek nabarmenduko ditugu: **jakinarazpen publikoak, gutunak edo komunikazio pribatuak erakunde publiko edo nazioarteko erakunde desberdinekin**, itzuli ostean, babestutako pertsonen bizitza edo segurtasun fisikoa edo psikologia eta haien erakundeena arriskuan jar dezaketen egoeren inguruan; eta Euskadiko ordezkariak baten bisita tokian-tokira.

Erakundeek, mugimendu sozialek eta kolektiboek antolatuta jardunez gero, hainbat modutara erantzun daitezke, jardun-eremu desberdinetatik, eta babesa sortu horrela, arrisku- edo mehatxu-egoeren aurrean.

**Tokian-tokira egindako bisitarekin** Programan hartutako pertsonen eta komunitatearen egoeraren jarraipena egiten da, haien babes sarea sendotu eta Jaurlaritzaren, erakundearen eta Legebiltzarraren laguntza agerian jartzen da. **Euskal ordezkarietan**, Eusko Jaurlaritzaren Biktimen eta Giza Eskubideen Zuzendaritza buru delarik, honako hauek partzen dute: Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentziak, Eusko Jaurlaritzaren Kanpok Ekintza Zuzendaritzak, Eusko Legebiltzarreko Giza Eskubideen Batzordeak, programan hartutako pertsonak aurkeztu dituzten euskal erakunde edo mugimendu sozialek, eta CEAR-Euskadik. Bisitan zehar, hainbat bilera egiten dira giza eskubideen erakundeekin, kolektibo eta komunitateekin, instituzio publikoekin, nazioarteko organismoekin eta misio diplomatikoekin, programan hartutako pertsonen eta haien erakundearen eta mugimenduen inguruko segurtasunarekin lotutako kezka helarazteko. Eduki aipagarrienak txosten batean sartzen dira: bertan jasotzen dira euskal ordezkariaren azterketa, balorazioak, kezka bereziak eta gomendioak. Txostena jatorriko herrialdeko giza eskubideen erakundeek, instituzio publikoek eta nazioarteko erakundeek helarazten zaie, bai eta, kasuan-kasuan, Euskadikoei eta Espainiako Estatukoari ere.

Euskadiko Babes Programak hainbat herrialdeko pertsonak hartzen ditu berean; beraz, urtero, arriskuaren, babesaren (disuasio-gaitasuna) eta koiunturaren irizpideei eta kudeaketarekiko koherentziaren irizpideei erreparatuz diseinatzen da bisita.

Jarraipen-ordezkaritzen txostenak deskargatzeko: <http://cear-euskadi.org/?p=388> eta <http://www.euskadi.eus/defensores-y-defensoras-de-los-derechos-humanos/web01-s1lehbak/es/>

---

# Ikasitakoak eta erronkak

---

Euskadiko Babes Programa tresna bizia da, eta etengabe berraztertzen da. Instituzioen, erakundeen nahiz komunitatearen esparruko ahots ugariak taxututako programa da: dela Euskadin, dela beste herrialde eta eskualde batzuetan, babeserako eta elkartasunerako tresna hau taxutuz joan da.

Eraikitze kolektibo horri esker, jardunbide egokien eredu da gaur egun, eta erreferentzia izan da Espainiako eta Europako beste babes-programa eta -tresna batzuk martxan jartzeko; instituzioetako eta antolaketako eragile desberdinen aintzatespena dauka Euskadin, Espainian eta Europan; eta tokian-tokira egindako bisitei eta politikan eta babes-alorrean egindako eragite-lanari esker, programan hartutako pertsona defendatzaileen jatorrizko herrialde batzuetako instituzio publikoekin solaskidetzeta dauka.

Izan ere, erantzukizun-ariketa eta erronka etengabekoa da giza eskubideen defendatzaileen babesa. Arrisku-egoeran dauden giza eskubideen alde diharduten pertsona eta erakundeekin eta babesaren alorrean diharduten erakundeekin eratutako loturari esker, eta gai honen inguruan<sup>13</sup> CEAR-Euskadik egindako ikerketen ondorioz, ikasitakoak eta aurrean ditugun erronka batzuk adieraz ditzakegu.

## Ikasitakoak

•**Babesaren ikuspegi integrala:** Babesaren gaia jorrazteko ezinbestekoa da ikuspegi integral batetik abiatzea, aipatutako lau elementuak barne hartuko dituen ikuspegitik: antolaketa, harremanak, segurtasun-neurriak eta laguntza psikosoziala.

•**Ikuspegi feminista:** Zuzeneko indarkeriek eta errepresio politikoak eta etengabeko jazarpen-eta mehatxu-egoeran bizi izateak sorrarazten dituen estresak, segurtasun ezak eta beldurren somatizazioak biziki kaltetu dute defendatzaileen gorputzak. Lan egiterakoan zaintzea eta gorputzari jaramon egitea ezinbestekoak dira. Eremu pertsonala politikoa da, funtsezkoa ongizaterako eta babeserako “Zaindu egiten naiz; izan ere, ni ondo banago, indartu egiten baitut nire borroka, nire prozesua”.

•**Sarean lan egitea:** Gaitasun eta jardun-eremu desberdinak eta osagarriak dituzten eragile desberdinak (erakundeak, gizarte zibila) antolatuta jardunez gero, areagotu eta sendotu egiten dira defendatzaileei eta haien erakundeek laguntzeko babes-sareak.

Programan hartutako defendatzaileek Euskadin dauden bitartean sorrarazten eta indartzen dituzten sareez gain, Espainiako Estatuan garatutako babes-programekin artikulatzen da Euskadiko programa, modu egonkor eta finkatuan, baita Protect Defenders-ekin ere, hau da, giza eskubideen alorrean diharduten 12 GKEz osatutako partzuergo batek gidatzen duen Europar Batasunaren babes-mekanismoa.

Eta 2015a geroztik, Giza eskubideen defendatzaileak aldi batez birkokatzekeo Plataforma Orokorren parte da. Europako Batzordearen ekimena da hori, giza eskubideen defendatzaileei buruzko Europar Batasunaren Zuzentarauak<sup>14</sup> betetzeko. Babes-premia desberdinei erantzun koordinatua ematea helburu duten unibertsitateak, gobernuz kanpoko erakundeak, hiriak, udalerrriak eta gobernuek parte hartzen dute ekimen horretan.

---

<sup>13</sup> INCYDE, CEAR-Euskadi: Sistematización Programa Vasco de Protección Temporal para Defensoras y Defensores de Derechos Humanos. Bilbao, 2018 / CEAR-Euskadi: PROTEGER A QUIEN DEFIENDE. Diagnóstico sobre necesidades de protección de personas defensoras de derechos humanos. Bilbao, 2018.

<sup>14</sup> Europar Batasunaren gidalerroak Giza Eskubideen Defendatzaileei buruz, 2004ko ekainaren 14a. 2008an berrikusiak: EBko estatu kideek betekizundute "beste herrialde batzuetan arriskupean dauden giza eskubideen defendatzaileak laguntzeko eta babesteko neurri azkarrak aurreikustea: adibidez, egoki deritzenezan premiazko bisak emanda eta Europar Batasuneko estatueta aldi baterako harreraren alde eginik".



## Erronkak

•**Erakundeak jatorrizko herrialdeetan indartzea:** Babes- eta birkokatze-programekin batera, beti gauzatuko dira erakundeak eta gizarte mugimenduak jatorrizko herrialdeetan indartzeko estrategiak. Hori da babeserako lehendabiziko mekanismoa.

•**Giza eskubideen defentsaren eta babesaren ikuspegi kolektiboa:** Defendatzaileen babes-premiei haien familiak, kolektiboak eta komunitateak barne hartzen dituzte. Mehatxuak eta erasoak modu askotakoak dira eta arrazoiak hainbat, baina helburua giza eskubideen defentsa oztopatzea da, eta gizarte-sarea apurtzea, beldurra eta mesfidantza sortuz. Horrela, nahiz eta erasoak indibidualak izan, erakundeari min egitea da bilatu ohi dena.

Ilido horretatik, Programa honek banakoa denaren eta kolektiboa denaren arteko elkarrikeria ezartzen du. Harrera banaka egiten zaie, hain zuzen erakundeetan eta gizarte mugimenduetan antolatuta dauden pertsoneri.

•**Kriminalizazio-estrategia orokorrak:** Orokorrean, kriminalizazio-estrategiak dira gaur egun defendatzaileek eta kolektiboek aurre egin behar dien indarkeria-mota nagusiak: estigmatizazio publikoa hedabideak edo diskurtso politikoak baliatuz, edota haien aurkako prozesu judizialak abiaraztea.

Estrategia horren atzean dagoena da pertsona jakin batzuk interes propioak defendatu nahi dituztela:

•Ekonomikoak: lursail batera sartu ahal izatea enpresa batek ustiatu ahal izateko lursail hori, edota droga-, arma- edo pertsona-trafikorako korridoreak babestea.

•Politikoak: aurkari politikotzat jotzen diren pertsonak desagerraraztea.

•Juridikoak: egia argitzen ez uztea.

•**Giza eskubideen aldeko lana publikoki legitimatzeko narrazioak:** Giza eskubideen pertsona defendatzaileak eta kolektiboak, besteak beste “subertsibo”, “garapenaren etsai” edo “gaizkile” gisa aurkezten dituzten kriminalizazio-estrategia orokorreari erantzuteko, ezinbestekoa da kontranarrazioak sortzea, nazioarteko komunitateak publikoki legitimatu dezan haien lana, guztion onurarako eta mundu bidezkoago eta iraunkorrago bat eraikitzeko nahitaezkoa baita lan hori.

•**Baliabide ekonomikoak eta materialak:** Giza eskubideen defendatzaileek, haien erakundeek eta gertukoek (familiak eta kargura dituzten pertsonak) baliabide ekonomikoak eta materialak behar dituzte miseriarik gabeko bizitza bermatzeko. Segurutasun arrazoiengatik nahitaez egin behar dituzten etengabeko joan-etorriek pobretzea dakarte, bizirauteko aukerak desagituratu egiten baitira. Horrez gain, etorkizunarekiko ziurgabetasuna bizirik dago prozesu osoan.

Gero eta sarriago ematen diren kriminalizazio eta judizializazio kasuetan, ezinbestekoa da babes ekonomikoa, epaitegietara lagundu eta laguntza psikosoziala ematen jarraitzeko.

---

Informazio gehiago jasotzeko, honako hauekin jar zaitezke harremanetan:

•Eusko Jaurilaritza. Bitimen eta Giza Eskubideen Zuzendaritza:

derechos-humanos@euskadi.eus

Telefono-zenbakia: (0034) 945 016628

•CEAR-Euskadi:

programa.proteccion@cear-euskadi.org

Telefono-zenbakia: (0034) 94 424 8844

---



---

Giza Eskubideen Defendatzaileak  
aldi batez Euskal Autonomia  
Erkidegoan Babesteko  
Programarako hautagaitzak  
aurkezteko eskabidea

---

---

# Giza Eskubideen Defendatzaileak aldi batez Euskal Autonomia Erkidegoan Babesteko Programarako hautagaitzak aurkezteko eskabidea

Posta elektronikoz bidali hautagaitzak, helbide honetara: [programa.proteccion@cear-euskadi.org](mailto:programa.proteccion@cear-euskadi.org)

Informazio gehiago eman nahi bada, erantsitako dokumentazioa aurkez daiteke. Formularioa betetzean zalantzak badituzue, CEAR-Euskadirekin harremanetan jar zaitezke (helbide elektronikoa: [programa.proteccion@cear-euskadi.org](mailto:programa.proteccion@cear-euskadi.org); telefono-zenbakia: 0034 944248844).

## 1. ERAKUNDE ESKATZAILEA (Euskadiko antolakundea)

### 1.1. Erakunde eskatzailearen datuak

Erakundearen izena	Erakundearen IFZ/IFK	
Erakundeak jakinarazpenetarako duen helbidea		
Udalerrria	PK	
Legezko ordezkariaren izena	Legezko ordezkariaren izena	
Erakundearen izaera juridikoa		
<input type="checkbox"/> Elkartea	<input type="checkbox"/> Fundazioa	<input type="checkbox"/> Beste batzuk (zehaztu)
Teléfono	Fax	Correo electrónico (a efectos de comunicación)
Web helbidea		

Sinatzen duenak **egiaztatzen** du erakunde esleitzzaileak betetzen dituela deialdi honetan hautagaitzak aurkezteko baldintzak. Hori dela-eta **ziurtatzen** du ezen inprimaki honetan eta erantsitako dokumentazioan dauden datuak egiazkoak direla.

Erakunde eskatzailearen  
legezko ordezkariaren sinadura:

Erakundearen zigilua:

Lekua eta data:

## 1.2. Erantsi honako dokumentazio administratibo hau

Erakundeak Autonomia Erkidegoko Bazkunen Errolda Nagusian izena eman duela egiaztatzeko fotokopia.

Erakunde eskatzaileak erakundea dela-eta duen legezko ordezkartzaren egiaztapenaren fotokopia.

*Oharra: aurreko deialdietan hautagaitzak aurkeztu badira, ez da beharrezkoa lehen bi atal hauei buruzko dokumentazioa eranstea.*

Erakunde eskatzailearen konpromiso-akta (3. eranskina bete).

## 1.3. Erakunde eskatzailearen lan-ildo orokorrak

(Oharra: informazio hori ematen duen jarduera-memoria bat aurkezten bada, ez da beharrezkoa eremu hau betetzea)

---

---

---

---

---

## 1.4. Hautagaiak bere jaioterrian egindako lanaren inguruko memoria labur bat

(Oharra: informazio hori ematen duen jarduera-memoria bat aurkezten bada, ez da beharrezkoa eremu hau betetzea)

---

---

---

---

---

## 1.5. Hautagaia kide den erakundea/mugimendua laguntzeko eta babesteko egindako lanaren memoria labur bat

(Oharra: informazio hori ematen duen jarduera-memoria bat aurkezten bada, ez da beharrezkoa eremu hau betetzea)

---

---

---

---

---

## 1.6. Bakea bultzatzeko eta giza eskubideak babestu eta sustatzeko tokiko, nazioko nahiz nazioarteko sare bateko kide izatea

Sarearen izena	Urtea	Tokikoa	Nazionala	Nazioartekoa
		<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>
		<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>
		<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>
		<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>

---

## 2. DEFENDATZAILEAREN ERAKUNDEARI BURUZKO DATUAK (jaioterriko erakundea):

### 2.1. Erakundearen datuak

---

Erakundearen izena

---

Udalerrria

País

---

Legezko ordezkariaren izena

---

Telefono-zenbakia

Faxa

Posta elektronikoa  
(jakinarazpenetarako)

---

Web helbidea

---

### 2.2. Erantsi honako dokumentazio administratibo hau

- Defendatzailearen erakundearen berme-gutuna (1. eranskina bete).
- Defendatzailearen erakundearen konpromiso-akta (2. eranskina bete)

### 2.3. Hautagaia kide den erakundea/mugimenduaren lanaren memoria laburra (jaioterriko herrialdean edo komunitatean egindako lana barne)

(Oharra: informazio hori ematen duen jarduera-memoria bat aurkezten bada, ez da beharrezkoa eremu hau betetzea).

---

---

---

---

---

### 2.4. Bakea bultzatzeko eta giza eskubideak babestu eta sustatzeko tokiko, nazioko nahiz nazioarteko sareetara lotura

Sarearen izena	Urtea	Tokikoa	Nazionala	Nazioartekoa
		<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>
		<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>
		<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>
		<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>

### 3. DEFENDATZAILEARI BURUZKO DATUAK

#### 3.1 Datu pertsonalak

Izen-deiturak	
Identifikazio-agiri nazionala edo, hala badagokio, pasaportearen iraupen-irudiak ere adierazita.	Harremanetarako datuak (jakinarazpenetarako): Helbidea: Telefono-zenbakia: Harremanetarako pertsona:
Jaiotze-data:	Sexua:

#### 3.2. Hautagaia aldi baterako erbesteratuz babestea beharrezkoa dela pentsatzeko arrazoiak

---

---

---

---

#### 3.3. Hautagaiaren prestakuntza akademikoa edo ibilbidea

(Oharra: CVa erantsen bada, ez da beharrezkoa eremu hau betetzea)

---

---

---

---

#### 3.4. Programak defendatzailearentzat eta haren antolakunde/kolektiboarentzat izango duen erabilgarritasunaren aurreikuspena: Euskadin politikaren eta prestakuntzaren alorrean eraman lezakeen agenda

---

---

---

---

#### 3.5. Defendatzaileari buruz ezagutu behar den beste konturen bat

(Egonaldian eragina izan dezakeelako: adibidez, osasuna)

---

---

---

---

*Datu Pertsonalak babesteari buruzko 15/1999 Lege Organikoan xedatutakoa betez, jakinarazten zaizu inprimaki honen bidez eskuratutako zure datu pertsonalak datuak tratatzeko fitxategi automatizatu batean sartuko ditugula, Eusko Jaurlaritzaren Giza Eskubide, Bizikidetzeta eta Lankidetzarako Idazkaritza Nagusiaren Biktimen eta Giza Eskubideen Zuzendaritzan. Lege horretan jasotzen den moduan, datuok ikusi, zuzendu edo ezabatzeke nahiz aurka egiteko aukera duzu; horretarako, helbide honetara jo behar duzu: Eusko Jaurlaritzaren Giza Eskubide, Bizikidetzeta eta Lankidetzarako Idazkaritza Nagusiaren Biktimen eta Giza Eskubideen Zuzendaritza: Nafarroa kalea, 2 / 01007 Vitoria-Gasteiz.*

---

## 1. ERANSKINA

### Defendatzailearen erakundearen berme-gutuna

Defendatzailearen erakundearen gutun bat, honako eduki hauek izango dituena:

- Antolakundearen izena.
- Aurkezten eta bermatzen duten defendatzailearen izena.
- Antolakundeko defendatzailearen kargua eta erantzukizuna.
- Lekua eta data.
- Antolakundeko arduradunaren sinadura.
- Erakundearen zigilua.

## 2. ERANSKINA

### Defendatzailearen jaioterriko erakundearen konpromiso-akta

\_\_\_\_\_, Erakundeak, Giza Eskubideen Defendatzaileak aldi batez Euskal Autonomia Erkidegoan Babesteko Programaren eta haren ondorioen jakitun delarik,

GIZA ESKUBIDEEN DEFENDATZAILEAK ALDI BATEZ EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOAN BABESTEKO PROGRAMAREN AURREAN HITZEMATEN DU HONAKO HAUEK EGINGO DITUELA:

1. Defendatzaileari Programaren helburuen eta hartutako konpromisoen berri emango diola.
2. Euskadiko antolakundearekin etengabeko eta trabagabeko komunikazioa izango duela.
3. Defendatzailearen erbesteratzea kudeatuko duela, Euskadiko antolakundearekin eta Programaren koordinatzaileekin koordinatuta.
4. Herrialdetik ateratzeko kudeaketatik eratorritako gastuak justifikatzeko beharrezko diren administrazio-eginkizunak beteko dituela (adb.: bisak izapidetzea), Euskadiko antolakundearekin koordinatuta.
5. Defendatzailea herrialdetik ateratzeko jakin beharreko edozein aldaketa jakinaraziko dizkiola Euskadiko antolakundeari.
6. Defendatzailearekin adostu duela zer profil publiko den egokiena eta komenigarriena Euskadin egon bitartean.
7. Programaren koordinatzaileen gomendioei kasu egingo diela, eta komunikazio etengabea izango duela haiekin.
8. Defendatzailea programan sartzera eraman duen jatorri-egoeraren (testuinguruaren) jarraipena egingo duela, eta Euskadiko erakundeari jakinaraziko diola.
9. Aktiboki lagunduko duela arrisku-diagnostikoa eta ekintza-planen diseinua egiten, Euskadiko antolakundearekin eta Programaren koordinatzaileekin koordinatuta.
10. Euskadiko antolakundearekin komunikazio etengabea izango duela, defendatzailearen itzulera osteko egoera pertsonalaren eta antolatze-egoeraren jarraipena egiteko.

Konpromiso hauek onartzen ditut.

Sinadura:



### 3. ERANSKINA

## Euskadiko erakunde eskatzailearen konpromiso-akta

\_\_\_\_\_, erakundeak, Giza Eskubideen Defendatzaileak aldi batez Euskal Autonomia Erkidegoan Babesteko Programaren eta beraren ondorioen jakitun delarik,

GIZA ESKUBIDEEN DEFENDATZAILEAK ALDI BATEZ EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOAN BABESTEKO PROGRAMAREN AURREAN HITZEMATEN DU HONAKO HAUEK EGINGO DITUELA:

1. Defendatzailearen antolakundeari Programaren helburuen eta hartutako konpromisoen berri emango diola.
2. Hartutako pertsonekin, Babes Sarearekin eta Programaren koordinazioarekin begirunezko eta arretazko jokabidea izango duela.
3. Jatorriko erakundearekin etengabeko eta trabagabeko komunikazioa izango duela.
4. Defendatzailearen erbesteratzea kudeatuko duela, jatorri-eskualdeko antolakundearekin eta Programaren koordinatzaileekin koordinatuta.
5. Herrialdetik ateratzeko kudeaketatik eratorritako gastuak justifikatzeko beharrezko diren administrazio-eginkizunak beteko dituela (adb.: bisak izapidetzea), jatorriko antolakundearekin koordinatuta.
6. Defendatzailearen agenda politikoa eta prestakuntza-agenda taxutzen lagunduko duela, aktiboki, jatorri-eskualdeko antolakundearekin eta Programaren koordinatzaileekin koordinatuta.
7. Agenda politikoak eta prestakuntza agendak ekarritako gastuak justifikatzeko behar diren administrazio-eginkizunak beteko dituela.
8. Defendatzailearen harrera eta itzulera prozesuetan parte hartuko duela, Programaren koordinatzaileekin batera.
9. Defendatzailearen harrera- eta itzulera-prozesuetan jatorriko egoerari (testuinguruari) egindako jarraipenaren berri emango diola Programaren koordinatzaileei.
10. Arrisku-diagnostikoa eta ekintza-planen diseinua egiten lagunduko duela, aktiboki lagundu ere, Euskadiko erakundearekin eta Programaren koordinatzaileekin koordinatuta.
11. Egoera soziopolitikoan gertatzen diren aldaketei buruz behar bezala informatuko duela, defendatzailearen itzulera eragina badute.
12. Jatorriko antolakundearekin komunikazio etengabea izango duela, defendatzailearen itzulera osteko egoera pertsonalaren eta antolatze-egoeraren jarraipena egiteko.

Konpromiso hauek onartzen ditut.

Sinadura:

---

## Programaren Koordinatzaileen betebeharrak (CEAR-Euskadi)

CEAR-Euskadik honako betebeharrak dituzte EAE-ko Babes Programaren erakunde koordinatzaile gisa:

1. Euskal antolakundeei Programaren helburuen eta irismenaren berri ematea, bai eta alderdiek hartutako konpromisoen berri ere.
2. Hartutako pertsonak eta Babes Sarea begirunez eta arretaz zaintzea.
3. Eusko Jaurlaritzaren Biktimen eta Giza Eskubideen Zuzendaritzarekin eta Programaren Hautaketa Batzordearekin elkarrizketa bideratzea.
4. Hartutako pertsonekin, Babes Sarearekin eta jatorriko erakundeekin etengabeko eta trabagabeko komunikazioa izatea.
5. Defendatzailearen erbesteratzea kudeatzea, Babes Sarearekin, jatorri-eskualdeko erakundearekin eta Eusko Jaurlaritzaren Biktimen eta Giza Eskubideen Zuzendaritzarekin koordinatuta.
6. Herrialdeetik ateratzeko kudeaketatik eratorritako gastuak justifikatzeko beharrezko diren administrazio-eginkizunak koordinatzea (adb.: bisak izapidetzea), Babes Sarearekin lankidetzan.
7. Babespean hartutako defendatzaileei esleitutako harrera-pisua eta eskudirua kudeatzea.
8. Pisuko elkarbizitza eta, hala behar bada, banan-banako laguntza terapeutikoa kudeatzea.
9. Pertsonen babesari eta segurtasunari buruzko gaietarako laguntza kudeatzea, ANSUR kolektiboarekin, babestutako pertsonekin, Babes Sarearekin eta Eusko Jaurlaritzako Biktimen eta Giza Eskubideen Zuzendaritzarekin elkarlanean.
10. Defendatzaileen agenda politikoaren jarraipena egitea eta Programaren agenda instituzionala kudeatzea, babespean hartutako pertsonekin, Babes Sarearekin eta Eusko Jaurlaritzako Biktimen eta Giza Eskubideen Zuzendaritzarekin elkarlanean.
11. Defendatzaileen prestakuntza-agenda koordinatzea, Hautaketa Batzordeko kide diren institutu akademikoekin eta Babes Sarearekin elkarlanean.
12. Agenda politikoak eta prestakuntza agendak ekarritako gastuak justifikatzeko behar diren administrazio-eginkizunak koordinatzea, Babes Sarearekin elkarlanean.
13. Hartutako pertsonen egonaldian egin beharreko izapide juridikoak kudeatzea.
14. Harrera-prozesua, jatorriko lurraldeko egoeraren (testuinguruaren) jarraipena eta itzulera-prozesua (arriku-diagnostikoa eta ekintza-planen diseinua) koordinatzea, ANSUR kolektiboarekin, hartutako pertsonekin eta Babes Sarearekin elkarlanean.
15. Itzuleraren ostean jatorrian bertan jarraipena egiteko bisita koordinatzea, Eusko Jaurlaritzako Biktimen eta Giza Eskubideen Zuzendaritzarekin, hartutako pertsonekin eta Babes Sarearekin elkarlanean.
16. Babes Sarearekin komunikazio etengabea izatea, defendatzaileen itzulera osteko egoera pertsonalaren eta antolatze-egoeraren jarraipena egiteko.







# 3

• dokumentua

---

Garapenerako Lankidetzaren  
IV. Gida Plana (2018-2021)



---

# Garapenerako Lankidetzaren **IV. Gida Plana (2018-2021)**

---

**2018ko uztaila**

**EUSKO JAURLARITZA**



**GOBIERNO VASCO**

LEHENDAKARITZA  
Giza Eskubide, Bizikidetz  
eta Lankidetzaren Idazkaritza Nagusia  
Bikimen eta Giza Eskubideen Zuzendaritza

PRESIDENCIA  
Secretaría General de Derechos Humanos,  
Convivencia y Cooperación  
Dirección de Víctimas y Derechos Humanos



**GARAPENERAKO  
LANKIDETZAREN  
EUSKAL AGENTZIA**

**AGENCIA VASCA DE  
COOPERACIÓN PARA  
EL DESARROLLO**





# Aurkibidea

---

Hitzaurrea.

Sarrera.

1. Nahi dugun garapena.
2. Lankidetzaren politikaren helburuak.
3. Ikuspegiak.
4. Zeharkako lehentasunak, sektorialak, geografikoak eta testuinguruaren araberrakok.
5. Jardun estrategikoaren ardatzak.
  - Garapenerako politiken koherentzia.
  - Eremu strategikoak.
  - Toki-global ikuspegia.
  - Giza eskubideak.
  - Generoa.
  - Afrika.
  - Gatazkak eta beste indarkeria-egoera batzuk.
  - Ezagutza eta ikaskuntza sortzea.
6. Komunikazioa.
7. Jarraipena eta ebaluazioa.
8. Baliabideak.
9. AUZO(LAN)KIDEAK: ekimen enblematikoak.
- I. **Eranskina.** Jarraipen- eta ebaluazio-matrizea.
- II. **Eranskina.** Beste sail batzuen ekimenen zerrenda.

---

# Hitzaurrea

Garapenerako Lankidetzaren otsailaren 22ko 1/2007 Legea duela hamar urte onartu zen, eta orduz geroztik aldaketa sakonak ikusten ari gara politika publikoetako maila guztietan eragiten duen aldaketa-garaian.

Eraldaketa horien helmuga zein den aurreikustea zaila da, baina ziur gaude paradigmaren aldaketa- testuinguru honek anakroniko bihurtzen duela geldirik dagoena. Pasibotasuna ez da aukera bat eta, aldi berean, mugimenduak esplorazio izaera dinamikoa eta ziurgabetasunen bilakaerara irekia eduki behar du.

Errealitate konplexu horren deskribapenak garapenerako lankidetzaren politika publikoetan ere badu eragina. Koiuntura horretan oso beharrezkoa da 2018-2021 aldirako Garapenerako Lankidetzaren IV. Gida Plana prestatzeko, onartzeko eta aplikatzeko prozesua gogoeta kritikoko ikuspegi batetik begiratzea, mugitzen ari garen tokiko errealitate eta errealitate global berria zein den ikusita.

Beharrezko gogoeta horrek, irizpide egokiarekin eraikitakoari balioa ematera eta, aldi berean, jarrera akritiko bat ez hartzea animatzen gaitu. Ez arduragabekeria, ezta autokonplazentzia ere. Euskal kooperazioaren tresnak berritzeko eta eguneratzeko aukeraren aurrean gaude.

Esparru globala eta tokikoa elkarren artean lotuagoak daude, eta XXI. mendearen errealitatera egokitutako arduren agenda berria sendotzen ari da. Bizikidetzan edo hezkuntzan aniztasuna eta elkartasuna bezalako balioen kudeaketarekin loturako eztabaidak sortuberriak dira, baita giza eskubideen inguruko kontsiderazioarekin zuzenean lotutako gaiak ere.

Errealitate sortuberri horiek oraindik ez daude diskurtso sendo batean oinarrituta. Une honetara arte ukaezinak ziren eta funtsezko baliotan, eskubidetan eta askatasunetan eragiten zuten printzipioak zalantzan jartzen dituzten jarreraren eztabaidak eta gogoetak zabaltzen dituzte. Zentzu horretan, ziurrenik giza eskubideen defentsa eta, ondorioz, elkartasunari buruzko betebeharra, XXI. mende honetako lehen hamarkadetako zeregin nagusia izan daiteke.

Gaur egun, erreferentziako bi balioen arteko zuhurtzia sozial, politiko eta ideologiko batean hartzen dugu parte: individualismoa edo solidaritatea. Etorbizunari begira, datozen hamarkadetan grabitate- zentroak solidaritatearen balioa indartzeko joera duen edo, aitzitik, individualismoaren balioan sakontzeko joera duen ikusiko dugu. Bilakaera garrantzitsua da, haren proiektioak herritarren kontzientzian eragingo duelako, baita tokiko politikaren eta politika globalaren esparru diferenteetan ere.

Gogoeta hori prozesu honen oinarrian kokatzen da eta, datozen lau urte hauetako jarduketak bideratzeko garaian, garrantzi estrategiko bat lortzen du. Zentzu horretan, giza eskubideen garrantzia, solidaritatean inplikatzeko, eta lankidetzaren zentzuaren eta erabilgarritasunaren indarra sozialki eta instituzionalki partekatzea funtsezkoa da.

Berdintasun, justizia, bake eta askatasuneko oinarritzko baldintzak bereziki pertsona ahulenengana helduko diren mundu bat sustatzea eta eraikitzea ezinbestekoa dela partekatzen dugu, printzipio etiko batengatik. Gainera, helburu pragmatiko bat lortzeko, giza garapen eta garapen iraunkor bat toki-mailan eta maila globalean zabaltzea, gaur egungo eta etorkizuneko ongizate- eta segurtasun- testuinguruak errazteko estrategia egokiena dela onartzen dugu. Elikadura, etxebizitza, hezkuntza, osasun, autonomia, askatasun eta bakearen oinarritzko ondasunak partekatzeko gai izango den mundu batean bizi nahi dugu.

Horiek dira gure ideiak eta ezin dugu konformatu gure familien, herriaren edo kontinentearen ongizate-mailekin, gure aldamenen sufritzen ari diren, ihes egiten ari diren edo odolusten ari

diren errealitateak ditugunean. Giza Garapen Iraunkorreko eredia zabaltzea mundu zibilizatu baten funtsezko irizpide politikoa da; eta jakin badakigu hori egia bihur daitekeela ondorengo hau lortzen badugu: lankidetzaren politiketan islatzen den elkartasuneko betebeharra eta giza eskubideen inguruan kontzientziazioa eta inplikazio soziala eta instituzionala partekatzea.

Giza eskubideen ikuspegia, beraz, estrategikoa da eta globala izan behar du. Horregatik, Giza Eskubide, Bizikidetzaren Lankidetzaren Idazkaritza Nagusiaren jarduketaren esparruaren barruan sartu dugu Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentzia. Erabaki horrek agerian uzten du, lankidetzako politika publikoei zeharkako izaera emateko eta indartzeko Eusko Jaurlaritzaren borondate esplizitua.

Illo horretan, garapenerako politiken koherentzia IV. Gida Planean garrantzi handiagoa hartu duen funtsezko gako bat da. Eusko Jaurlaritzak Euskadin Giza Garapen Iraunkorreko eredu bat sustatzen du. Horren arabera, laguntzako politika tradizionalak gainditzen dituen eta Jaurlaritzak onartutako estrategien artean sinergiak sortzera eramaten gaituen ikuspegi batetik aztertzen da garapenerako lankidetzaren.

Horrek esan nahi du garapenerako lankidetzaren ez dela Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentziaren eginkizuna bakarrik, baizik eta zabaldu egiten dela eta Eusko Jaurlaritzaren ekintza osora aplikatzen dela. Nazioarteko hizkuntzan “politiken koherentzia” deitutako filosofia berri hori, Euskadin “auzolana” bezala ezagutzen dugu. Zentzu horretan “auzolana” Giza Garapen Iraunkorreko euskal ereduaren espiritua da.

Garapenerako politiken koherentziaren bitartez, ondorengo alderdien aldeko apustua egiten dugu: giza garapenerako ikuspegiaren eta diseinuaren iraunkortasuna, erantzukizun-maila diferentetan politika publikoak abian jarri eta ebaluatzea, eta politika horien arteko koordinazioa eta osagarritasuna. 2016ko apirilean, Gobernu Kontseiluak politika publikoetarako printzipio iradokitzaile hori eta, barne-esparruan eta nazioarteko esparruan, erronkei aurre egiteko ikuspegi hori onartu zituen.

Eusko Jaurlaritzaren kooperazio-politika, gainera, Garapen Iraunkorrerako Helburuekin eta Nazio Batuen 2030 Agendak markatzen dituen helmugekin loturatu da. Erreferentzia-esparru honetan pertsonetan zentratutako mundu baten ikuspegia partekatzen dugu, Planetaren babesarekin eta elkarbizitza baketsuarekin konprometitua, eta, aliantzen eredu baten edo lankidetzaren bidez, oparotasuna sortzeko gai izango dena.

Pertsonak, Planeta, Bakea, Oparotasuna eta Lankidetzaren dira gizakientzako eta planetarentzako garrantzi kritikoko bost esfera garrantzitsuak, “inor atzean ez uzteko” agintzarekin batera. Konpromiso hori, denboran zehar gure ikur izan zen elkartasuneko euskal espirituarekin lotzen da zuzenean. Euskal gizartearen solidarioa izan da eta izaten jarraitzen du. Elkartasun hori jarraitu dugun ibilbidearen oinarria da, beti gizarte zibil antolatuekin batera lan eginez eta, bereziki, euskal Garapenerako Gobernuaren Kanpoko Erakundeekin. Erakunde horiek funtsezkoak izan dira lankidetzaren eredu propio antzemangarri, aintzatetsi eta preziatu bat eraikitzen.

Orain arte ondo egindako lana da gida-plan berri honen abiapuntua eta eragilea. Edozein motatako auto-konplazentzian erortzeko arriskua saihesteko eta etengabe hobetzen eta berritzen aurrera jarraitzeko dugun pizgarria da, beti nabarmendu gaituen konpromiso- eta exijentzia-maila handituz.

Gure oinarria sendoa da, toki-, foru- eta autonomia-mailan garapenerako lankidetzaren politika publikoen 30 urteko ibilbidean finkatuta dagoelako, baita nazioarteko elkartasunaren esparruan antolatutako gizarte zibilarekin lankidetzaren esperientzian ere. Giza Eskubideen ikuspegia, Giza Garapen Iraunkorra, 2030 Agenda, Garapenerako Politiken Koherentzia eta Auzolana dira gure estrategia definitzen duten parametroak. Helburu partekatua euskal kooperazioaren berrikuntzan eta eguneratzean aurrera egitea da. Horrek guztiak 2018-2021 aldirako Garapenerako Lankidetzaren

IV. Gida Plana honen esparrua osatzen du, euskal gizartearen balio positiboekin konprometitzen gaituen tresna.

*Iñigo Urkullu Renteria*

---

# Sarrera

## Abiapuntua

2014-2017 aldirako III. Gida Planaren funtsezko helburua, sektorean zabaldua zegoen iritziari jarraikiz, honako hau izan zen: “euskal lankidetzaren eredu berriz pentsatzea eta eguneratzea, eta haren ezaugarri espezifikoak, euskal lankidetzaren agente bakoitzaren rola eta jarduteko modua eta lekurik garrantzitsuenak adostea”. Trantsizioko plan gisa planteatu zen. Ordura arte eraikitakoaren balioa (hots, izaera eraldatzaile eta deszentralizatua duen eta genero-ekitatearen eta eskubide-ikuspegiaren aldeko apustua egiten duen lankidetzaren balioa) agerian jarri, aurreko planaren ikuspegi eta irizpideekin jarraitzea planteatzen zuen, baterako eta partekatutako ikuspegi batean aurrera egitera bideratutako hainbat gogoeta egiten ziren bitartean.

2014-2017 aldiran, aurrerapen batzuk egin ziren. Dena dela, euskal lankidetzaren berrikuspen sakona epe luzerako prozesua da. Erronka berriak planteatzen dituen gero eta egoera konplexuago honetan, eredu eguneratzeko oinarriak eta motibazioak indarrean diraute eta indartu egin dira. Era berean, 2030 Agendaren onarpenak eta Garapen Iraunkorrerako Helburuek (GIH) aukera berriak ireki dituzte zenbait erronkari aurre egiteko, hala nola garapenerako politiken koherentziari, askotariko eragileen antolaketari eta gobernuen zeregin proaktiboagoaren premiari.

Hori dela eta, Eusko Jaurlaritzak bultzatutako lankidetzaren ereduaren berrikuspenean aurrera egin nahi dugu 2018-2021 aldi berri honetan, baina ez dugu lortu beharreko mugari gisa planteatu behar, prozesu jarraitu gisa baizik.

Abiapuntu modura, gogoeta eta ikaskuntza garrantzitsuak ditugu. Aurreko aldiran, eredu berrikosten eta eguneratzen lagundu duten azterlan, ekimen eta parte hartzean oinarritutako prozesu batzuk egin genituen. Besteak beste, honako hauek aipa daitezke: Garapenerako politiken koherentzia Euskadin: diagnostikoa eta proposamenak eta Euskal Autonomia Erkidegoko garapenerako politiken koherentziarako erreferentzia-esparrua azterlanak; Euskal lankidetzaren garapenerako nazioarteko testuinguru berriak: azterketa eta proposamenak tresnen markoari, agenteei eta partaidetzako eta elkarriketako guneei dagokienez ikerlana; (H)ABIAN 2030 – Gizarte Eraldaketarako Hezikuntzaren Estrategia, ARAR 2017-2020 Ekintza Plana eta 2018-2023 aldirako Ekintza Humanitarioko Estrategia lantzeko prozesuak eta esparru horretan sortutako azterlanak eta gogoetak; eta tresnen eta prozesuen ebaluazioak. Halaber, Europa-mailan hausnarketetan parte hartu genuen, eta Eusko Jaurlaritzak zuzendu zuen Europako Batzordearen, PLATFORMAren eta CRPM- Itsas Eskualde Periferikoen Konferentziaren arteko Shaping a new generation of decentralised cooperation for enhanced effectiveness and accountability txosten bateratua. Gainera, aldi horretan, beste agente batzuek zuzendutako beste gogoeta-prozesu baliotsu batzuen parte izan ginen.

## Diagnostikoa

Dokumentu eta gogoeta horiek guztiek hornitu dute IV. Gida Plana lantzeko prozesua. Gainera, plangintzaren planteamendua gidatu duten bi oinarri garrantzitsu izan ditugu: Garapenerako Lankidetzako Urte anitzeko 2018-2021 Plangintza Estrategikoaren Orientabide Orokorrak (orientabide orokorrak aurrerantzean) eta 2017ko abenduaren 20an Eusko Legebiltzarreko Giza Eskubide eta Berdintasun Batzordeak orientabide orokorrei buruzko eztabaidaren ondoren onartutako 35 ebazpenak, batetik; eta 2014-2017 aldiko Garapenerako Lankidetzaren III. Gida Planaren ebaluazioa, bestetik.

Orientabide orokorrek euskal lankidetzaren ibilbidea aitortzen dute, baina hobetu beharreko hainbat arlo identifikatzen dituzte: (I) lankidetzarako funtsen bolumena; (II) politiken koherentziaren hedapena; (III) gizarteak eta gizarteko agenteek nazioarteko elkartasunarekin duten konpromisoaren handiagotzea; (IV) praktikaren eta 1/2007 Legean islatzen den eraldaketa-ahalmenaren arteko egokitzea; eta (V) Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentziaren (GLEA) ekintza proaktibo eta estrategikoa.

III. Gida Planaren ebaluazioa plan hau prestatzeko asmo garbiarekin planteatu zen. Prozesu parte hartzaile baten bitartez, planaren diseinua, kudeaketa eta irismena analizatu ziren, baita etorkizunari begirako erronkak ere, aurreko ebaluazioa eta gaur egungo testuingurua aintzat harturik. Egindako analisisian oinarrituta, ebaluaketak planaren diseinurako eta ebaluagarritasunerako 21 hobekuntza-gomendio, helburuak lortzeko kudeaketa hobetzeko 5 ikaskuntza eta plan hau lantzeko 6 erronka proposatu ditu.

Bi dokumentuen ondorioak osagarriak dira adierazitako aldian aurre egin beharreko erronka nagusiei dagokienez:

- Lankidetzaren politika sendotzea, eta, horretarako, baliabide nahikoe-kin hornitzea.
- Garapenerako politiken koherentziaren aldeko apustua ekintza espezifikoez zehaztea.
- Erakundeen barruko eta erakundeen arteko koordinazioa sustatzea.
- Lankidetzaren gizarte-oinarria zabaltzea, artikulazio handiagoa bilatzea eta agenteen arteko aliantzak sustatzea.
- Ikuspegi berriak ekarriko dituzten esperientzia pilotuen bidez jardun-esparru berriak ikertzea.
- GLEAren rol aktiboa sendotzea.
- 2030 Agenda lokalizatzea eta harekin bat egitea.
- Ebaluazioaren, jakintzaren kudeaketaren eta ikaskuntzaren alde egitea.

<p>Norabidea</p>	<p>Planteatutako diagnostikotik eta erronketatik, proposamen berriak eta desafiatazaleak sortu dira. Hala ere, aldaketa disruptiboak planteatu ordez, beste eredu batzuetarantz abiatu nahi dugu. Plan honen aldiari, egiteko modu berriak ikertzen eta aldizka egindako eztabaida eta ekintza batzuetan agertu diren intuizioetan sakontzen lagunduko diguten ikuspegiak sartu nahi ditugu, estrategia integralagoak eta koherenteagoak aukeratu eta bultzatzeko. Aldi berean, aurreko urteetan bultzatu diren eta positibotzat hartu diren jardun-ildoak jarraitutasuna emango diegu, eta ildo horiek hobetzen saiatuko gara. Aldiaren amaieran, sartutako berritasunek beren helburua bete duten eta berritasun horiek sakondu, berrikusi edo baztertu behar diren baloratuko dugu elkarrizketa bidez. Beraz, trantsizio-egoeran jarraitzen dugu.</p> <p>Dokumentu hau (H)ABIAN 2030 - Gizarte-Eraldaketerako Hezkuntza- Estrategiarekin, ARAR 2017-2020 Ekintza Planarekin eta 2018-2023 aldiko Ekintza Humanitarioko Estrategiarekin lotuta dago. Dokumentu estrategiko horiek guztiek ikuspegi-elementu berdin batzuk dituzte, askotariko forma eta norainokoekin: (I) toki-global ikuspegiaren eta giza eskubideen ikuspegiaren garrantzia; (II) agenteen erantzunkidetasuna; (III) GLEAren zeregin aktiboagoa; (IV) erakundeen barruko eta erakundeen arteko koherentzia; (V) herritar kritikoen sustapena; (VI) ikaskuntzaren kultura; (VII) agenteen sendotzea; (VIII) komunikazioa; eta (IX) kontuak ematea.</p> <p>Plan hau praktikoa, erreala eta bideragarria izatea lortu nahi da, urteko planetan garatzeko moduko lehentasun eta apustu garbiekin eta malgutasunean eta berrikuntzan oinarritua. Planaren bidez, halaber, gobernuko zein gizarteko agenteak inspiratu, mobilizatu eta erantzunkide egin nahi dira.</p> <p>Planak, gainera, erabakiak hartzeko ikaskuntzak jasotzea eta xede-biztanleriaren inguruko politikaren norainokoa ezagutzeko aukera emango digun informazioa biltzea ahalbidetuko duen jarraipen-sistema baten eta komunikazioaren alde egiten du.</p>
<p>Lantzeko prozesua</p>	<p>Plan hau 2018ko lehen seihilekoan landu da. Hasierako proposamenak GLEAn sortutako hainbat lan-talde egindako gogoetak ditu abiapuntu, eta talde horien ideia nagusiak Garapenerako Lankidetzaren Euskal Kontseiluaren esparruan antolatutako hainbat lan-saiotan kontrastatu dira. Lehen zirraborra kontsulta publikora jarri da Irekia atariaren bitartez, eta gizarte-eragileen eta erakunde-mailako eragileen iritziak eta ekarpenak jaso dira. Jarraian, Garapenerako Lankidetzaren Euskal Kontseiluaren osoko bilkuran aurkeztu da, eta hark aginduzko txostena egin du, Eusko Jaurlaritzaren Kontrol Ekonomiko Bulegoak eta Aurrekontu Zuzendaritzak ere egin duten bezala. Azkenik, testu hau GLEAren Kontseilu Errektorean ezagutu da. Honek Gobernu Kontseilura eraman du hor azken onarpena har dezan uztailaren 24an.</p>

## Dokumentuaren egitura

Dokumentu honek 2018-2021 aldirako plangintzaren funtsezko elementuak biltzen ditu, bederatzi kapitulutan antolatuak. Lehen kapituluan, nazioarteko testuingurua eta 2030 Agendak gure lankidetzaren politika finkatu eta zabaltzeko duen ahalmena aztertu eta bultzatu nahi dugun garapena karakterizatu dugu. Bigarren kapituluan, aldi horretarako aurreikusitako eginkizuna, ikuspegiak, printzipioak eta helburuak aurkeztu ditugu.

Hirugarren kapituluan, berriz, datozen urteetan euskal lankidetzaren eraldaketa-ahalmena sustatzeko bultzatu nahi ditugun ikuspegiak daude bilduta. Laugarren kapituluan, zeharkako lehentasunak, sektorialak, geografikoak eta testuinguruaren arabekoak ezarri ditugu. Bosgarren kapituluan, ikuspegiak eta lehentasunen kapituluetan planteatutako erronkei aurre egiteko bultzatuko diren jardun estrategikoaren ardatzak zehaztu ditugu.

Seigarren kapituluan, datozen urteetarako komunikazioaren aldeko gure apustua burutzen eta zehazten da. Zazpigarren kapituluan, adierazitako aldirako proposatutako jarraipen eta ebaluazioko sistema aztertzen da. Kapitulu hori I. eranskineko jarraipen eta ebaluazioko matrizearekin osatuta dago.

Zortzigarren kapituluan, plana inplementatzeko beharrezkoak diren baliabideak, tresnak eta parte hartze eta gobernantza-sistema zehaztu ditugu. Azkenik, bederatzigarren kapituluan, AUZO(LAN)KIDEAK aurkeztu ditugu. Ekimen enblematikoak dira eta, jardun estrategikoaren ardatzen esparruan, planean planteatzen diren ikuspegi berriak garatzen dituzte.

Dokumentuaren amaieran, eranskin gehigarri bat dago. II. eranskinean, Eusko Jaurlaritzaren beste sail batzuk osagarritasunari, koordinazioari eta koherentziari lotuta egiten ari diren ekimenen mapaketa bat gehitu dugu.

---

# 1. Nahi dugun garapena

## Eraldatzen ari den testuinguru globala

Azken hamarkadan, eraldaketa sakonak gertatzen ari dira eremu guztietan. Bizi dugun globalizazioaren fase aurreratu honetan, eragin globala duten baina lurralde, kolektibo eta pertsonen arabera gero eta afektazio desberdin gehiago dituzten krisi ekonomikoak, instituzionalak, politikoak, sozialak, humanitarioak, ekologikoak, balioei lotutakoak eta abar nahasten dira. Krisi horiek tokikoa denaren, Estatukoa denaren eta nazioartekoa denaren arteko mugak lausotzen, garapenaren arazoak transnazionalizatzen eta fenomeno sozial, ekonomiko, politiko eta kulturalen arteko mendekotasunean sakontzen duten aldaketa batzuei erantzuten diete.

Egungo egoerak, beraz, honako ezaugarri hauek ditu: garapenaren arazoaren izaera transnazionala (bizikidetzaren arriskuan jartzen duten mehatxu globalizatzen dira); pertsonen arazoaren eta planetaren arazoaren arteko mendekotasun-erlazioa; eta desparekotasunen ugalketa eta sakontzea.

Arazo globalei, bidegabekeriei eta desparekotasunei aurre egiteko, erronka horien tamainara egokitutako politikak abian jarri behar dira, eta multilateralismo berri bat sustatu behar da apustu estrukturalago eta integralagoekin eta maila anitzeko logika batekin.

---



## Garapenaren nazioarteko agendaren zabalkuntza

Transnazionalizazio eta elkarren arteko mendekotasun prozesu horiek duela hamarkada batzuez geroztik gertatzen badira ere, globalizazioaren inplikazioak ez ziren sakonean aztertu 2000. urteko Nazio Batuen Milurtekoko Goi Bileran onartutako Milurtekoko Garapen Helburuetan, eta Iparralde-Hegoalde ikuspegi batetik zehaztu ziren.

Horiek horrela, 2030 Agenda eta Nazio Batuen Batzar Nagusiak 2015ean onartutako 17 GIHak aurrerapen handiak dira Milurtekoko Garapen Helburuei (MGH) dagokienez. GIHak esparru hobea dira; izan ere, nazioarteko testuinguruan gertatutako aldaketekin bat datorren planteamendu bat dute, garapenaren agendaren norainokoa era esanguratsuan handiagotzen dute, eta aurretik landu gabeko alderdi garrantzitsuak planteatzen dituzte.

Agenda global horrek hainbat aukera eskaintzen ditu: (i) proiektio unibertsa-la dauka, Iparralde-Hegoalde binomioa gainditzeko eskatzen digu eta gure garapen-ereduari buruzko gogoeta egitera bultzatzen gaitu; (ii) maila anitzeko agenda da, eta, bertan, tokikoa eta globala errealitate berekoak dira eta elkarren mende daude; (iii) integritasunerantz bideratuta dago, eta helburu sozialak, ekonomikoak eta ingurumenari lotutakoak elkarri lotzea bultzatzen du, sektore anitzeko garapena lortzeko —horretarako ezinbestekoa da politiken koherentzia bultzatzea—; eta (iv) herrialde guztiek erantzunkidetasuna ager dezaten eskatzen du, baina erantzukizun desberdinak daudela hartzen du kontuan.

Alderdi positibo horiek gorabehera, gabeziak ere badaude 2030 Agendan. Alde batetik, muga batzuk daude, hala nola giza eskubideen tratamendu tangentziala edo desparekotasunak arazo nagusi gisa ez lantzea. Bestetik, helburuen arteko koherentziarik eza dago batzuetan. Hala ere, gure ustez 2030 Agenda aukera ona da gure garapen-politikak finkatu eta zabaltzeko eta politiken koherentziaren aldeko apustuan aurrera egiteko.

---

## Gure ikuspegia

Akordio global horren ikuspegi propioa zehazteko, 1/2007 Legean jasotzen den giza garapen jasangarriaren paradigmari heldu diogu berriz, eta iradokiko diguten eta mobilizatuko gaituzten ezaugarri batzuk identifikatzen saiatu gara.

Giza garapen jasangarria ikuspegi unibertsal batetik ulertzen dugu, pertsona guztien bizitza eta planeta aktiboki defendatzeko konpromiso bezala, euren beharren eta interesen arabera. Hori lotuta dago 2030 Agendan jasota dagoen konpromiso batekin, "inor atzean ez uzteko" konpromisoarekin, alegia. Eta gure indarrak justiziaren, berdintasunaren eta pobrezia desagerraraztearen alde jartzera behartzen gaitu, asimetria globalak eraldatzen laguntzeko. Ildo horretan, lortu nahi dugun garapenak honako ezaugarri hauek ditu:

**Bizitza ardatz izatea.** Jasangarritasunaren dimentsio anitzeko ikuskera batetik abiatuta (jasangarritasun ekologikoa, ekonomikoa, soziala eta humanoa), pertsonen eta herrien ongizateak izan behar du ardatza, aniztasunean eta naturarekiko loturetan oinarrituta. Elkarrekin bizitzeko eta politika eta ekonomia produzitu, baliatu, kontsumitu eta antolatzeako modu berriak sustatu behar ditugu, pertsona eta herri guztien eta egungo eta etorkizuneko belaunaldien zerbitzura egon daitezen.

**Giza eskubideen aldeko apustu irmoa egitea.** Giza duintasuna lortzeko, eskubide indibidual eta kolektibo guztiak bermatu behar dira. Desparekotasunak ugaltzeagatik eta diskriminazio modu asko gurutzatzeagatik bereizten den mundu honetan, giza eskubideen eraldaketa-ahalmena hedatzea funtsezkoa da, hesi horiek gainditzeko eta pertsonen eta herrien askatasunak areagotzeko.

**Feminismoen eta genero-ekitatearen alde egitea.** Genero-justiziaren alde egiteak emakumeen eta gizonen arteko botere-harremanak eraldatzea, benetako berdintasunaren alde lan egitea eta emakumeek eremu guztietan jasaten dituzten askotariko diskriminazioak gainditzeko esan nahi du, generoa lekuaren, gorputzaren eta testuinguruaren arabera era desberdinean bizi daitekeela ahaztu gabe. Apustu horrek, gainera, ikuspegia zabaltzera eta sexu-aniztasuna eta genero-aniztasuna kontuan hartzera bultzatzen gaitu.

**Gure bizitza baldintzatzen duten erabakien protagonistak izatea.** Parte hartzean oinarrituta egongo diren eta agintaritzak legitimo eta eraginkorrak osatzeko ahalmena izango duten gizarte sendo eta demokratikoak lortzeko bidean aurrera egiteko, funtsezkoa da parte hartzea sustatzea, erabakiak modu deszentralizatuan hartzea, pertsonen eta kolektiboen gaitasun sozial eta politikoak sendotzea eta herritar kritiko eta konprometituak prestatzea. Horretarako, tokiko, Estatuko eta nazioarteko eremuak kontuan hartuko dituen gobernantzaren maila anitzeko ikuspegi bat aplikatuko da.

**Bakearen eraikuntza eta bizikidetzak sustatzea.** Gatazka armatuak, beste indarkeria mota batzuk eta, oro har, gizarte-gatazkak arazo estrukturalen ondorioz sortu dira (bazterkeriaren ondorioz, adibidez). Egoera horiek eraldatzeko, gizarte-eskubideak berreskuratu behar dira eta gatazkak bide baketsuen bidez konpondu behar dira; horretarako, elkarriketa, bizikidetzak eta adiskidetzak bultzatu behar dira. Zeregin horretan, funtsezkoa da bakearen eta giza eskubideen errespetuaren kultura sortzea, eta hezkuntza da horretarako gako bat.

## 2. Lankidetzaren politikaren helburuak

Xedea	2018-2021 aldirako GLEAREN lankidetzaren politikaren eginkizuna giza garapen jasangarria sustatzea eta pobrezia eta despaketotasunen aurka jardutea da. Horretarako, Hegoaldeko eta Iparraldeko askotariko agenteen estrategiak bultzatuko ditugu, eta koordinazioa, koherentzia eta elkarren arteko ezagutza eta ikaskuntza azpimarratuko ditugu. Gainera, garrantzi berezia emango diegu genero-ekitateari, jasangarritasun ekologikoari, eskubideen ikuspegiari, gaitasunen sendotzeari, parte hartzeari, antolamenduari eta toki-global loturari.
Ikuspegia	Politika hori mundu bidezkoago eta baketsuago bat eraikitzea bideratuta dago. Mundu horretan, pertsonen eta herrien ongizatea eta eskubideak izango dira erabakiak hartzeko prozesuen ardatz, aniztasunean, ekitatean eta naturarekiko loturan oinarrituta, eta pertsonen eta kolektiboek, tokiko eremuan, eremu globalarekin lotuta eta elkartasun-loturetatik abiatuta, aktiboki hartuko dute parte guztion ongiaren eraikuntzan.
Printzipioak	Hori guztia bat dator Garapenerako Lankidetzari buruzko otsailaren 22ko 1/2007 Legearen 3. artikuluan ezarritako printzipio orientatzaileekin.
<p data-bbox="236 1088 384 1122"><b>Helburuak</b></p> <p data-bbox="368 1267 499 1301"><b>1. helburua</b></p> <p data-bbox="368 1402 499 1435"><b>2. helburua</b></p> <p data-bbox="368 1469 499 1503"><b>3. helburua</b></p>	<p data-bbox="531 1088 1348 1245">Esparru horretan, 2018-2021 aldiran egingo dugun lanak hiru helburu izango ditu: lehena, gure politikaren xede diren pertsona eta kolektiboetara bideratuta egongo da; bigarrena, gure ingurunean elkartasunarekiko konpromisoa handiagotzea zuzenduko da; eta hirugarrenak, gure eginkizuna gauzatzeko beharrezkoak diren prozeduren hobekuntza izango du ardatz.</p> <p data-bbox="531 1267 1348 1379">Pertsonen eta kolektiboek (eta, bereziki, sistematikoki baztertzeko dituztenen) gaitasunak sendotzea eta haien sustatutako estrategietan laguntzea, giza garapen jasangarria lortzeko eta giza eskubideak bete-betean baliatzeko bidean aurrera egin dezaten.</p> <p data-bbox="531 1402 1348 1458">Lankidetzaren politikaren gizarte-oinarria zabaltea eta Euskadiko pertsona, entitate eta erakundeek elkartasuna eta inplikazioa sustatzea.</p> <p data-bbox="531 1469 1348 1559">Gure jardunbideak eta ikuspegiak berrikuntza eta ikaskuntzaren bidetik eraldatzea, garapenaren arazoei era egokitu, integral, estrategiko eta koordinatuagoan erantzuteko.</p>

Plan honek toki-global ikuspegiaren alde egiten duen arren, eta planaren asmoetako bat Iparraldea-Hegoaldea eta lankidetzaren/ekintza humanitarioa-hezkuntza dikotomiak gainditzeko bidean aurrera egitea bada ere, irakurketa eta ulermena errazteko, testuan lankidetzaren aipatzen dugunean hiru lankidetzaren motez ariko gara: garapena, ekintza humanitarioa eta gizarte-eraldaketarako hezkuntza. Eta horren mugaren jakitun izanik ere, Iparralde eta Hegoalde terminoak erabili ditugu lurraldeak aipatzeko.

---

### 3. Ikuspegiak

	<p>Responder a los retos que nos plantea el contexto internacional, así como desplegar el potencial transformador de la cooperación impulsada por el Gobierno Vasco requieren tanto afianzar y profundizar en ciertas formas de hacer y principios de la cooperación vasca, como impulsar nuevas lógicas. Así, en este período queremos poner el acento en los siguientes enfoques:</p>
<b>Toki-global lotura</b>	<p>Globalizazioa, elkarren arteko mendekotasun testuingurua eta planeta osoak dituen erronkak kontuan hartuta, beharrezkoa da hurbileko errealitatean gertatzen diren eraldaketa-prozesuak eta dinamika estruktural globalak neurri handiagoan egituratu eta lotzea.</p> <p>Horretarako, konplexutasunetik eta interdependentziaz errealitatea analizatzeko gaitasunak garatu behar dira; loturak erraztu behar dira eta agenteen arteko artikulazioa posible egin behar da; eta herritartasun kritikoa eta aktiboa, arduratsua eta etikoki solidarioa sustatu behar da.</p> <p>Horretarako, ohiko Iparralde-Hegoalde binomioa eta lankidetzak/ekintza humanitarioa-hezkuntza dikotomia gainditu behar dira. Azken urte hauetan ildo horretan zertxobait aurrera egin bada ere, Gida Plan honen aldirian modu eraginkorragoan bultzatu nahi dugu ikuspegi hori.</p>
<b>Elkarrizketa estrategikoa</b>	<p>Erronka globalak eta hauen areagotzea kontuan hartuta, harremanetan jartzeko eta erronka horiei aurre egiteko modu berriak landu behar dira. Agente diferenteen arteko elkarrizketa, koordinazio eta artikulaziorako espazioak sustatu behar ditugu, gure praktikak aztertzen eta eraldatzen laguntzeko eta ikuspegi berriak sartzeko.</p> <p>Aldi honetan, askotariko agenteak eta gaitasunak era integratu eta estrategikoagoan antolatzen lagunduko diguten lan egiteko modu berriak ikertu nahi ditugu, Hegoaldeko herrialdeak eta Euskadi bera eraginpean hartzen dituzten arazo globalei era koherente eta koordinatuagoan aurre egiteko.</p>

<p><b>Erantzunkidetasuna</b></p>	<p>Lankidetzan inplikaturako agente bakarrak izan ez badira ere, euskal Garapenerako Gobernu Kanpoko Erakunde (GGKE) protagonismoa eta dinamizazio oso garrantzitsuak izan dira politika hau gauzatzeko. Testuinguru guztien errealitateaz duten ezagutza, askotariko pertsona, kolektibo, mugimendu eta erakundeekin dituzten itunak eta loturak eta beren mobilizazio-eta eragin-ahalmena direla eta, funtsezko agenteak dira lankidetz-politika abian jartzeko.</p> <p>Hala ere, erronka globalei dimentsio anitzeko ikuspegi integralago batetik aurre egiteko, beharrezkoa da askotariko agente sozialak, hezkuntza arlokoak, akademikoak, ekonomikoak eta instituzionalak erabakitasun handiagoarekin inplikatzeko, modu gehigarrian, osagarrian eta/edo GGKEekin itunduta. Agente guztiek elkartasun eskuzabalaren, elkarrekiko lankidetzaren eta harreman simetrikoen printzipioei jarraitu beharko diete.</p> <p>Horrela, beraz, bi erronka ditugu aurrean: Euskadin dauden askotariko gaitasunak eta jakintzak dinamizatu eta tokiko garapenaren eta garapen globalaren zerbitzura jartzea, eta elkartruke horizontalerako aukerak sortu eta beste lurralde batzuetako esperientzia eta jakintzekin ikastea.</p> <p>Agente erantzunkide horiek guztiak ez dute harreman bera izango GLEArekin. Plan honen aldirian, hainbat ekimenen bidez itun sendoagoak eta zorrotzagoak egingo dira hemen planteatzen diren ikuspegiak garatzeko funtsezkoak diren agenteekin (ikus jardun estrategikoko ardatzak), eta espezializazio horren aldi berean, arreta berezia eskainiko zaio GLEArekin harremanetan dauden agenteen aniztasunaren aberastasuna sendotzeari.</p> <p>Lehentasunezkoa da, halaber, lankidetz-politikak eta haiek behar duten inplikazioa errealitate izatea herritar guztientzat. Askotariko agenteak eta, oro har, herritarrak inplikatzeko, apustu irmoa egin behar da gizarte-eraldaketa-rako hezkuntzaren eta komunikazioaren alde, garapenaren arazoei toki-mailan eta maila globalean aurre egiteko erantzunkidetasunaren inguruko perzeptzioak moldatu ahal izan daitezen.</p>
<p><b>Ekimen propioa</b></p>	<p>Erronka globalen aurrean beharrezkoa den erantzunkidetasunak nazioarteko elkartasunerako ahaleginak dinamizatzen zein gure garapen-eredua bera berrikustera bultzatzen gaitu. Esparru horretan, erakunde publikoak funtsean bete dugun finantzaketa-zeregina gainditu eta protagonismo eta erantzukizun handiagoa hartu behar dugu gure gain.</p> <p>Beraz, epe honetan garapenerako politiken koherentzia eta erakunde ar-teko koordinazioa bultzatuko ditugu. Ahalegin aktiboa egin behar dugu, halaber, agente gehiago erakartzeko, parte hartzea eta artikulazioa sustatzeko, gaitasunak sendotzeko eta jakintza sortzeko. Era berean, zuzeneko diru-laguntzen bidez, aukera-leihoak arakatuko ditugu; ikuspegiaren eta praktiken berrikuntza teknologikoa sustatuko dugu; eta nahikoa laguntza jasotzen ez duten egoerei erantzun diegu.</p>

<p><b>Koherentzia eta koordinazioa</b></p>	<p>Erantzunkidetasuna, halaber, Euskadiko zein beste herrialde batzuetako garapen- eta ongizate-prozesuak bateragarri egingo dituzten politika integratibo batzuetan zehaztu behar da. Ildo horretan, ikuspegi honen dokumentu iradokitzailea da Euskal Autonomia Erkidegoko Garapenerako Politiken Koherentziarako Erreferentzia Esparrua.</p> <p>Plan honetan, hartutako konpromiso politikoak jardun estrategikoko hainbat ardatzetan zehaztu nahi ditugu. Ahalegin hori ez da Eusko Jaurlaritzaren ekintzara mugatuta egongo. Izan ere, euskal administrazioen artean ere koherentzia eta koordinazio handiagoa behar da. Planaren aldian, aurreko aldian bultzatutako koordinazio-dinamiketan sakontzen eta ekintza espezifikoak zehazten jarraituko dugu.</p>
<p><b>Herritar kritikoak</b></p>	<p>Duela urte batzuek geroztik, gizatasun urriko garapen-ereduek, gatazkek eta krisi humanitarioek Hegoaldeko herrialdeetan eragin dituzten eta eragiten dituzten ondorioetako batzuei aurre egin nahi zaie lankidetzaren bidez, hala nola pertsonen pobretzeari, desparekotasunen gorakadari, askatasunen murrizketari eta eskubideen urraketari. Errealitate horiek gero eta agerikoagoak dira gure ingurune hurbilean, herritarrentzat mota eta inplikazio desberdinak badituzte ere.</p> <p>Egiten den testuingurua edozein dela ere, gizarte-eraldaketarako hezkuntzak pentsamendu kritikoaren sorrera eragiten du, eta gizarteari, norberaren bizitzari eta inguruneari dagokienez arduraz jokatzeko duten pertsona jakitun eta ahaldunduen ekintza sustatzen du, bizi diren errealitatea eraldatu nahi duten herritar globalak osatzeko. Hori guztia, toki-eremua eremu globalarekin lotuta, maila indibidual eta kolektiboan, elkartasunaren baloreetatik eta giza eskubideen babesarekin.</p>
<p><b>Ikaskuntza</b></p>	<p>Egiteko modu berrietara jotzeko, prestakuntza-guneak, esperientzien eta jakintzen elkartrukea, jakintzaren sorkuntza, prozesuen ebaluazioa eta sistematizazioa eta agente guztien gaitasunen sendotzea bultzatu behar dira.</p> <p>Hori dela eta, gaitasunen sorkuntza jardun estrategikoko ardatz guztietara iristeko eta ebaluazioaren eta ikaskuntzaren kultura bultzatzen jarraitzeko erronkari egin nahi diogu aurre plan honetan.</p>
<p><b>Berrikuntza</b></p>	<p>Testuinguru aldakorrek eta ikuspegi berrietara egokitzeko beharrak, gure praktikak aztertzeko eta egokitzeko eta euskal kooperazioaren ahalmen eraldatzailea zabaltzeko berrikuntzak egiteko erronka planteatzen digute. Berrikuntzaren aldeko apustu honek plan dinamiko eta malgu bat eskatzen du —prozesuaren beharretara egokituko dena—, baita sorkuntza eta ikuspegi eta esperientzia desberdinak elkartzea ere.</p> <p>Planak ekimen pilotu batzuk ezarri ditu, haietan oinarrituta lan egiteko modu berriak probatzeko. Malgutasunak eta berrikuntzak, halaber, praktikatik abiatuta ikasteko eta zuzentzeko aukera emango digun jarraipen- eta kontrol-sistema bat behar dute.</p>

**Lankidetzaren  
deszentralizatuari  
balioa ematea**

2030 Agendaren izaera unibertsalak, integralak eta maila anitzekoak eta haren lokalizazioaren erronkak zeregin garrantzitsua ematen die estatu azpiko gobernuei. Era berean, 2017an lortutako Garapenera buruzko Europako Adostasun berriak tokiko eta eskualdeko gobernuek betetzen duten zeregina aitortu du. Testuinguru horretan, garrantzitsua da lankidetzaren deszentralizatuak betetzen duen zeregina azpimarratzea eta balio diferentziala eman dezaketen elementu bereizgarriak identifikatzeko lanean aurrera egitea.

Jarduketa estrategikoko ardatzetan ikaskuntza-ekintzak, ezagutza sortzea, truketzea eta sozializazioa gurutzatzen dira. Horiek euskal kooperazioaren esperientziari balioa ematen lagunduko diote. Zentzu horretan, euskal lankidetzaren esperientzia arrakastatsuak identifikatzeko eta sistematizatzeko erronka dugu, baita atzerrian lankidetzaren arloko euskal boluntarioen eta profesionalen presentzia eta hauen egiten jakitea kapitalizatzeko ere.

---

## 4. Zeharkako lehentasunak, sektorialak, geografikoak eta testuinguruaren arabekoak

### Zeharkako lehentasunak

Zeharkako ikuspegiak GLEAk bultzatutako lankidetzaren izaeraren elementu nagusietako bat dira. Urte hauetan, lankidetzaren azken helburua ez ezik, lankidetzaren lantzeko modua ere landu nahi izan dugu. Orain arte, honako zeharkako ikuspegi hauek bultzatu ditugu: (i) politikaren subjektu direnen toki- gaitasunen, parte hartzearen eta antolamenduaren hobekuntza; (ii) genero- ekitatea; (iii) giza eskubideen ikuspegia; eta (iv) jasagarritasun ekologikoa. Gure ustez, ikuspegi horiek bultzatzea bidezkoa da oraindik, baina aldi honi begira, bi erronka planteatzen ditugu:

1. Ikuspegi horien ulermena eta aplikazioa sakondu edo berrikustea.
2. Toki-global ikuspegia txertatzeko bidean aurrera egitea.

GLEAk bultzatzen eta laguntzen dituen ekintza guztiek ikuspegi barne hartu beharko dituzte, esku-hartze motaren arabera era desberdinean zehaztuko badira ere. Toki-global ikuspegia era progresiboan txertatuko da. Zenbait kasutan, elementu nuklearra izango da (programa-tresna berria, adibidez); beste batzuetan, zeharkakoa (gizarte-erlaketarako hezkuntza-ekimenak); eta beste batzuetan, berriz, baloratu beharreko elementu gehigarri bat.



## Lehentasun sektorialak

Ezarri izan diren lehentasun sektorialek, praktikan, ez dute eragin argirik izan politikaren norainokoan. Honako ahulezia hauek identifikatu ditugu: (I) ezarri duten sailkapen-sistemak esku-hartze mota oro hartu du kontuan, benetako lehenespenik egin gabe; (II) emakumeen ahalduntzearen kasuan izan ezik — kasu horretan gutxieneko ehuneko jakin bat ezarri baitugu—, ez dute balio izan administrazioetik jardun espezifikoak bultzatzeko, ezta erabakitasunez bultzatu ez diren sektoreak sustatzeko ere; (III) praktikan, garrantzi handiagoa eman diogu esku hartzeen integraltasunari espezifikotasun sektorialari baino; eta (IV) ez dugu haien ahalmen osoa baliatu ikaskuntzak eta jakintza sortzeko.

III. Gida Planaren ebaluazioaren gomendioek epe ertainean baloratzeko, ikasteko eta gure jardunbideak hobetzeko aukera emango duten lehentasun batzuk ezartzera bultzatzen gaituzte. Ildo horretan, eta aldi berriari begira, honako hau erabaki dugu:

1. 1/2007 Legean ezarritako aukera zabala onartzea; eta Garapenerako Laguntza Batzordearen sailkapen-kodeak erabiltzea kontuak emateko.
2. GLEAk, era proaktiboan, emakumeen ahalduntze-prozesuetan laguntzeko eta giza eskubideak defendatzen dituzten pertsonak babesteko apustua sendotzea. Apustu hori honako hauen bidez zehaztuko da: (I) funtsen erreserba espezifikoa; (II) GLEAren proposamen-ekintzak bultzatzea zuzeneko diru-laguntzen bidez; (III) lehenespena deialdietan; (IV) jakintzaren sorkuntza eta ikaskuntza; eta abar.

---

## Lehentasun geografikoak eta testuinguruaren araberakoak

Euskal herriaren elkartasunak duen historia eta tradizioa dela eta, oso lotura sendoak daude Latinoamerikarekin, Saharako herriarekin eta Palestinako herriarekin, beste lurralde batzuekiko lotura egonkorra ahaztu gabe. Aurreko planen lehenespen geografikoek ez diote erantzun herrialdeetako errealitateari edo munduko erronkei buruz egindako azterketa sakon bati, adierazitako tradizioei baizik, eta ez dira elementu diferentzial garrantzitsua izan proiektuak baloratzeko garaian, Afrikan ekimenak bultzatzera bideratutako ehunekoaren kasuan izan ezik. Dena dela, Afrikako testuinguruan ere lehenespen geografikoak ez du bideratu funtsen azken banaketa kontinentean zehar.

Eremu humanitarioan, GLEA krisi humanitarioen ondoriozko premiei erantzuten saiatu da, eremu geografikoa edozein izanik ere. Hala ere, espezializazio handiagoa lortzeko, GLEAren jarduera gatazketara eta beste indarkeria-egoera batzuetara bideratzea bultzatzen da 2018-2023 aldiko Ekintza Humanitarioko Estrategian.

Alderdi horiek kontuan hartuta eta aldi berriari begira, honako hauek aurreikusten ditugu:

1. Lehentasun geografiko bakarra ezartzea: Afrikan egin beharreko lana bultzatzea.
2. Eremu humanitarioko lehentasun gisa gatazka-testuinguruak eta beste indarkeria-egoera batzuk ezartzea.
3. Testuinguruaren araberako lehentasun estrategikoak identifikatzeko bidean aurrera egitea.
4. Asiari dagokionez, neurri positiboen beharra analizatzea eta, hala badagokio, hartzea.
5. Euskadin gizarte-eraldaketarako hezkuntza-lana bultzatzen jarraitzea.
6. Herrialde eta/edo eskualdeekin jakintza eta esperientziak elkartrukeko topaketak bultzatzen jarraitzea.
7. Toki-errealitateak eskualde-artikulazioekin eta artikulazio globalekin lotzea eta maila anitzeko prozesuak babestea.

## 5. Jardun estrategikoaren ardatzak

Garapenaren arazoaren konplexutasun eta elkarren arteko mendekotasun handiagoaren aurrean, erantzun politiko eta sozial integralagoa eta egituratuagoa behar da. Ildo horretan, Eusko Jaurlaritzak funtsezko erronka batzuei egin beharko die aurre Gida Plan honen indarraldian. Erronka horiek elkarrekin lotuta daude, eta honako alderdi hauek dituzte ardatz: 2030 Agenda inplementatzea, garapenerako politiken koherentziarako bidean aurrera egitea eta lankidetzaren politikaren ikuspegi jakin batzuk sustatzea.

Testuinguru horri erantzuten saiatuz eta, aurreko ataletan aurkeztutako helburuak, ikuspegiak eta lehen-tasunak aplikatuz, hemen estrategia-jarduketako zortzi ardatz garatzen ditugu. Ardatz horietan, egiteko modu berri horietara igarotzen laguntzen diguten jarduketak biltzen dira edo plan honen bidez babesten ditugun ikuspegiak biltzen dira. Gure ustez, ikuspegi horiek euskal lankidetzaren potentziala zabaltzen lagundu diezagukete. Ardatz horietako bostetan, gainera, GLEAk epe honetan sustatu nahi dituen zehar-kako hurbilketak, hurbilketa sektorialak, geografikoak eta testuingurukoak garatzen dira, besteak beste, ikasketak lortzeko.

Ardatzetan planteatutako ekintzek ez dute GLEAren eginkizuna agortzen. Tresna diferenteen bitartez, hainbat testuingurutan eta sektoretan prozesuak eta ekimenak babesten eta sustatzen jarraituko dugu. Urteko planetan zehatzago jasoko dira urtean egin beharreko ekintzak.

### Garapenerako politiken koherentzia

Erronka globalei ekiteko toki- eta eskualde-agintarien parte hartzeko beharrari buruzko Europa- eta nazioarte-mailako eztabaiden esparruan, Eusko Jaurlaritzak bere politika publikoak 2030 Agendaren 17 helburuekin lotzeko konpromisoa hartu du bere gain. Lankidetzaren politika bereziki aipatzen da 17. helburuan: garapen jasangarrirako munduko ituna ezartzeko bitartekoak sendotzea eta itun hori suspertzea. Helburu horrek, gai sistemikoei buruzko atalean, garapen jasangarrirako politiken koherentzia hobetzeko erronka (17.14 xedea) eta eremu publikoan, publiko-pribatuan eta gizarte zibilean agenteen esperientzia eta gaitasunak baliatuz bitartekoak mobilizatuko dituzten itun eraginkorrak sustatzeko beharra (17.17 xedea) ezartzen ditu; halaber, Iparralde-Hegoalde lankidetzaren, Hegoalde-Hegoalde lankidetzaren eta lankidetzaren trianguluarraren bidez gaitasunak sortzeko eskatzen du (17.19 xedea).

Eusko Jaurlaritzak Euskal Autonomia Erkidegoko Garapenerako Politiken Koherentziarako Erreferentzia Esparrua dauka (2016ko apirilaren 5ean onartua). Esparru horretan, honela ulertzen da garapenerako politiken koherentzia: “giza garapenaren eta jasangarritasunaren ikuspegi politika publikoen diseinuan, abiaraztean eta ebaluazioan txertatzea bidezko mailetan, eta politika horiek elkarren artean koordinatu eta osatzea”; gainera, oinarritzko erreferentzia izan behar du gobernu-ekintzarako, “barneko garapen-estragiei zein kanpoko ekintzari edo bi alderdien arteko loturari dagokienez”. Konpromiso politiko hori ageriko emaitzak izango dituzten lan-agenda zehatz eta operatiboetan jaso behar da.

Bestalde, GLEA sortzen duen eta arautzen duen ekainaren 19ko 5/2008 Legearen 3. artikuluko g) atalean adierazten da bere funtzioen artean dagoela Eusko Jaurlaritzako sailen garapenerako lankidetzarekin lotutako jardueren koherentziasustatzea, Garapenerako Lankidetzaren otsailaren 22ko 1/2007 Legeak adierazitako printzipioen eta helburuen esparruan. Halaber, XI. Legealdirako Gobernu Programak (2016-2020), GLEAri gauzatzea dagokion konpromisoen artean, 171.a ezartzen du: “Erakunde arteko garapenerako eta koordinaziorako politiken koherentzia sustatzea”.

---

Garapenerako politiken koherentziarantz aurrera egiteko erronkak Eusko Jaurlaritza osoa eraginpean hartzen badu ere, GLEAk koherentzia hori Eusko Jaurlaritzan zabaltzeko aukera dinamizatzeko zeregina hartuko du bere gain, eta honako ekintza hauen bidez gauzatuko du:

**1) Egitura garatzea**, Eusko Jaurlaritzaren barruan koherentzia bultzatzen jarraitzeko. Horretarako, beharrezkoak dira honako hauek:

- a. Koherentzia ahalbidetzen duten gobernu barruko eta erakunde arteko artikulazio-guneak identifikatzea, eta, horren bidez:
  - i. Gai espezifiko batzuei buruzko diagnostikoak partekatzea.
  - ii. Gobernuaren eremuen barruan garapenerako politiken koherentzia bultzatzeko ardura duten pertsonak sentibilizatzea.
  - iii. Ekintza espezifikoaren koordinazioa eta zehaztasuna erraztea.
  - iv. Toki-eremuan, Estatuan eta nazioartean garapenerako politiken koherentziaren arloko esperientziak lotu, kontrastatu eta elkartrukatzea.
- b. Garapenerako politiken koherentzia lortzeko bidean egindako aurrerapenaren berri emateko informazio-sistemak bateratzea.
- c. Garapenerako Lankidetzaren Euskal Kontseilua indartzea, politiken koherentziaren betetzearen jarraipena eta kontrola egiteko, urteko txosten bat landu eta eztabaidatzearen bidez.

**2) Eusko Jaurlaritzaren sailak beren jardun-eremuei lotutako lankidetzaren ekimenetan txertatzeko ekintzak sustatzea.** Plana lantzeko prozesuan, Eusko Jaurlaritzaren sail eta erakunde autonomo batzuek egindako ekintzen hasierako mapaketa bat egin dugu (ikus II. eranskina).

Planaren aldirako aurreikusi da martxan dauden ekintzei jarraitutasuna ematea, ekimen berriak bultzatzea, koordinazioan sakontzea eta gaitasunak mobilizatzeko bideak gaitzea. Ildo horretan, AUZO(LAN) KIDEAK ekimen pilotuen bidez, koordinazio- eta koherentzia-maila handiagoak lortu nahi ditugu. Gainera, hainbat gobernu-eremutako pertsonak beren jardun-eremuei lotutako lankidetzaren ekintzen garapenean duten inplikazioa aztertuko da.

**3) Politiken koherentzia bultzatzeko ekintza pilotuak sustatzea.** Ondoren aipatuko ditugun ekimenak 3, 4 eta 5 AUZO(LAN)KIDEAK ekimenetan landu dira:

- a. Giza eskubideen eta enpresen inguruko plan bat garatzea.
- b. Erosketa publikoan gizarte-klausulak eta ingurumen-klausulak zehaztu, zabaldu eta bere gain hartzea.
- c. Eusko Jaurlaritzaren nazioartekotze-planetan laguntzea.

Ekimen pilotu horiek ez dituzte agortzen beste sail batzuekin epe honetan burutu ahal izango diren jarduketaren ekintza koordinatuak; bereziki, GLEAk esparru-akordioak edo lankidetzaren hitzarmenak dituen sailekin (adibidez, lankidetzaren linguistikoa, osasuna, etab.).

**4) Erakundeen arteko artikulazio eta koordinazio handiagoa**, ekintza espezifikoko batzuetan zehaztuta, garapenerako politiken koherentzia lortzeko maila anitzeko agenda baten aplikazioan aurrera egiteko aukera emango duena. Epe honetan zehar sustatuko diren ekimen horietako batzuk honako hauek dira:

- a. Erakunde arteko programa bat abian jartzea, uraren arloan (ikus AUZO(LAN)KIDEAK 6).
- b. Euskal Lankidetzaren Publikoaren Ataria martxan jartzea, Eusko Jaurlaritzak, hiru foru aldundiek, hiru hiriburuetako udalek eta Euskal Funderoa erakundeak 2014. urteaz geroztik sustatutako lankidetzaren jarduketak biltzen dituen, kontuak ematea laguntzeko, informazioa harmonizatzeko, analisia eta ikerketa errazteko, eta erakunde arteko koordinazioa eta ebaluazio- kultura sustatzeko.
- c. Prozesuen ebaluazio bateratuak egitea, hainbat erakunderen laguntzaz.
- d. Euskal Lankidetzaren Publikoko Foroa egitea, bi urtez behin, Euskadiko lankidetzaren deszentralizatuari balioa emateko.

Halaber, Garapenerako Lankidetzaren Erakunde arteko Batzordean parte hartzen duten erakundeak, beste eragile batzuekin batera, (H)ABIAN 2030 – Gizarte-Eraldaketa Hezkuntzaren Estrategiaren Jarraipen-Batzordearen zati dira. Esparru honetan, hainbat ekintza era koordinatuan egitea ere aurreikusten da. Plana gauzatzeko epean zehar honako hauek aurreikusten ditugu:

- a. Hasierako ebaluazioa egitea, adierazleak eta euren oinarritzko leerroa garatzeko.
- b. Komunikazio-kanpaina bat egitea (ikus AUZO(LAN)KIDEAK 7).
- c. Gogoeta-guneak sortzea, (H)ABIAN 2030 abian jartzei buruz.

## Eremu estrategikoak

Erronka globalei aurre egiteko, garapenerako lankidetzaz-politikak jarduteko modu jakin batzuk aztertu behar ditu. Hala, erronka komunak bistaratzeko barne- eta kanpo-arazoak bereizteko dinamikak gainditu behar ditu, eta lurraldeetan dauden ahalmenak eta baliabideak erlazioan jarri, euren erantzun integralagoa eta koherenteagoa emate aldera. Horrek, lan egiteko modu berriak aztertzea eskatzen du, eta, beraz, esperimentazio- eta ikasketa-prozesu bat egin beharko da ezinbestez. Ikuspegi horretatik abiatuta planteatu ditugu eremu estrategikoak IV. Gida Planean.

Eremu estrategikoak askotariko agenteek giza garapen jasangarriaren erronka globaletakoren baten inguruan elkarrekin lan egiteko guneak dira, eta erronkei era koherente eta koordinatuan aurre egitea dute xede. Halaber, baterako gogoeta-prozesu bat ezartzea eta agenteek garatutako estrategietan osagarritasunak identifikatzea ere helburu dira, ezinbestekoak aipatutako xedea lortzeko.

Helburu horiek lortzeko bidean aurrera egiteko, mailakako lan-prozesu bat behar da. Prozesu horrek honako etapa hauek izango ditu:

1. **Elkartzea.** Hainbat jardun-arlotako agenteen arteko elkarrizketa eta eztabaidarako gune bat sortzea.
2. **Partekatzea.** Agente guztiak beren esparruan garatzen ari diren estrategiak elkartrukatzea, eta erakusteko zein ikasteko irekitasuna agertzea.
3. **Aztertzea.** Eremu estrategikoan planteatutako erronka era bateratuan zehaztea, eta toki-eremuaren eta eremu globalaren artean dauden loturak agerian uztea.
4. **Identifikatzea.** Eremu estrategikoaren barruan landu litezkeen ildo estrategikoak finkatzea.
5. **Lehenestea.** Garatzeko bidezkoenak eta bideragarrienak diren edo garatuz gero eragin handiena izango duten ildo estrategikoak hautatzea. Ildo horiek lantzeko helburuak eta estrategiak zehaztea.
6. **Bideragarri egitea.** Identifikatutako lehentasunei erantzutea, gaitasunak eta baliabideak kontuan hartuta. Honako ekintza hauetan zehatz daiteke hori:

6.1. Agenteen artean ahaleginak **koordinatzea**.

6.2. Baterako ekimenak **antolatzea**, horrela balio erantsia lortzen bada.

Prozesuan, etapa horiek xede progresiboak izango dira, eta IV. Gida Planaren indarraldiaren amaieran eremu estrategiko bakoitzean lortutako aurrerapen-maila ebaluatzeko aukera emango dute.

Eremu estrategikoek bideragarritasun nahikoa izateko eta helburuak lortzeko bidean aurrera egin ahal izateko, hautaketa baldintzatzen duten hainbat irizpideri jarraitu behar zaie. Honako hauek dira:

- Giza garapen jasangarriantza aurrera egiteko erronka global partekatu bat izatea, Euskadi eta beste lurralde batzuetan agerikoa dena.
- Adostasun-maila handia egotea, erronka horri aurre egiteko behar diren inguruan eta askotariko agenteen (gizarte-agenteen eta erakunde-agenteen) artean.

- Euskal gizarteak eta euskal lankidetzako agenteek erantzun egokia emateko gaitasuna eta borondatea izatea.
- Baldintza nahikoak ematea, eragileen artean erantzun hori antolatzeko modu koherente eta koordinatuan.

Agenteen artean analisi eta proposamen dibergenteak egon daitezkeela jakin arren, topaguneak eta aukera-espazioak sortzea posible dela uste dugu, jarduketara-estrategia koordinatuagoak, integralak eta egituratuagoak sustatzeko, eta planteatutako erronkari emandako erantzunean balio erantsia sortzeko. Hori aintzat harturik, eta adierazitako irizpideak kontuan hartuta, bi eremu estrategiko bultzatuko dira IV. Gida Planean:

1. Gatazken eraldaketa eta bakearen eraikuntza.
2. Eredu ekonomiko solidarioa.

Eredu horietako bakoitzaren helburuak, garatu beharreko ildoak eta inplikatu beharreko agenteak 1. eta 2. ataletan (AUZO(LAN)KIDEAK) lantzen dira.

Plan hau indarrean dagoen bitartean, eremu estrategikoen aukeraketa horrek ez du lankidetzaren agenteen lana era murriztailean zuzendu nahi, eta ez du ezartzen eremuekin lerokatu beharra GLEAK ematen dituen funtsak eskuratzeko. Aitzitik, aktore diferenteen artean lan-eredu berri batean aurrera egiteko egingarritasuna arakatzea eta testatzea planteatzen dugu, adierazitako bi gaietan eremu estrategikoak sustatuz.

Plana gauzatzeko aldia amaitzean, bi esperientzien ebaluazioa egingo da. Aterako diren ondorioak baliagarriak izango dira ereduarekin jarraitzearen eta/edo GLEAK bultzatutako lankidetzaren jardun-esparru osora hedatzearen bidez kotatzen baloratzen.

Epe laburrera, erronka nagusiak honako hauek dira:

- 1) Eremu estrategikoen funtzionamendu, kudeaketa, jarraipen eta ebaluazioaren ereduaren garatzea.
- 2) Proposatutako bi eremu estrategikoak planaren indarraldiaren lehen urte eta erdian abian jartzea.
- 3) Esperientzia Estatuan, Europan eta nazioartean sozializatzea eta baliotzatzea.
- 4) Esparru estrategikoetako esperientzia ebaluatzea.

1 puntuarekin loturik, prozesu osoan Hegoaldeko herrien eta erakundearen parte-hartzea bermatzeko erronka dugu. GGKEek Hegoaldearen gogoetak, proposamenak eta lehentasunak helaraziko badituzte ere, ahots horiek gehitzeko beste modu batzuk asmatu beharko dira.

---

## Toki-global ikuspegia

Errealitate hurbilenetan eta arruntenetan zein globaletan, giza eskubideen defentsan eta elkartasunaren esparruetan eraldaketak sortzeko, funtsezkoa da indartzea pertsona arduratsuen eta etikoki solidarioen herritartasun kritiko eta aktibo globala. Urruneko edo inguruko lekuetako beste pertsona batzuekin topaketek elkarrenganako aitortpena eta errespetua izan behar dute oinarri, ikaskuntzak sortu behar ditu, baita pertsona guztientzako eskubideak sustatzeko eta babesteko agenda eta ekintza komunak ere, inor atzean ez uzten saiatuz. Horren ondorioz Iparraldea-Hegoaldea eta lankidetzak/ekintza humanitarioa- hezkuntza dikotomiak apurtu behar dira, ez baitute laguntzen gure mundua azaltzen, eta ekintza-ahalmena mugatzen dutelako.

Hala, toki-global ikuspegia saiatzen da lan egiteko modu zatituak gaintzen, nazioarteko elkartasuneko erlazio horizontalak indartzen, beste begirada eta analisi diferentetara zabaltzen, eta bestelako testuinguru eta proposamen diferenteen arteko lotura erreala —elkarren arteko errespetua, aitortpena eta ikaskuntzak sortuko dituztenak— sustatzen.

Gainera, toki-global ikuspegia aukera ona da begirada kritiko batetik 2030 Agendaren helburuetarantz aurrera egiteko, eta horietan giza eskubideen ikuspegia txertatzeko. Ikuspegi horretatik Euskadin GIHak garatzea erraztu nahi dugu, horretarako erakundeen politikak (hiru mailetan) eta askotariko gizarte- agenteen estrategiak horien baitan jarritz.

Ikuspegi hori honako hauen bidez garatuko dugu:

- 1) **Toki-global ikuspegia sakontzearen bidez.** Ikuspegi hori sendotzen lagundu duten eta ikaskuntzak sortzeko aukera emango diguten ekimen batzuk ditugu. Lan egiteko modu itxiak gaintu nahi ditugu, eta sustatu gure ingurunean egindako ekintzak eta Hegoaldeko ekimenak lotuko dituzten tresnak, helburu berarekin. Horretarako, honako hau planteatzen dugu:
  - a. GLEAk ikuspegi hori nola ulertzen duen zehaztuko duen dokumentu bat egitea.
  - b. Toki-global ikuspegia txertatzeko garaian jardunbide egokiak identifikatzea.
  - c. Lankidetzak-agenteen artean esperientziak elkartrukatzeko eta ikasteko guneak sortzea, eta aniztasunak aberastasun gisa duen balioa azpimarratzea.
  - d. Ikuspegi horrek modalitate eta tresnetan duen isla baloratzea.
- 2) GLEAk eta beste agente batzuek toki-eremua eta eremu globala lotzen dituzten **sare eta itunetan parte har dezaten bultzatzearen bidez**, pertsona guztien eskubideak sustatu eta defendatzeko agendak eta ekintza komunak sortzeko.
- 3) Ikuspegi hori txertatzeko **GLEAren eta gainerako agenteen gaitasunak indartzearen bidez**. Ikuspegi hori txertatzeko bidean aurrera egiteko, ikuspegiari lotutako elementuei (aniztasunaren aitortpena, ikuspegi heteronormatiboekiko haustura eta abar) lotutako elementuen zein jardunbide batzuei (itunen kudeaketa, gatazken konponketa, antolatze eta harremanak ezartzeko modu berriak eta abar) lotutako elementuen inguruko gaitasunak indartzea proposatzen dugu.



	<ul style="list-style-type: none"> <li>a. Prestakuntza-premiak ezagutzea.</li> <li>b. Ikuspegi hori hobeto txertatzeko prestakuntza-plan bat diseinatzea.</li> </ul> <p>Ikuspegi hori, halaber, zuzenean lotuta dago (H)ABIAN 2030 estrategiaren eta ARAR 2017-2020 planaren bidez bultzatzen diren herritar kritiko, aktibo eta etikoki solidarioen sustapenarekin eta aurreko atalean landutako garapenerako politiken koherentziarekin.</p>
Giza eskubideak	<p>Giza eskubideen urraketak behin eta berriz gertatzen dira lurralde eta testuinguru ugarian. Aldi berean, onarpen handiko nazioarteko araudi-esparrua izanik ere, giza eskubideak zalantzan jartzen dira. Horren aurrean, funtsezkoa da giza eskubideen gauzatzea sakontasun, osotasun eta ahalmen guztiarekin bere gain hartzea eta hurbilketa partzial, asistentzialista edo etnozentristik urruntzea.</p> <p>Aldez aurreko urte anitzeko hiru plangintzek aitortzen dute giza eskubideek desparekotasunak gainditzeko duten eraldaketa-ahalmena, eta, beraz, zeharkako ikuspegi eta ildo sektorial gisa jasotzen dituzte giza eskubideak. Apustu horrek beste esanahi bat hartu du 2017tik aurrera, urte horretan Giza Eskubide, Bizikidetzeta eta Lankidetzaren Idazkaritza Nagusian sartu baitzen GLEA.</p> <p>2018-2021 aldirako proposatzen dugu: batetik, zeharkako ikuspegian sakontzen jarraitzea —giza eskubideak erreferentzia-esparrutzat hartzen ditu, bertan dauden botere-erlazioak identifikatzen ditu eta eskubideen urraketa ikusarazten du, erantzukizunak hartzearen eta eskubide guztien bermearen alde lan egiteko—; eta bestetik, giza eskubideak eta euren komunitateak, erakundeak eta sareak defendatzen dituzten pertsonak babestearen eta haiei laguntzearen aldeko apustu irmoa egitea. Horrela, beraz, honako ekintza hauek egingo ditugu datozen urteetan:</p> <ul style="list-style-type: none"> <li>1) <b>Giza eskubideen ikuspegian sakontzea.</b> Lankidetzeta-jardunetan giza eskubideetan oinarritutako ikuspegia zeharka txertatzeko prozesua progresiboa izan da. Horren zehaztapena berrikusi, neurtu eta sakontzeko eta eztabaidagai diren elementu berriak gaineratzeko xedez, honako hau planteatzen dugu: <ul style="list-style-type: none"> <li>a. Giza eskubideen ikuspegia txertatzeko garaian jardunbide egokiak identifikatzea.</li> <li>b. Lankidetzeta-agenteen eta giza eskubideen eremuko agenteen arteko ikaskuntza-guneak sortzea.</li> <li>c. Ikuspegi hori modalitate eta tresnetan zehazteko moduan berriz pentsatzea.</li> </ul> </li> <li>2) <b>Giza eskubideak defendatzen dituzten pertsonen babesean oinarritutako ekimenei lehentasuna ematea.</b> Kolektibo horrek euskal lankidetzak diharduen lurraldeetan jasaten dituen mehatxuak, kriminalizazioa, jazarpena, judizializazioa eta behartutako desplazamenduak direla eta, giza eskubideak defendatzen dituzten pertsonen eta euren komunitateen, erakundeen eta sareen babesean eta laguntzan oinarritutako ekimen eta prozesuei emango zaie lehentasuna aldi honetan. Ildo horretan, emandako funtsen % 4 gordeko dugu eremu honetan zentratutako ekimenean laguntzeko.</li> </ul>

---

**3) Giza Eskubideak defendatzen dituzten pertsonen babesaren arloko koordinazio eta ikaskuntzarako guneak sortzea.** Horretarako, beharrezkoa izango da:

- a. GLEAk lagundutako ekimenak eta prozesuak mapatzea, giza eskubideak defendatzen dituzten pertsonen babesaren arloan.
- b. Agenteen artean babesaren inguruko esperientziak elkartrukatzea.
- c. Askotariko agenteen artean ikaskuntzak eta sinergiak ahalbidetzea.

**4) GLEAren zeregina sustatzea giza eskubideak defendatzen dituzten pertsonak babesteko.** GLEAk giza eskubideak defendatzen dituzten pertsonak babesteko gero eta prozesu gehiagotan laguntzen du, eta, gainera, Biktimen eta Giza Eskubideen Zuzendaritzak zuzentzen duen Giza Eskubideen Defendatzaileak Aldi Batez Babesteko Euskal Programaren parte da. Edonola ere, kolektibo horren, bere komunitateen eta erakundeen egoera oso kritikoa da eta bidezkotzat hartzen da GLEAk babeserako dituen gaitasunak eta rola sustatzea eta horietan sakontzea:

- a. Biktimen eta Giza Eskubideen Zuzendaritzarekin egituraketa eta koordinazioa indartzea.
  - b. Dauden premiak eta babes-sistemak ezagutzea, GLEAren laguntza-ildoak bistaratzeko.
  - c. GLEAren ibilbide-orri bat ezartzea (epe labur, ertain eta luzerako ekintzekin), haren babes-gaitasunak sendotzeko.
  - d. Giza eskubideen defendatzaileen arloan Eusko Jaurlaritzaren komunikazio-protokolo bat diseinatzea —Biktimen eta Giza Eskubideen Zuzendaritzaren, Lehendakariatzako Komunikaziorako Zuzendaritzaren eta GLEAren artean—, pertsona horiek betetzen duten zereginaren balioa azpimarratzeko eta eraso- eta estigmatizazio-egoerak salatzen.
-

## Generoa

Genero-desparekotasunak gizarte osoan ageri dira, eta emakumeen aurkako askotariko indarkeriak eta haien giza eskubideen urraketak askotariko testuinguru, lurralde eta gorputzetan gertatzen dira behin eta berriz. Euskal lankidetzak, errealitate hori gainditu eta eraldatzeko konpromisoari jarraikiz, genero-ikuspegia txertatu du bere jardunean, eta haren ezaugarri bereizgarri bihurtu da.

2018-2021 aldirako egin dugun proposamena da genero eta garapen ikuspegiaren jarraitzea —ikuspegi horrek zentroan jartzen ditu emakumeen eta gizonen arteko botere-harreman asimetrikoak eta desparekotasun horiek sortzen eta erreproduzitzen dituzten egitura eta sistemen eraldaketa bultzatzen du. Horretarako, genero-zeharkakotasunari eta ekintza positibo gisa, emakumeen ahalduntzeari lotutako estrategia dual eta osagarria bultzatuko da.

Estrategia dual horren ezagutzan eta ikaskuntzan sakontzen eta sexu- aniztasunaren eta generoaren ikuspegia txertatzeko urratsak egiten saiatuko gara, genero-ikuspegiaren interpretazioa zabaltzeko.

Datozen urteetan, honako hauek bultzatuko ditugu:

- 1) **Emakumeen ahalduntzearen inguruko jakintzan sakontzea eta zeharkako ikuspegia eta sektoriala aplikatzea.** Eta horretarako ondorengo hau planteatzen dugu:
  - a. Azken urteetan GLEAren laguntzarekin egindako ekimen eta prozesuetan txertatutako generoaren zeharkako ikuspegiaren eta emakumeen ahalduntzean oinarritutako ekimenen mapaketa egitea.
  - b. Jardunbide egokiak identifikatzea, partekatze eta ikaskuntzarako guneak sortzeko.
  - c. Entitateen genero-ekitatearen aldeko planak genero- zeharkakotasuna bultzatzeko funtsezko elementutzat hartzea. Ildo horretan, genero-ekitatearen aldeko erakunde-aldaketako prozesuetan laguntzeko tresnaren aldeko apustua egiten jarraituko du GLEAk.
- 2) **Emakumeak ahalduntzeko eta erakunde feministei laguntzeko ekimenak lehenestea.** Ekintza positiboak ezarriko ditugu (kuotak):
  - a. Emandako funtsen % 20 gordeko da lehenetasunezko helburu gisa emakumeen ahalduntzea duten ekimenetarako.
  - a. Emandako funtsen % 10 gordeko da tokiko erakundea feminista den ekimenetarako. Erakunde feministak aliatu estrategikoak dira ahalduntze-prozesuak bultzatzeko, eta erakunde horien alde egitearen helburua genero-ikuspegia txertatzeko egiten diren aurrerapenetan duten protagonismoa babestea eta haien antolamendua sendotzen laguntzea da.
- 3) **Lankidetzan sexu-aniztasunaren ikuspegia eta genero-ikuspegia txertatzeko lanean aurrera egitea.** Helburua, dagoeneko beste agente batzuk egiten ari diren prozesuetatik abiatuta, honako hau da: arlo honetan prestatu, eztabaidatu eta gogoeta egiteko oinarri batzuk ezartzea eta ekintza jakin batzuek ikuspegi hori etorkizuneko plangintzetan erabakitasun handiagoarekin txertatzeko eskaintzen duten aukera baloratzea.

	<ul style="list-style-type: none"> <li>a. Arloari buruzko jakintzan sakontzea eta, horretarako, GLEAren eta beste agente batzuen gaitasunak sendotzea eta askotariko agenteen artean ikasteko guneak sortzea.</li> <li>b. Ikuspegi hori bultzatzeko analisi-dimentsioak edo ekintza zehatzak baloratzea eta, hala badagokio, tresnetan txertatzea.</li> <li>c. GLEAren zuzeneko ekintzaren bidez esperientzia pilotuak ahalbidetzea.</li> <li>d. Genero-ekitatearen aldeko antolamendu-aldaketako prozesuetan sexu-aniztasunaren eta generoaren ikuspegia erantsia bultzatzea.</li> </ul> <p><b>4) GLEAn genero-zeharkakotasunaren estrategia sendotzea</b>, Genero- Ekitatearen Aldeko I. Plana landuz eta abiaraziz. Plan horretan sartuko dira, besteak beste, genero-arkitektura definitzera, gogoeta eta ikaskuntza bultzatzera, eta genero arloan koordinazioa eta aliantzak sustatzera zuzendutako ekintzak.</p>
<p><b>Afrika</b></p>	<p>Aldez aurreko urte anitzeko plangintzetan, Afrikako lana bultzatzearen aldeko apustua egin da. III. Gida Planaren aldirian, emandako funtsen % 25 Afrikara bideratzeko xedea ezarri zen 2017. urterako. Aldi horretan goranzko bilakaera bat izan bada ere, xede hori ez da lortu. Nolanahi ere, GLEAren borondate politikoa da Afrikan lankidetzak bultzatu, sendotu eta zabaltzea.</p> <p>Hurbil badago ere, guztiz ezezaguna da Afrika. Nazioarteko mugimendu eta sare asko Afrikari lehentasuna ematen saiatzen ari dira, behar duen garrantzia emateko, harekin loturak ezartzeko eta ikuspegiak deskolonizatzeke. Gure ustez, euskal lankidetzak ere egin behar du ahalegin hori. Euskal erakundeen artean dagoen esperientziatik abiatuta, Afrikako erakunde eta entitateekin, eta Euskadin dauden kolektibo eta pertsona afrikarrekin harremanak sustatzea eta haietan sarkontzea proposatzen dugu.</p> <p>Desparekotasunak eta dimentsio anitzeko pobrezia- inguruko datu ugariak berretsi egin dute Afrikako lanaren garrantzia eta bidezkeratasuna, baita bizitzak eraldatzeko eta aldaketan eragiteko duen ahalmen handia ere. Gainera, Afrikako testuinguru aniztasuna dela eta, beharrezkoa da honako alderdi hauek lehenestea: ekintza humanitarioa —gatazka-egoerak eta gatazka ahaztuak—, lankidetzak —garapenerako ahalmen eta premia guztiak—, gizarte- eraldaketarako hezkuntza —Afrikako errealitatea ezagutzera ematea eta Afrikako agenteekin agendak ituntzea— eta agenteen sendotzea —elkartruke eta aberaste handiagoa sustatzea, kulturartekotasunari begira.</p> <p>Afrikako lana bultzatzeko ez da nahikoa kuota bat ezartzea; beharrezkoa da GLEAk jarrera proaktiboagoa izatea. Hori dela eta, honako jardun-ildo hauek ezarri ditugu 2018-2021 aldirako:</p> <ul style="list-style-type: none"> <li><b>1) Afrikaren lehenespun geografikoa</b>, emandako funtsen % 25 Afrikako ekimenetarako gordetzearen bidez.</li> <li><b>2) Afrikan oinarritutako eta Afrikako agenteekin egin beharreko ekimenak, jarduerak eta ekintzak sustatzea.</b> Eta, horretarako: <ul style="list-style-type: none"> <li>a. Afrikaren aldeko ekimenak sustatzea.</li> <li>b. Gure ingurunean Afrikako errealitateak ezagutaraztea.</li> </ul> </li> </ul>

- c. Euskadiko entitate eta eragileak Hegoaldean lankidetzaren sektorean eta sektore horretatik kanpo diharduten entitate eta eragileekin lotzea.
- d. Afrikako presentzia indartuko duten elementuak hainbat tresnatan zehaztea.

**3) Agenteak indartzeko, jakintza handiagoa izateko eta Afrikako eta Euskadiko entitateen arteko lotura handiagoa lortzeko ikaskuntza-guneak sortzea.** Horretarako, jakintza eta ikaskuntza hori ahalbidetuko duten hainbat ekintza proposatzen ditugu:

- a. Sektoreko entitateei Afrikako lankidetzaren eta lanaren inguruko oinarrizko prestakuntza lantzea.
- b. Toki-entitateentzako prestakuntza lantzea.
- c. Afrikan garrantzitsuak diren gaiei eta testuinguruei buruzko prestakuntza espezifikoa garatzea, hainbat eragileri zuzenduta.
- d. Tokiko bazkide potentzialen eta erakunde eskatzaileen arteko harremanak sustatzea.
- e. Migratzaileen elkarteekiko hurbilketa, topaketa eta ekimenak bultzatzea.

**4) GLEAren zeregina sustatzea.** Horretarako, honako hau proposatzen dugu:

- a. Errealitatearen eta agenteen jakintzan sakontzeko aukera emango diguten testuinguru eta gaiei lehentasuna ematea eta jardun arlo potentzialak identifikatzea.
- b. Afrikari buruzko prestakuntza espezifikoei eta gai edo testuinguru espezifikoei lehentasuna ematea.
- c. Erakunde homologoekiko eta toki-entitateekiko harremanak sustatzea.
- d. Entitateekin harreman handiagoak ezartzea, testuinguru jakin batzuetara egindako bisitaldi edota bidaien bidez.

8 eta 9 AUZO(LAN)KIDEAK ekimenek Afrikarekiko lotura sendotzeko apustuari erantzuten diote; halaber, arreta berezia eskainiko da Afrikako errealitatea beste ekimen batzuetan txertatzeari.

---

## Gatazkak eta beste indarkeria-egoera batzuk

Krisi humanitarioak gero eta maizago gertatzen dira, luzaroan irauten dute, eta gero eta pertsona gehiago hartzen dituzte eraginpean. Dohaintza-emaielen, agentzia humanitarioen eta erakundeen ahaleginak gorabehera, herritarren premiek laguntzek baino erritmo handiagoan egiten dute gora, eta, beraz, eremu humanitarioko esku-hartzeak beharrezkoak dira oraindik.

Gure espezifikotasunetik eta eskumenetatik abiatuta, nazioarteko sistema humanitarioan lagundu nahi dugu. Horretarako, 2018-2023 aldiko Ekintza Humanitarioko Estrategia dugu; dokumentu horrek ekintza humanitarioarekiko gure konpromisoa islatzen du, nazioarteko lankidetzaren modalitate espezifiko gisa.

Estrategia honetan gatazketan espezializatzea proposatzen dugu —gatazka sortu berrietan, luze dirautenetan edo ahaztuetan—, baita behartutako desplazamenduak eta giza eskubideen urraketa larriak eragiten ari diren beste indarkeria-egoera berri batzuetan ere. Hondamendi naturalekin alderatuta, indarkeria-testuinguruek funts pribatu gutxiago mobilizatzen dituzte.

Ekintza humanitarioaren eremuan datozen urteetarako aurreikusitako diren ekintza nagusiak honako hauek dira:

- 1) **Gatazketan eta beste indarkeria-egoera batzuetan oinarritutako ekimenei lehentasuna ematea**, eta, horretarako, emandako funtsen % 10 gordetzea.
- 2) **Erakunde humanitarioak indartzeko ikaskuntza-espazioak sortzea**, bai euskaldunak bai toki-mailakoak, biztanleei modu eraginkor batean laguntzeko. Horretarako, honako hau proposatzen dugu:
  - a. Prestakuntzako beharrak, esperientziak eta partekatze jardunbide egokiak identifikatzea.
  - b. Babestutako Esku-hartze edo prozesuetan ebaluazioak egitea.
  - c. Lekuan bertan edo Euskadin prestakuntzarako eta esperientziak eta jardunbide egokiak elkartrukatzeko guneak sortzea.
  - d. Jarraipen-bilerak eta bidaiak egitea.
- 3) **Kontuak ematea eta euskal herritarrek sentsibilizatzea**. Helburua da finantzatzen ditugun esku-hartzeen gainean informazioa hobetzea eta, kaltetutako pertsonen testigantzen bitartez, krisi humanitarioak eragiten dituzten arazoiei buruz sentsibilizatzen saiatzea. Horretarako, honako hau proposatzen dugu:
  - a. Erakunde humanitarioek egindako lanaren kontuak emateko ahalmenak hobetzea.
  - b. Testigantzak biltzeko, sentsibilizatze eta eragiteko jarduerak garatzea.
  - c. Ekimen humanitario indibidualak, elkarteak edo erakundeak bideratzeko komunikazio-produktuak sortzea.
  - d. Ekimen humanitarioko gure jarduketan kontuak ematea, kaltetutako komunitate eta pertsonen, herritarren eta beste emaielak batzuen aurrean.
- 4) **GLEAren papera eta beste agente batzuekin duen koordinazioa indartzea**, gure espezifikotasunetik eta konpetentzietatik nazioarteko

sistema humanitarioan laguntzeko. Horretarako, ezagutza sortu behar da eta elkarrizketa arina eduki beharko da gainerako aktore humanitarioekin, elkarrengandik ikasi, trukatu eta artikulatu ahal izateko. Horretarako, honako hau proposatzen dugu:

- a. GLEAko Ekintza Humanitarioko Unitatea eta lan-taldea ekintza humanitarioan trebatzea.
- b. Ekintza humanitarioari buruzko eztabaidetan parte hartzea eta GLEAren esperientziaren ekarpena egitea.
- c. Osakidetzako osasun-langileek START proiektuan — Larrialdietako Laguntzako eta Erantzuteko Talde Teknikoa—<sup>1</sup> parte hartzeko koordinazio-ekintzak egitea.
- d. Garapenerako Lankidetzaren Euskal Kontseiluaren larrialdiko laguntza humanitarioko Batzordea aktibatzeko egokitasuna analizatzea eta, hala badagokio, martxan jartzea.
- e. Koordinazio-bilerak egitea.

Garapenerako politiken koherentzia-ardatzean eta komunikazio-atalean, ardatz hau zuzenean garatzen laguntzen duten ekintzak jorratzen dira.

<sup>1</sup> Garapenerako Nazioarteko Lankidetzaren Espainiako Agentziaren (AECID) ekimen hau bigarren mailako ospitale batean oinarritzen da, edozein hondamendiren aurrean 72 ordutan instalatzeko prestatuta dagoena.

## Ezagutza eta ikaskuntza sortzea

III. Gida Planaren helburuen artean ebaluazio-kultura bat sustatzeko beharra ezarri zen. Gizarte-eraldaketarako hezkuntzako eta ekintza humanitarioko estrategiek arlo horretan sakondu dute, erronka ebaluazioaz haratago eramanez. Ezagutzaren eta ikaskuntzaren kultura sustatzeak erronka izaten jarraitzen du GLEArentzat, eta euskal lankidetzarentzat oro har. Ikasten duen eta, ezagutzan oinarrituz, euren praktikak aldatzen dituen eta eboluzionatzen duen eragilea izan nahi dugu. Egiteko beste modu batzuk esperimentatzea pentsatzen ari garen unean, bereziki garrantzitsua da aldaketa kudeatzeko prest egotea. Prozesu horretan, bereziki garrantzitsuak dira malgutasuna, egokitzea eta sormena. Eta horretarako prest egon behar dugu, eta ikaskuntzarako eta ezagutza sortzeko baldintzak garatu behar ditugu.

Erronka hori aurrera eramateko, lagundu ditugun esperientziak izan behar ditugu oinarri (non ebaluazioa eta sistematizazioa oso baliabide erabilgarriak izan daitezkeen); baina ikerketa bezalako beste baliabide batzuk aintzat hartzea ere oso garrantzitsua da.

Hona hemen aldi honetarako ditugun erronka batzuk:

- 1) **Ezagutza kudeatzeko estrategia bat diseinatzea** ondorengo ekimen hauek burutzeko: (i) datuak eta informazio kuantitatiboa eta kualitatiboa antzematea; (ii) horiek sistematizatzea; (iii) pareen artean ikaskuntza- sareak sortzea arlo zehatzetatik abiatuta; (iv) esperientzien bitartez ikaskuntzak eta ezagutza baliozkotzea; (v) ezagutza besterenganatzea, komunikatzeko eta sozializatzeko hainbat baliabide erabiliz; eta (vi) sortutako ezagutza aplikatuz, praktiken eraldaketa ahalbidetzea.
- 2) **Ebaluazio-plan bat diseinatzea** —ebaluazioa ulertuko da, ez kontuak emateko tresna moduan soilik, baizik eta gure praktiketatik ikasteko,

---

politikari buruz erabakiak hartzeko eta berritzeko baliabide gisa ere; esperientzien sistematizazioa ere barne hartuko du. Planean, besteak beste, honako elementu hauek hartu ahal izango dira kontuan: (I) finantzatutako ebaluazioetan kontuan hartu beharreko ebaluazio- irizpide komunak, informazioa sistematizatzeko eta meta analisiaegiteko; (II) aldirako ebaluazio-lehentasanak, baliabideen eta prozesuen arloetan; (III) GLEAren eta beste eragile batzuen gaitasunak indartzeko neurriak; (IV) ikaskuntzak, jardunbide egokiak eta identifikatutako erronkak sozializatzeko, hedatzeko eta aplikatzeko sistemak.

**3) Ikerketa sustatzea**, praktikatik ezagutza sortzen laguntzeko, baita gure praktikak eta babesten ditugun prozesuak aberasteko ikasketak garatzen laguntzeko ere. Horretarako:

- a. Egindako ikerketen mapaketa burutu beharko da, jardunbide egokiak identifikatzeko, eta beharrak eta gabeziak antzemateko.
- b. Eragileen gaitasunak indartu beharko dira.
- c. Unibertsitateen papera indartu beharko da, beste eragile sozial batzuekin elkarlanean.
- d. Tresna espezifikoko bat finkatzeko komenigarritasuna analizatu beharko da.
- e. Sozializaziorako eta eztabaidarako guneak sortu beharko dira.
- f. Sortutako ezagutzaren aplikazioa ahalbidetu beharko da.



## 6. Komunikazioa

Teknologia berriei esker, informazioaren balioak eta komunikatzeko aukerek oso paper garrantzitsua edo, gutxienez, beste dimentsio bat hartu duten garaia bizi dugu. Gure begiradak zabaltzen dituzten, eta elkar trukea eta elkarrengandik ikastea errazten duten milaka ahots eta errealitate ezagutzea ahalbidetzen duen mundu hiperkonektatu baten zati gara. Aniztasun aberats eta baliagarri hori eredu hegemonikoak finkatu eta kontakizun bakarrak inposatu nahi dituen sistema batekin batera bizi da, eta hari aurre egiten dio.

Testuinguru horretan, ondorengo ekintza hauetarako komunikazioa funtsezkoa dela uste dugu: (i) pertsonak eta kolektiboak sufritzen duten krisien eta desparekotasunen egiturazko kausak ulertzen aurrera egiteko; (ii) elkartasunaren jardunari balioa emateko; eta (iii) biztanleria kritikoa eta erantzunkidea sustatzeko.

III. Gida Planaren barruan komunikazioaren arloan GLEAren plangintza eta ekintza estrategikoagoa egiteko beharra identifikatu bazen ere, behar baino urrats gutxiago eman ziren. Plangintza berri honetan, GLEAn komunikazioa modu zeharkakoan erantsi dugu. Horretaz gain, GLEAk erakunde hezitzaile gisa duen papera sustatu nahi dugu, (H)ABIAN 2030 – Gizarte Eraldaketarako Hezkuntzaren Estrategian eta ARAR 2017-2020 Ekintza Planean proposatutakoan arabera.

2018-2021 aldian ondorengo ekintza hauek burutuko ditugu:

1. **GLEAren komunikazio-plan bat finkatzea.** Planak ikuspegi hezigarria zein kontuak ematekoa izan ditzan bultzatuko da, politikaz jabetzean aurrera egiteko, elkartasuna sustatzeko, eta GLEAk sustatutako eta babestutako ekintzei balioa emateko.
  - a. GLEAren komunikazio-plana diseinatzea eta abiaraztea, helburu diren eragile eta/edo entzule ezberdinak bereiziz.
  - b. GLEAren komunikazio-arkitektura definitzea.

Komunikazio arloko jarduketa-esparrua eta lan-ildoak aipatutako planean zehaztuko badira ere, plan honen indar-aldian ondorengo elementu hauen alde egingo da, gutxienez:

2. **Weba aztertzea eta sare sozialetan presentzia.**
  - a. Edukiari eta diseinuari dagokienez, GLEAren weba modu integralean birplanteatzea, baliabideak eta informazio erabilgarria, kalitatezkoa, bereizgarria eta eguneratua modu eskuragarrian aurkezteko.
  - b. Sare sozialetan GLEAren presentzia egokia ote den eta aukera ote dagoen baloratzea eta, hala badagokio, apustu hori zehaztea eta jarraipena ematea.
3. **Kontuak ematea eta gardentasuna.** Erronka da kontua ematea eta gardentasuna hobetzea gure politikaren subjektu diren herritarrekin, lankidetzako agenteekin eta jendartearekin. GLEAren kudeaketaren eta jarduketaren kontu emateko ohiko bideak eta tresnak erabiltzen jarraitzeaz eta hobetzeaz gain, epe honetan Euskal Lankidetzaren Publikoaren Ataria abian jarri eta urtero eguneratuko dugu. Hala, espazio bakar batean euskal administrazioen informazioa bilduko dugu —gardentasuna, kontuak ematea eta komunikazioko ardatz hartuta—, formatu eskuragarri eta manipulagarritan.
4. **Dibulgazioko eta sentsibilizazioko kanpaina eta ekintza espezifikoak.** Berdintasunik ez izatearen arrazoiak eta krisi-egoerak aztertuko dituzte, elkartasunaren balioak transmitituko dituzte eta lankidetzako ekintzak bistaratuko dituzte. Horien helburu izango da herritarren banakako eta taldekako jarduketa sustatzea, berdintasun ezari eta krisi-egoerei aurre egiteko.
  - a. GLEAk kanpainak burutzea, zuzenean edo beste eragile batzuekin koordinatuz.
  - b. Dibulgazioko eta sentsibilizazioko ekintza puntualak abiaraztea.
5. **Ikaskuntzak eskuratzea eta sozializatzea** hezkuntza-komunikazioko esperientzien inguruan, ebaluazioen eta eragile diferenteen arteko topaketen bitartez, eta materialak sortuz eta hedatuz.

AUZO(LAN)KIDEAK atalean, komunikazioaren aldeko apustu horri erantzuten dion ekimen pilotu espezifiko bat garatzen dugu.

---

## 7. Jarraipena eta ebaluazioa

III. Gida Planaren ebaluazioak mahai gainean jarri du politikak sustatu nahi duen biztanleriaren aldaketetan begirada jartzeko beharra. Dokumentu horrek gonbidatzen gaitu politika inplementatzeko ekintzen betekizun-mailaren neurketatik harago joan eta politika beraren jarraipen eta ebaluazioan aurrera egitera. Ildo horretan, epe honetako erronka nagusietako bat da informazioa biltzeko eta analizatzeko adierazle batzuk eraiki eta sistema dinamiko eta eraginkorra abian jartzea.

Halaber, dokumentu honetan zehar planteatu den bezala, laurteko honetan ekimen berriak jarriko dira abian; denboran zehar aztertu eta egokitu beharko dira.

Horregatik, honako hau planteatzen da:

1. Lankidetzaren **urteroko jarraipena**, plan operatiboaren eta memoriaren bitartez. Helburua da plan operatiboak eta memoriak euren artean berrelikatzea, hurrengo urteko planetan barne hartuko diren hobekuntza-proposamenak eta ikaskuntzak atera ahal izateko. Horri esker, behar izanez gero, finkatutako jarduketaren estrategikoko ardatzak eta ikuspegiak berraztertu ahal izango ditugu.
2. Hurrengo aldiari begira ikaskuntzak eskuratzeko aukera emango digun **amaierako ebaluazioa**. Aurreko aldiko ikaskuntzetako bat da ebaluazio mistoak egitea egokia dela, objektibitatea eta barne-ikaskuntza eskuratzeko uztartzeko. Aldia amaitzean, ebaluazioa kanpokoa edo mistoa izatea egokiagoa den baloratuko da.

Amaierako ebaluazio horren barne, besteak beste, AUZO(LAN)KIDETAN garatutako ekimen pilotuen ebaluazio edo sistematizazioen ondorio nagusiak sartuko dira.

3. **Analisi sistematiko horien emaitzen sozializazioa** 1/2007 Legearen arabera aurreikusitako espazioetan (Eusko Legebiltzarra eta Garapenerako Lankidetzaren Euskal Kontseilua) eta egokitzat jotzen den beste edozein esparrutan.
4. **Politikaren irismenean sakontzen** lagunduko diguten **analisi-kategoriak finkatzea** eta, kategoria horietarako, sustatutako praktiken ikaskuntzak eta informazioa lortzen utziko diguten mekanismoak eranstea. I. eranskinean, adierazleen matrizerako lehen hurbilketa atxiki da. Plana onartu ondoren, urtebeteko epean, matrize hori aztertzea —aurretik aipatutako ezagutzaren kudeaketa-estrategiaren definizioarekin eta ebaluazio planarekin batera— eta oinarritzko ildoak lantzea aurreikusitako da. Helburua matrize erabilgarri bat edukitzea da, adierazle kopuru mugatuarekin.

## 8. Baliabideak

### Aurrekontu-esparrua

GIH 17an planteatutako erronkekin, Addis Abeban eskuratutako nazioarteko konpromisoekin eta 1/2007 Legearen xedapen gehigarriarekin bat etorriz, Eusko Jaurlaritzak Euskal Autonomia Erkidegoko Aurrekontu Orokorretan esleututako guztizko gastuaren % 0,7 garapenerako lankidetzako eta nazioarteko elkartasuneko ekintzetara bideratzeko asmoa berritu du. Aurreko urteetan baino testuinguru ekonomiko baikorrago batean —zalantzak hor egon arren—, Eusko Jaurlaritzak aldi honetan GLEAren aurrekontua ez murrizteko eta, pixkanaka, urteko zuzkidurak handitzeko konpromisoa hartzen du. Gertakizunen eta ezustekoen arabera aurrekontu orokorrak prestatzeko prozesuan gerta daitezkeen aldaketak kontuan hartu gabe, aurreikusitako zenbatekoak honako hauek dira:

#### Aurrekontu-ekitaldiak

2018	2019	2020	2021
46.044.551 €	46.200.000 €	49.000.000 €	53.000.000 €

Errekuperazio ekonomikoa sendotzen den neurrian, aurretik lortutako ehunekotara itzultzeko aukera arakatuko da.

GLEAren aurrekontu espezifikoz gain, Eusko Jaurlaritzako beste sail batzuk ere burutzen ari dira garapenerako laguntza ofizial gisa zenbatu daitezkeen ekintzak. Urteko memorietan bilduko da informazio hori.

Era berean, aurretik adierazi bezala, plan honetan bere indar-aldian lortu beharreko hainbat neurri positibo finkatu dira. Tresnetan finkatutako hainbat urtetarako konpromisoen sistemaren ondorioz, ehuneko horiek ez dira ekitaldiko aurrekontuaren gainean aplikatzen, ekitaldi horretan emandako funtsen gainean baizik<sup>2</sup>.

Giza eskubideen alde diharduten pertsonen babesa	≥%4
Emakumeak ahalduntzea	≥%20
Erakunde feministak	≥%10
Afrika	≥%25
Gatazkak eta indarkeria-egoerak <sup>3</sup>	≥%9
Ekintzak Euskadin <sup>4</sup>	≥%13

2 GLEAren urteko aurrekontua honako hauek osatzen dute: (i) pertsonal- eta funtzionamendu-gastuek; (ii) hainbat urtetarako konpromisoekin aurreko ekitaldian emandako diru-laguntzen ondorengo ordainketek; eta (iii) ekitaldian emakida berritarako eskura dauden funtsak. Azken osagai horretan oinarrituta, urtearen hasieran, bana daitezkeen funtsak eraikitzen dira: emakida berri baterako funts eskuragarri aurreragoko ekitaldien konpromisoak gehitzen zaizkie, tresna bakoitza arautzen duen dekretuan ezarritakoaren arabera hainbat urtetako ordainketak bermatzeko. Emandako funtsak eman daitezkeen funts horien esleipen errealarari lotuta daude.

3 Giza Ekintzako Estrategian urtean bana daitezkeen funtsen % 10, gutxienez, hura egikaritzera bideratzeko konpromisoa hartzen badugu ere, funts horien % 5 eta 10 bitartean larrialdiei erantzuteko bideratuko dira. Larrialdi horiek ez dute zertan gatazka- eta indarkeria-testuinguruei lotuta egon behar.

4 Konpromiso hori Euskadin gauzatzen diren ekintzei lotuta dago. Ekintza horiek gizarte-erlaketak hezkuntzakoak, sektorea indartze-koak, garapenerako politiken koherentziakoak, ikerketakoak, ebaluazioakoak edo bestelakoak izan daitezke.

---

<b>Tresnak</b>	Lankidetzaren politikaren helburuak operatibo bihurtzen dira, neurri handi batean, politika horrek dituen tresnen esparruaren bitartez. Horregatik, GLEAk sustatutako lankidetzaren eguneratze-prozesua burutzeko, derrigorrez, bertan dauden tresnak —eta euren dekretu arautzaileak— berri behar dira eta diruz lagundu daitezken beste ildo batzuk arakatu, guztien artean politikaren helburuak gauzatu ahal izateko.
----------------	---

## Tresnak gainbegiratzea

III. Gida Planaren aldia tresnen esparru orokorraren azterketarekin hasi zen. Horietako bi berritu ziren —espezializazio-bekak eta genero-ekitatearen aldeko antolakuntzako aldaketa prozesuak— eta beste biren azterketa-prozesuak hasi ziren —programak eta ekintza humanitarioa.

Diruz lagundu daitezkeen ildoen azterketa hori bultzatzen duten arazoiek izaera formala, praktikoa eta estrategikoa dute: (i) laguntzen prozedurako, funtzionamenduko eta kudeaketako alderdiak egokitzea GLEAren antolakuntza-errealitatera eta aplikatzekoa den diruz lagundu daitezkeen erregimenera; (ii) esperientzian oinarrituta hobekuntzak sartzea, laguntzen kudeaketa arintzeko asmoz; eta (iii) baliabideei orientabide estrategikoagoa ematea, plan honetako, eta gizarte-eraldaketarako hezkuntza eta ekintza humanitarioko estrategietako jarduketara ardatz eta ikuspegi berriei erantzuteko.

Eguneratzeko hiru motibazio horiek garrantzi handiagoa edo txikiagoa dute tresnaren arabera. Tresna bakoitza aztertzean arlo horietan guztietan aurrera egingo den arren, aldi honetarako apustua ikuspegi estrategikoan sakontzen jarraitzea da —hirugarren motibazioa. Horrela, ondorengo helburu hauek jartzen ditugu:

1. **Toki-global ikuspegia eranstea.** Programen baliabide berriak ikuspegi hori edukiko du elementu nagusi gisa. Beste baliabide batzuetan pixkanaka eransten joango da (adibidez, gizarte-eraldaketarako hezkuntza- proiektuen baremazioan zeharkako ikuspegi gisa barne hartzea).
2. Tresnak erabiltzea plan honen **apustu estrategikoak indartzeko** (esparru estrategikoak, garapenerako politiken koherentzia, gatazkak eta bestelako indarkeria-egoerak, (H)ABIAN 2030, etab.). Dagokion diru-laguntzako dekretua kontuan hartuz, deialdietan lehentasunak edo ekintza positibo espezifikoak finkatu ahal izango dira. Esperientzia horiek hainbat elementu eskainiko dizkigute, tresnak egokitzea edo berri batzuk sortzea egokiagoa den baloratzeko.
3. **Ekintza humanitarioa gatazka-testuingurutan zentratzea.** Ekintza humanitarioko tresna berria gatazkei edo indarkeriako beste egoera batzuei lotutako krisi-arretan zentratuko da —2018-2023 aldiko Ekintza Humanitarioko Estrategian jasotako espezializazioaren aldeko apustuari jarraituz.
4. **Ezagutza sortzeko apustua egitea.** Ikasteko eta, bertan oinarrituta, gure praktikak aldatzeko eta eguneratzeko erronkak ezagutza eta ikaskuntza sortzeko ekintza sistematikoagoak garatzera behartzen gaitu. Tresnen azterketak gako hori jasoko du, dimentsio hori aztertutako tresnetan barne hartuz edo zentzu horretan berriak sortuz.

Adierazi diren gakoien bitartez, gaur egun dauden norgehiagokarako tresna guztiak 2021erako aztertuta izango ditugu —Ignacio Ellacuría saria izan ezik, beste izaera irismena duelako. Diru-laguntzako ildoen dekretuen azterketa horretaz gain, baremazio-irizpideak eta tresna bakoitzaren eskaerak (formula-riok) eguneratuko dira.

Hitzarmenen edo izendun partiden bitartez antolatzen diren eta araudi espezifiko bidez erregulatzen ez diren diru-laguntza zuzenekin lotuta, 2018-2021 aldirako haren zehazpena ondorengo hauek markatuko dute: (i) IV. Gida Plan honen ikuspegiak eta jarduketara estrategikoko ardatzek; eta (ii) lankidetzaren ekintza humanitario eta gizarte-eraldaketarako hezkuntza alorretako dokumentuetan zehaztutako lehentasunezko esku hartzeak, erantzunik jasotzen ez badute, eta Eusko Jaurlaritzaren ikuspegitik erantzuna ematea lehentasunezkoa bada.

Tresnen arabera bana daitezkeen funtsen aurrekontu-balioespena

GLEAko tresnak aztertzeko eta eguneratzeko esparruan eta IV. Gida Plan honek eskatzen duen malgutasuna kontuan hartuz, jarraian aurkezten da tresnen kategorien arabera bana daitezkeen funtsen banaketarako lehenengo hurbilketa bat. Urteko planek, ekitaldi bakoitzean indarrean dauden tresna juridikoen arabera, zehaztuko dituzte kategoria bakoitzari ezarriko zaizkion ehuneko zehatzak eta aipatu ehunekoak zedarrizteko tresnak. Plana gauzatu ahala, aurreikuspen hori aldatu ahal izango da, apustu estrategikoak bultzatzeko beharren arabera, eta tresnen berrikuspen-prozesuen edo tresna berrien sorreraren arabera.

TRESNAK (1)		
GIZARTE ERALDAKETA	GARAPENERAKO LANKIDETZA, Hegoaldeko herrialdeetara bideratua	≤65%
	TOKI-GLOBAL ikuspegiaren aldeko apustua, Iparraldea-Hegoaldea eta lankidetzaz-Hezkuntza logikak gaindituz	≤25%
	GIZARTE ERALDAKETARAKO HEZKUNTZA, Euskadin zentratua eta lotura globalekin	≤20%
KRISI HUMANITARIOEI ERANTZUNA	EKINTZA HUMANITARIOA, Hegoaldeko herrialdetan zentratua eta Iparraldeko ekintzekin	≤15%
ERAGILEAK INDARTZEA (2)	GENERO BERDINTASUNAREN ALDEKO ANTOLAKETA ALDAKETA	≤1,5%
	LANKIDE BOLUNTARIOAK	≤2%
	PRESTAKUNTZA BEKAK NAZIO BATUETAN	≤2%
	ESPEZIALIZAZIO BEKAK GLEA-N	≤0,5%
	GAITASUNAK INDARTZEA ETA ARTIKULATZEA	≤5%
SENTSIBILIZAZIOA, KOMUNIKAZIOA, IKERKETA ETA IKASKUNTZAK SORTZEA, GLEAK zuzenean sustatuak (2)	EUSKADIKO GAZTEAK LANKIDETZAN PROGRAMA	≤0,5%
	IGNACIO ELLACURÍA SARIA	≤0,1%
	GLEA-REN BEREZKO EKINTZAK	≤5%

(1) Indarrean dauden lehia bidezko tresnez gain, GLEAK ekimenak sustatu ahal izango ditu diru-laguntza zuzenen bidez, lau jarduketako ildoetan, 1/2007 Legearen aurreikuspenekin bat etorruta..

(2) Eragileak indartzeko ildoan, zein sensibilizazio, komunikazio, ikerketa eta ikaskuntzak sortzeko ekintzei dagokienez, GLEAK sustatutako hainbat ekimen bana daitezkeen funtsen bitartez finantzatu beharrean, funtzionamendu-partidatik finantzatu ahal izango dira..

Pertsonak

Gida-plan honek, GLEAren kudeaketa arruntaz gain (diru-laguntzak ematea eta kudeatzea, ekimenak babestea, kudeaketa ekonomiko-finantzarioa eta kontabilitatearena burutzea, eragileen erregistroa kudeatzea, informatikako plataformak mantentzea...), hainbat erronka estrategiko planteatzen ditu. GLEAren baliabideak eta egitura egokitu beharko dira erronka horiei behar bezala erantzuteko eta aipatutako bi funtzio horien artean behar den oreka lortzeko. Horretarako, GLEAren egoeraren oinarritzko analisia egiten ari gara. Analisi horretan oinarrituta, beharrezkotzat jotzen diren doikuntzak egiteko behar diren prozedurak hasiko ditugu.

<b>Parte hartzea eta gobernantza</b>	GLEAri dagokio plana gidatzea eta sustatzea. Hala ere, planak erlazionatze-ko beste modu batzuk sustatu nahi ditu, eta horiek, esparru estrategikoetan edo garapenerako politiken koherentzia alorrean zehazten dira, besteak beste. Hori dela eta, plan hau hedatzen Eusko Jaurlaritzara atxikitako beste entitate eta sail, sozietate eta erakunde batzuk egongo dira nahastuta neurri handiagoan edo txikiagoan. GLEAri eta bertako Zuzendaritza Kontseiluari dagokie parte-hartze horiek animatzea eta dinamizatzea.
<b>Parte hartzea</b>	Euskal lankidetzaren ezaugarrietako bat izan da politika diseinatzeko eta abiarazteko gizarte-eragileen eta, bereziki, GGKEen parte hartze altua. Zentzu horretan, parte hartzeko espazio nagusia Garapenerako Lankidetzaren Euskal Kontseilua izan da. Garapenerako Lankidetzaren Euskal Kontseilua osatzen duten eragileak bat datoz lankidetzaren politika eraikitze eta kontrolatzeko, antolatze eta parte hartzeko espazio honek eskaintzen dituen aukerak adieraztean. Horregatik, espazio hau dinamizatzeko eta ikuspegi estrategikoagoa emateko erronka dugu. Halaber, eragileen parte hartze aktiboa sustatuko da, GLEAren rol nagusia gaindituz.
<b>Sailarteko koordinazioa</b>	Garapenerako Lankidetzaren Erakunde arteko Batzordean Eusko Jaurlaritzako hainbat sailen parte hartzetik haratago, GLEA kide den sailarteko koordinazioarako beste espazio batzuk erabiltzea aurreikusten da, politiken koherentzia eta koordinazio handiagoa burutzeko.
<b>Erakunde arteko koordinazioa</b>	Garapenerako Lankidetzaren Erakunde arteko Batzordea dinamizatzeko aurreko aldirian urratsak eman diren arren, euskal administrazio publikoen arteko lankidetzaren politiken antolaketak, koordinazioak eta osagarritasunak erronka izaten jarraitzen du. Zentzu horretan, GLEAk gune hori dinamizatzeko rola betetzen jarraitzeko konpromisoa hartzen du, lidergo partekatuak beren gain hartzen joatea kaltetu gabe.
<b>Estatuko, Europako eta nazioarteko koordinazioa</b>	Estatuan, Europan eta nazioartean, balio erantsia sortuko duten eta estrategiakoak diren ekimen, foro eta koordinazio-, lankidetzaren eta ikasketa-espazioetan hartuko da parte, bai euskal lankidetzak jaso dezakeenagatik bai eman dezakeenagatik. Halaber, lankidetzaren deszentralizatuaren balio bereizgarriaren, garapenerako politiken koherentziaren eta agenteen artikulazioaren alorrean —bereziki PLATFORMAren eta Euskal Fondoaren bitartez— Euskaditik bultzatutako lan-ildoari jarraipena emango zaio, lan- agenda europarrean eragina izateko.
<b>Araudia berrikustea</b>	Toki-mailan eta maila globalean aldaketa sakonak ematen ari diren garai honetan, 1/2007 Legea berrikustea beharrezkoa iruditzen zaigu, bere egokitzapena analizatzeko eta euskal lankidetzaren errealitate berrira egokitzeko hobekuntza-aukerari buruzko gogoeta egiteko. Horregatik, 2019an edo 2020an 1/2007 Legearen ahalmenak eta mugak analizatuko ditugu.
<b>Administrazio-berrikuntza eta -hobekuntza</b>	<p>Administrazio elektronikoa ezartzeari ahalik eta modu egokienean erantzuteko eta administrazio-prozeduren sinplifikazioaren aldeko apustua egiteko helburuarekin, epe honetan ondorengo helburu hauek jarri ditugu:</p> <ol style="list-style-type: none"> <li>1. Tramitazio elektronikoko sistema sendotzea.</li> <li>2. GLEAren kudeaketa-sistema hobetzea.</li> <li>3. Laguntzen kudeaketa arinagoa ahalbidetuko duten aldaketak arakatzeko —tresnen dekretuak aztertze prozesuan.</li> </ol>

---

## 9. Auzo(lan)kideak: ekimen enblematikoak

AUZO(LAN)KIDEAK izaera ezberdineko ekimen enblematikoen multzo bat da. Ekimen horien bitartez, plan honekin sustatu nahi diren ikuspegiak indartu nahi dira, lan egiteko modu berri eta partekatuagoak sortuz, ahalmenak hobeto aprobetxatzea sustatzeko eta norberaren esperientzian oinarritutako ikaskuntzak sortzeko. Multzo-ikuspegi batetik eta hainbat eragilerekin elkarlanean, erronka zehatzei ekiten diete.

Auzo(lan)kideak-ek erreferentzia gisa legealdi honetako marka den auzolan eta *kideak* — auzolanaren aldeko lan honetako lagun, lankide eta laguntzaileak— hitzak hartzen ditu.

Halaber, hitza *auzo* —hurbiltasunari erreferentzia eginez— eta *lankideak* —elkarlanean dihardutenak— gisa analiza daiteke. Adierazpen horrek tokia ingurune global baten aldeko kooperazioarekin eta elkarlanarekin lotzen du.

Azkenik, *auzokideak* hitzak elkarren arteko mendetasuneko ikuspegia eta sentimendua indartzen ditu, baita guztiok nahi dugun garapen horretara bideratzeko eragile guztien parte hartzea behar duten jendearen parte izateko ikuspegia ere. Horizontaltasun handiagoko eta erlazio simetrikoko posizioan ere jartzen gaitu, non ezagutza desberdinak eta bi noranzko ikaskuntzaren aukera aitortzen ditugun. *Auzokideak* adierazpenak (lan) hitza inguratzen du, lan kontzeptua zabaltzeko beharra gogoratuz. Lan horren barruan hartuko dira lan produktiboa, ugalketakoa eta komunitarioa, bakoitzari balio eta garrantzi bera emanez.

Ondoren aurkeztuko ditugun hamar AUZO(LAN)KIDEAK ekimenei izaera eta garapen-egoera desberdinei erantzuten diete. Aurreneko biek epe honetan sustatu nahi ditugun bi esparru estrategiko pilotuak zehazten dituzte. Eremu estrategikoei GLEAK sustatu nahi duen agente desberdinen artean lan egiteko beste modu bati erantzuten diote. Horregatik, lidergoa (★ rekin adierazita) GLEAK bere gain hartzen du, eta lotu daitezkeen agenteek aukera zabala eskaintzen dute.

Ondorengo hiruek esperientzia zehatzak proposatzen dituzte Eusko Jaurlaritzaren barruan politiken koherentzian aurrera egiteko. Aurrerapen-maila diferenteak dituzte. Lidergoa gai horretan eskuduntza duen sailak bere gain hartzen du, beste sail batzuekin elkarlanean. Aurrerago, beste agente batzuei zabaltzeko aukera aurreikusten da.

Seigarrenak eta zazpigarrenak erakunde arteko koordinazioan laguntzen dute. AUZO(LAN)KIDEAK ELKARREKINEK erakunde arteko programa bat koordinatzeko eta identifikatzeko alde aurreko lan- ibilbide bat dauka, eta lidergoa Euskal Fondoaren esku utzi da. AUZO(LAN)KIDEAK KOMUNIKAZIOAN (H)ABIAN 2030en jarraipen-taldearen esparruan sortzen da eta lidergoa GLEAK hartzen du.

Azken hiruek planaren lehentasun zehatzak sustatzen dituzte eta, beste sail batzuekin, koordinazioan eta koherentzian aurrera egiteko oinarriak ezartzeko helburua dute. Lidergoa GLEAK hartuko du.

AUZO(LAN)KIDEAKen finantziazioa bertan parte hartzen duten agenteen erantzukizuna izango da, bakoitzaren ahalmenen eta aukeren arabera. Talde sustatzaileak helburuak, lan-ildoak eta aurrekontuak zehaztuko ditu. GLEaren kasuan, urteko planek AUZO(LAN)KIDEAK bakoitzerako jarduketa- eta aurrekontu-aurreikuspena zehaztuko dute.

Plan honen aldia amaitzean, esperientzia horiek ebaluatu egin beharko dira. Analisi horiek, ebaluazio- eta sistematizazio-multzo zabalago batekin batera, baliogarriak izango dira sustatutako ikuspegi berrien egokitasuna baloratzeko, eta metodologiak eta lan egiteko modu koordinatuenak eta koherenteenak euskal lankidetzaren jarduketa-esparru osora egituratuta zabaltzeko aukera eztabaidatzeko.



## 1. AUZO(LAN)KIDEAK BAKEAN: gatazken eraldaketa eta bakearen eraikuntza

Planetan zehar gatazka suntsizaile ugari daudenez, bakea eraikitzea ezinbesteko erronka globala da giza garapen jasangarrirako, GIH 16an berariaz adierazten den bezala. Erronka horretan, emakumeek paper protagonista eduki behar dute gainera. Lehentasun hori nazioartean bermatuta dago, besteak beste, Nazio Batuen Segurtasun Kontseiluaren 1325 Ebazpenaren (2000) bitartez.

Euskadin indarkeria-garai traumatikoa bizi izan dugu. Aldi berean, lotura sendoak ditugu antzeko unea bizitzen ari diren herrialdeekin, aurretiko fase batean daudenekin —oraindik aktibo dauden borroka armatuekin— edo ondorengo batean daudenekin —gatazka armatua amaitu zenetik jada hainbat hamarkada igarota.

Horrek guztiak, gatazken eraldaketaren eta bakearen eraikuntzaren erronka globalaren inguruan, gogoetarako, ikasketarako eta ekintza bateraturako gune bat dinamizatzeko aukera-testuinguru bat suposatzen du. GLEA Giza Eskubide, Bizikidetzeta eta Lankidetzaren Idazkaritza Nagusian kokatuta egotea, eta Eusko Jaurlaritzaren Bizikidetzeta eta Giza Eskubideen Plana 2017-2020 existitzea, gainera, erronka horri aurre egiteko oso faktore aproposak dira.

### Esparru estrategikoaren helburuak

1. Eragile diferenteen arteko elkarriketarako gunea sortzea, bakearen eraikuntzarekin lotutakoak, ikuspegiak, estrategiak eta esperientziak elkarbanatzeko.
2. Bakea eraikitzeke prozesuei modu integralagoan ekitea.

Adierazitako helburuak lortzeko, esparru estrategikoek ondorengo **lan-ildo** hauek garatu ahal izango dituzte:

- Egia, justizia, erreparazioa eta errepikatuko ez denaren bermeak eskuratzeko estrategiak.
- Gatazken eraldaketan ikuspegi feminista eranstea
- Bakearen eta giza eskubideen kultura bat sustatzea
- Gatazken konponketa alternatiboko sistemak

Hona hemen hasiera batean **bat egin dezaketen eragile** batzuk:

- Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentzia (Eusko Jaurlaritza) ★
- Giza Eskubide, Bizikidetzeta eta Lankidetzaren Idazkaritza Nagusia (Eusko Jaurlaritza)
- Lan eta Justizia Saila (Eusko Jaurlaritza)
- Emakunde (Eusko Jaurlaritza)
- Gatazketan eta bakea eraikitzen espezializatutako erakunde eta GGKEak
- Migratzaileen / pertsona errefuxiatuen kolektiboak
- Erakunde feministak
- Unibertsitateak
- Foru-aldundiak
- Udalak

Hala ere, esparru estrategiko honek hartuko duen dinamikan eta orientazioan oinarrituta, beste eragile batzuek bat egin ahal izango dute, adibidez:

- Hezkuntza Saila (Eusko Jaurlaritza)
- Enplegu eta Gizarte Politiketako Saila (Eusko Jaurlaritza)
- Beste mota bateko gizarte-erakundeak

## 2. AUZO(LAN)KIDEAK EKONOMIAN: eredu ekonomiko solidarioa

Eredu ekonomiko nagusiak planeta osoan modu askotan izan du eragina, bai pertsonen bizitzan bai ingurunean. Egoera horren aurrean, azken hamarkadetan Ongi Bizitzea, Elikadura Burujabetza edo Ekonomia Feminista bezalako paradigmak garatu dira; euren artean lotuak daude eta garapen-eredu iraunkorragoak eta bidezkoagoak ezartzera orientatzen dira. Era berean, produkzio- eta kontsumo- modalitate iraunkorragoak bilatzea, epe laburrean ekin behar zaion erronka global nagusietako bat bezala identifikatu da. Halaxe jasotzen da GIH 12an. Eusko Jaurlaritzak helburu horretarako ekarpena egiten du, besteak beste, Ekonomia Zirkularra, Erosketa eta Kontratazio Publiko Berdea edo Nekazaritza Ekologikoa sustatzeko hainbat programa eta estrategia martxan jarriz. Halaber, Gizarte Ekonomia sustatzea ere lehentasun bat da.

Ekonomia Solidarioa oso lotuta dago aurretik aipatutakoarekin, ekonomia egiteko beste modu bat sustatzen duelako, erdian pertsonak eta planetako bizitzaren ugalketa ipiniz. Ekonomia eta merkatua ez xede moduan baizik eta helburu horiek lortzeko bitarteko gisa ulertzea suposatzen du. Ekonomia Solidarioa, bere alderdi eta izen diferentekin, mugimendu global, zabal eta desberdin bezala osatzen ari da, toki-, estatu- eta nazioarte-mailetan islatuz, baita Euskadin ere.

### Esparru estrategikoaren helburuak

1. Aktore diferenteen arteko elkarrizketarako espazioa sortzea, ekonomia solidarioko ekimenen sustapenarekin lotutakoak, gogoetak eta estrategiak partekatzeko.
2. Ekonomia solidarioa bultzatzea, bertako eragileen arteko artikulazio eta osagarritasun handiagoarekin.

Adierazitako helburuak lortzeko, esparru estrategikoen ondorengo **lan-ildo** hauek garatu ahal izango dituzte:

- Ekimen ekonomiko solidarioak sustatzeko estrategiak (ekintzailatza, komertzializazioa, finantza etikoak...)
- Zaintzen Ekonomia Ekonomia Solidarioan integratzea
- Kontsumo kritikoa eta arduratsua

Hona hemen hasiera batean **bat egin dezaketen eragile batzuk**:

- Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentzia (Eusko Jaurlaritza) ★
- Lan eta Justizia Saila (Eusko Jaurlaritza)
- Emakunde (Eusko Jaurlaritza)
- Ekonomia solidarioan eta/edo bidezko merkataritzan espezializatutako GGKEak.
- Ekonomia solidarioko sareak eta erakundeak
- Udalak eta garapen agentziak
- Institutuak eta unibertsitate-zentroak
- Erakunde feministak

Hala ere, esparru estrategiko honek hartuko duen dinamikan eta orientazioan oinarrituta, beste eragile batzuek bat egin ahal izango dute, adibidez:

- Ingurumen, Lurralde Plangintza eta Etxebizitza Saila (Eusko Jaurlaritza)
- Ekonomiaren Garapen eta Azpiegitura Saila (Eusko Jaurlaritza)
- Enpleguko eta Gizarte Politiketako Saila (Eusko Jaurlaritza)
- Turismo, Merkataritza eta Kontsumo Saila (Eusko Jaurlaritza)
- Gizarte-ekonomiako sareak eta enpresak
- Kontsumo arduratsuko tokiko sareak eta kontsumoko kooperatibak
- Sindikatuak

### 3. AUZO(LAN)KIDEAK GIZA ESKUBIDEEN ALDE: enpresak eta giza eskubideak

Azken urteetan nazioartean hainbat ekimen eta arau garatu dira, enpresa-agenteen eta giza garapen iraunkorraren artean uztartze handiagoa biltzeko, beti ere giza eskubideen ikuspegitik. Besteak beste, Global Compact edo Dohaintza On Humanitarioa bezalako Nazio Batuen ekimenak aipatu behar dira. 2011ko ekainean, Enpresei eta Giza Eskubideei buruzko Nazio Batuen printzipio gidariak hartu ziren eta Enpresen eta Giza Eskubideen Foroa —urtero Genevan biltzen da— sortu zen. Une horretatik aurrera, mugimendu handi bat hauteman daiteke. Horren bitartez, eskualde- zein estatu- mailan, araudi, ekintza eta plan ugari egin dira. Testuinguru horretan, Britainia Handiko, Suediako, Danimarkako edo Espainiako Enpresei eta Giza Eskubideei buruzko ekintza-planak azpimarratu behar dira. Herrialde horiek, 2017ko uztailaz geroztik, euren Ekintza Plan Nazionala dute. Baina Europar Batasunetik kanpo ere mota honetako Planak egiten hasi dira Txile edo Indonesia bezalako herrialdeak.

Esparru horretan, Eusko Jaurlaritzak Erantzukizun Sozial Korporatiboaren arloan lan egin du eta Enpresei eta Giza Eskubideei buruzko ikerketako, prestakuntzako eta sentsibilizazioko ekimenetan parte hartu duen arren, gaia ez da zuzenean jorratu laneko plan espezifiko batean oinarrituta.

Enpresak Nazioartekotzeko Plana 2017-2020k, bere erreferentzia-esparruaren barruan, garapenerako politiken koherentzia eta bakearen ekonomia biltzen ditu, eta giza eskubideen eta enpresen gaian enpresa nazioartekotzeko beharrezko elementu gisa aurrera egiteko beharra adierazten du.

#### Helburua

Enpresen eta giza eskubideen arloan Euskadiko esparru arauemailea, programatikoa eta operatiboa nazioarteko eta Europako aurrerapenekin lerrokatzea.

#### Jarduteko ildoak:

- Enpresei eta giza eskubideei buruzko Eusko Jaurlaritzaren jarduketa-plan bat lantzea.
- Jarduketa-plana abian jartzea.

#### Hona hemen hasiera batean **bat egin dezaketen eragile batzuk**:

- Biktimen eta Giza Eskubideen Zuzendaritza — Giza Eskubide, Bizikidetzeta eta Lankidetzaren Idazkaritza Nagusia (Eusko Jaurlaritza) ★
- Ekonomiaren Garapen eta Azpiegitura Saila (Eusko Jaurlaritza)
- Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentzia (Eusko Jaurlaritza)

Hala ere, ekimen adierazgarri honek hartuko dituen dinamikan eta orientabidean oinarrituz, beste eragile batzuk deitu ahal izango dira, adibidez:

- Kanpo Harremanetarako Idazkaritza Nagusia (Eusko Jaurlaritza)
- Emakunde (Eusko Jaurlaritza)
- Giza eskubideetan edo enpresen eta garapenaren arteko loturaren azterketan espezializatutako erakundeak eta GGKEak
- Unibertsitateak
- Enpresa-elkarteak
- Gizarte-ekonomiako eta ekonomia solidarioko sareak, erakundeak eta enpresak

---

#### 4. AUZO(LAN)KIDEAK EROSTERAKOAN: erosketa publiko arduratsua

GIH 12ren helburu da kontsumo eta produkzio iraunkorreko modalitateak bermatzea. Ildo horretan, Eusko Jaurlaritzak dagoeneko bide bat egina dauka. 2008ko apirilaren 29ko Gobernu Kontseiluak “Autonomia Erkidegoko Administrazioaren eta bere sektore publikoaren kontratazioan irizpide sozialak, ingurumenekoak eta bestelako politika publikoak” eranstea erabaki zuen. Akordio horretan jada finkatzen ziren kontratazio arduratsu bat egitean kontuan har litezkeen ildoak. Hala, adibidez, ingurumena eta aldagai ekologikoak errespetatzen zituen kontratu-xedearen definizioa finkatzen zen, eta kontratazio-organismoek kontratatze beharra zuten produktuen eta zerbitzuen ingurumen-balioa kontuan hartuko zutelaren adierazten zen. Era berean, gizarte eta laneko segurtasuna eta osasuna errespetatuko lukeen kontratu-xedearen definizioa finkatzen zuen, eta kontratatze zerbitzuen eta produktuen balio soziala eta segurtasuna gehitzea kontuan hartzen zuen.

Bide horretan XI. Legealdirako Gobernu Programak ondorengo helburuak izango dituzten ekimenak finkatzen ditu: (I) kontratazio publikoko prozesuetara klausula espezifikoak eranstea, gizarte- klausulak eta ingurumeneko irizpideak eransteko euskal araudian xedatutakoa kontuan hartuz; (II) ekonomia zirkularra babestea; (III) kontratazio publikoan gizarte-erantzukizuna zaintzea; (IV) Euskadiko Erosketa eta Kontratazio Publiko Berdearen Programa eta abar zabalduz ingurumenari dagokionez eredugarria den administrazio publiko baten konfigurazioan aurrera egitea.

Gainera, iaz 9/2017 Legea, azaroaren 8koa, Sektore Publikoaren Kontratuena, onartu zen. Horren bitartez, 2014ko otsailaren 26ko 2014/23/EB eta 2014/24/EB Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren Zuzentarauak Espainiako ordenamendu juridikora iraultzen dira. Lege hori onartzearen ondorioz, klausula horietako batzuk diseinatzea eta garatzea aurreikusi da, baita Kontratazio Urteko Plan bat prestatzea ere. Gainera, kontratazio horien jarraipena egiteko, Euskadin, Kontratazio Publikoa Euskadin-Contratación Pública en Euskadi Plataforma dugu, elementu berritzailea eta gardena.

##### Helburua

Eusko Jaurlaritzak eta bere entitate, sozietate eta erakunde autonomoek sustatutako prozesuetan kontratazio publiko arduratsua sustatzea.

##### Jardutako ildoak

- Gizarte-klausulak eransteko eta hedapen-ekintzak sustatzeko gomendioa prestatzea.
- Gizarte- eta ingurumen-klausulak eransteko eskaintzen dituen aukerei buruz sail desberdinetan kontratazioaz arduratzen diren pertsonak sentsibilizatzea.
- Eusko Jaurlaritzaren kontratu publikoetan gizarte- eta ingurumen-klausulak gehitzeko jarraipen-sistema bat sortzea.

Hona hemen hasiera batean **bat egin dezaketen eragile batzuk**:

- Ondare eta kontratazio Zuzendaritza — Ogasun eta Ekonomia Saila (Eusko Jaurlaritza)
- Ingurumen, Lurralde Plangintza eta Etxebizitza Saila (Eusko Jaurlaritza)
- IHOBE (Eusko Jaurlaritza)
- Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentzia (Eusko Jaurlaritza)
- Erosketa publiko arduratsuko sektore-politikekin lotutako Eusko Jaurlaritzako beste sail batzuk eta haren entitate, sozietate eta erakunde autonomoak.

Hala ere, ekimen adierazgarri honek hartuko dituen dinamikan eta orientabidean oinarrituz, beste eragile batzuk deitu ahal izango dira, adibidez:

- Ekonomia solidarioari lotuta lana egiten duten erakundeak eta GGKEak
- Institutuak eta unibertsitate-zentroak
- Foru aldundiak, udalak eta EUDEL
- Erosketa publiko arduratsuko sektore-politikekin lotutako agenteak

## 5. AUZO(LAN)KIDEAK MUNDUAN

Basque Country 2020 Estrategiaren eguneratzea XI. Legealdiko 2016-2020 Gobernu Programan definitutako Eusko Jaurlaritzaren nazioartekotzeko ikuspegi eta konpromiso batzuetan oinarritzen da. Nazioartekotze-bektore komunek barne hartzen dute 2030 Agendan definitutako erronka globalak konpontzen laguntzeko konpromisoa.

Basque Country 2020 Estrategiaren eguneratzea abian jartzeak nazioartekotzean sakontzea dakar, ekintza egituratu eta sistematiko gisa. Halaber, kanpoan bereziki aktibo diren zenbait esparru tematikotan sektore-planak definituz eta onartuz zabaldu daiteke.

Plan bakoitzak esparru edo eremu espezifiko bati erantzuten dion arren, Kanpo Harremanetako 2018-2020 Planak, Enpresak Nazioartekotzeko 2017-2020 Planak eta 2018-2021 aldirako Garapenerako Lankidetzaren IV. Gida Plan honek bat egiten dute 2030 Agenda eta GIH, zein Euskal Autonomia Erkidegoko Garapenerako Politiken Koherentziarako Erreferentzia Esparrua laguntzeko asmoan.

Zentzu horretan, Eusko Jaurlaritzak aurretik aipatutako planez arduratzen diren erakundeen arteko lankidetzaren sendotzeko erronka dauka, baita nazioarteko agenda aktiboa duten Eusko Jaurlaritzako beste sail batzuekin ere. Ekimen horren bitartez, elkar ezagutzeko eta trukatzeko espazio bat sendotu nahi da.

### Helburua

Nazioartekotze-esparruan egiten den lana koordinatzen laguntzea, Kanpo Harremanetarako Idazkaritza Nagusiaren lidergoan, eta Kanpo Harremanetarako Sailarteko Batzordearen, Kanpo Harremanetarako Nazioarteko Batzordearen eta Kanpo Harremanetarako Aholkularitza Kontseiluaren inguruan mugitzen den haren gobernantza-ereduaren esparruan, bereziki Eusko Jaurlaritzak sustatutako lankidetzak diharduen herrialde ohikoetan.

### Jarduteko ildoak

- Kanpo Harremanetarako Sailarteko Batzordearen bitartez eta Basque Country 2020 Estrategiaren jarduketan deskargurako aplikazio informatikoaren bitartez, nazioartekotzearen eremuan politiken koherentziaren arloko koordinazioa bideratzea.
- Sailei laguntzea, lankidetzaren politika zabaltzearekin lotutako alderdietan, GIHen eskura dauden nazioartekotzeko ekintzen ekarpena identifikatzen eta analizatzen, baita gure ikuspegiari eta egiteko moduei helburu horiek planteatzen dizkieten erronketan ere.
- Hiru herrialdeetan jarduketa koordinatuagoak identifikatzea.

Hona hemen hasiera batean **bat egin dezaketen / deia jaso dezaketen eragile batzuk**:

- Kanpo Harremanetarako Idazkaritza Nagusia (Eusko Jaurlaritza) ★
- Ekonomiaren Garapen eta Azpiegitura Saila (Eusko Jaurlaritza)
- Euskadiko Nazioartekotze Agentzia / Basque Trade and Investment (Eusko Jaurlaritza)
- Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentzia (Eusko Jaurlaritza)

Hala ere, ekimen adierazgarri honek hartuko dituen dinamikan eta orientabidean oinarrituz, beste eragile batzuk atxiki ahal izango dira, adibidez:

- Turismo, Merkataritza eta Kontsumo Saila (Eusko Jaurlaritza)
- Kultura eta Hizkuntza Politika Saila (Eusko Jaurlaritza)
- Gai honetan interesatuta dauden erakundeak eta GGKEak
- Hainbat jatorritako enpresa-elkarte edo -sareak

---

## 6. AUZO(LAN)KIDEAK ELKARREKIN: uraren arloko erakunde arteko programa

Gure lankidetzaz-eredua aztertzeko prozesuan, III. Gida Planaren esparruan, erakunde arteko koordinazioko eta ekintza bateratuko ekimen pilotu bat bilatzen hasi ziren. Uraren eta saneamenduaren arloari lehentasuna eman zitzaion, ondorengo hauetan oinarritua: (i) euskal lankidetzan metatutako esperientzian, batez ere udal-erakundeek sustatutakoan, uraren eta saneamenduaren arloetan, (ii) Euskadiko ur operadoreen eta Latinoamerikako uraren erakunde arteko lankidetzaz tekniko esperientzien existentzian, eta (iii) URA Uraren Euskal Agentziaren eta GLEAren arteko akordio baten existentzian, uraren kanonaren alderdi soziala kudeatzeko.

Apustu horren ondorioz, Euskadiren eta Erdialdeko Amerikaren artean (El Salvador eta Costa Rica) erakunde arteko programa bat definitu da uraren eta saneamenduaren arloan. Bertan, lankidetzazko euskal erakunde publikoek, eta Euskadiko eta Erdialdeko Amerikako uraren erakundeek hartzen dute parte. Neurri batean berriak diren hainbat elementu biltzen ditu ekimenak: (I) Euskadiko lankidetzaz-eragileen eta uraren eragileen erakunde arteko koordinazioa, (II) Euskadi-El Salvador-Costa Rica arteko lankidetzaz tekniko, eta (III) El Salvador eta Costa Rica arteko Hegoaldea-Hegoaldea lankidetzaz.

Programa 2018an jarriko da martxan, eta hiru urte iraungo ditu.

### Helburua

Euskadiko hainbat eragileren artean erakunde arteko koordinazioa sustatzea lankidetzaz jarduteko beste modu batzuk arakatzeko, ekimen pilotuen bidez —kasu honetan, uraren eta saneamenduaren arloetan.

### Jarduteko ildoak:

- Erdialdeko Amerika / Euskadi erakunde arteko ur- eta saneamendu-programa abian jartzea 2018an.
- Erakunde arteko koordinazioari, lankidetzaz teknikoari, lankidetzaz triangularrari eta Hegoaldea-Hegoaldea lankidetzazari dagokien ikaskuntzak eskuratzea.
- Hainbat eragilerekin ur- eta saneamendu-arloan beste artikulazio posible batzuk arakatzeko.

Hona hemen hasiera batean **bat egin dezaketen eragile batzuk**:

- Euskal Fundazioa ★
- Foru Aldundiak
- Udalak
- Aguas Municipales de Vitoria S.A. (AMVISA)
- URA – Uraren Euskal Agentzia (Eusko Jaurlaritza)
- Garapenerako Lankidetzazaren Euskal Agentzia (Eusko Jaurlaritza)
- El Salvador-eko Administración Nacional de Acueductos y Alcantarillados (ANDA)
- Instituto Costarricense de Acueductos y Alcantarillados (AyA)

Hala ere, ekimen adierazgarri honek hartuko dituen dinamikan eta orientabidean oinarrituz, beste eragile batzuk deitu ahal izango dira, adibidez:

- Beste ur-operadore batzuk
- Uran eta saneamenduan espezializatutako erakundeak eta GGKEak
- Zentro teknologikoak

## 7. AUZO(LAN)KIDEAK KOMUNIKAZIOAN

(H)ABIAN 2030 - Gizarte-Eraldaketerako Hezkuntzaren Estrategiak dei egiten die pertsona, kolektibo eta erakunde guztiei lan koordinatua eta partekatua aurrera eramateko, hezkuntza-prozesuetatik benetako eraldaketak sortu daitezen. Ildo horretan, gizarte-eraldaketerako hezkuntza errealitate bihurtzeko ekintzak eta ekarpenak egiteko erantzunkide da eragile bakoitza

Hain zuzen ere, estrategia horren esparruan jarraipen-batzorde bat sortzen da eragileen artean hainbat gogoeta- eta elkarrizketa-prozesu partekatuzko eta sortzeko, eta baterako ikaskuntza eta jarduketara posible batzuk identifikatzeko. Zentzu horretan, sustatu nahi diren lehen jarduketan artean honako hau dago, ARAR 2017-2020 Planaren 3. Ildo - Hezkuntza Erakundearen jasota dagoena: komunikazio-kanpaina bateratu bat garatzea, funtzionarioek, hasieran, eta herritarrek oro har, ondoren, hezkuntza- eta lankidetzaren politika publiko eraldatzailearen inguruan duten sentsibilitatea eta ulermena garatzeko.

Komunikazio-kanpaina hori garatuz, euskal erakunde publikoei, batez ere, eta beste hainbat erakunderi gonbita egiten zaie zubiak eraikitzea xede duen prozesu batera gehitzeko, nazioarteko lankidetzaren diskurtsoa zabaldu dadin. Egin beharrekoa: (I) lankidetzaren arlotik egiten den lanari balioa ematea eta lankidetzaren politika publikoen esparruan dagoela ezagutzera ematea; (II) gure sistemaren oinarri gisa elkartasuna eta elkarmendetasuna bistaratzea; (III) besteak beste, justizia, tolerantzia, erantzukizuna eta elkartasuna bezalako balioak transmititzea; eta (IV) gogoeta eta jarrera-aldaketa sortzea. Halaber, politiken koherentzia eta GIHetan laguntzeko aukera gisa agertzen zaigu.

### Helburua

Nazioarteko kooperazioari buruzko aurreiritziak desmuntatzea, eta horri buruz enpatia eta aldeko diskurtsoak sortzea.

### Jarduteko ildoak:

- Kanpaina prestatzea eta hedatzea.
- Hainbat eragilerekin hezkuntza-komunikazioaren arloan beste antolaketa posible batzuk arakatzea.

Hona hemen hasiera batean **bat egin dezaketen / deia jaso dezaketen eragile batzuk**:

- Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentzia (Eusko Jaurlaritza) ★
- Hiru hiriburu-udalak
- Hiru lurralde-erakundeak
- Euskal Fundazioa
- (H)ABIAN 2030en jarraipen-batzordearen parte hartzen duten gizarte-eragileak

Hala ere, ekimen adierazgarri honek hartuko dituen dinamikan eta orientabidean oinarrituz, beste eragile batzuk atxiki ahal izango dira, adibidez:

- Lankidetzaren arloko erakundeak eta nazioarteko elkartasun-mugimenduak
- Beste udal batzuk

---

## 8. AUZO(LAN)KIDEAK HEZKUNTZAN

Hezkuntza oinarrizko giza eskubide bat izateaz gain, beste eskubide askoren garapena ahalbidetzen du. Hezkuntzaz zentzu zabalean hitz egiten dugu, alfabetatzeetik hasi eta bizitzan zehar jasotako hezkuntzaraino. Hezkuntza eskuragarria, irisgarria, onargarria eta moldagarria izan behar da, eta funtsezko lau oinarri izan behar ditu: ezagutzen jakitea, egiten jakitea, izaten jakitea, eta elkarrekin bizitzen jakitea.

1990eko Guztientzako Hezkuntzari buruzko Mundu-mailako Adierazpena egin zenetik pertsona guztiek oinarrizko, doako eta kalitatezko hezkuntza eskuratzea eta gozatzea Nazio Batuen esparruan nazioartean aitortutako eskaera da, 90eko hamarkadako mundu-mailako gailurretan onartu dena. Halaber, MGHetan eta GIHetan horri lotutako helburu espezifikoak ere jasotzen dira.

Azken urteetan hezkuntza eskuragarriago edukitzeko urratsa eman den arren, gaur egun, hezkuntzaren eskuragarritasunean, iraunkortasunean, berdintasunean eta kalitatean estandar baxuenak Afrikaren tesuinguruan ematen dira. Horregatik, eta plan honetan kontinente afrikarrari eman nahi zaion lehentasunagatik eta garapenerako lankidetzaren politiken koherentzia-mailan hezkuntza-esparruan aurrea egiteak duen garrantziagatik, ekimen hau proposatu da.

### Helburua

Afrikan hezkuntza-mailako lankidetzaren, eta Euskadiko hezkuntza-eragileekin trukea eta harremana sustatzea.

### Jarduteko ildoak

- Afrikako eta Euskadiko ikastegien eta hezkuntza-erakundearen arteko trukeerako ekimenak sustatzea. Bereziki lehen hezkuntza, bigarren hezkuntza eta lanbide-heziketan.
- Afrikan eta Euskadin dauden hezkuntzaren alde lan egiten duten nazioarteko sareak babestea.
- Afrikan zein Euskadin hezkuntza-esparruan lan egiten duten erakundeak harremanetan jartzea.
- Afrikarekin hezkuntza-mailako lankidetzaren ekimenen kopurua handitzea.

Hona hemen hasiera batean **bat egin dezaketen eragile batzuk**:

- Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentzia (Eusko Jaurlaritza) ★
- Hezkuntza Saila (Eusko Jaurlaritza)

Hala ere, ekimen adierazgarri honek hartuko dituen dinamikan eta orientabidean oinarrituz, beste eragile batzuk deitu ahal izango dira, adibidez:

- Hezkuntzan espezializatutako erakundeak eta GGKEak
- Ikastetxeak
- Hezkuntza-sareak



## 9. AUZO(LAN)KIDEAK TEKNOLOGIAN

Eusko Jaurlaritzak Euskadi 2020 Zientzia, Teknologia eta Berrikuntza Plana dauka. Espezializazio adimenduneko estrategia bat da (RIS3), garapen iraunkorarekin lerrokatua eta ezagutzaren sozietatearen barruan kokatua, pertsonen talentuan oinarritua, eta euren eskaera eta premia berriei eraginkortasunez erantzuteko gai dena. RIS3 metodologia jarraituz, planak 3 lehentasun estrategiko definitzen ditu: (I) fabrikazio aurreratu, (II) energia, eta (III) biozientziak-osasuna; eta 4 aukera-eremu ditu: (IV) elikadura, (V) habitat hiritarra, (VI) ekosistemak eta (VII) kultura-industriak eta sormenekoak. Eta, gainera, jarduteko zeharkako bi ardatz ditu: (a) internazionalizazioa; eta (b) berrikuntza.

Plan honen bi lehentasun estrategiko interesgarriak izan daitezke lankidetzaren aktoreekin loturik eta elkarlanean jarduteko. Lehentasun horiek honako hauek dira:

- Energia: bereziki energia berriztagarriei (eolikoa, eguzki termoelektroa eta olatuen energia), sare adimendunei, mugikortasun elektroari, energia-eraginkortasunari eta teknologia bideratzaileei (potentzia-elektronika eta energia biltegitzea) lotutako gaiak.
- Biozientziak-osasuna: giza osasunaren segmentuan biltzen dira eta, bereziki, medikuntza pertsonalizatua, osasun digitala eta gailu medikoak, gaixotasun arraroak, neurozientziak eta Big Data-rekin lotutako gaien inguruan.

Gainera, estrategian bertan, lurraldeari lotutako nitxo sortuberriak edo potentzialak daudela adierazten da. Horien artean, elikadurarekin eta ingurumeneko ekosistemekin zuzenean lotutakoak daude. Jarduera horietan, barne-eskaerara aplikatzeko maila handiko gaitasun eta ezagutza zientifikoak eta enpresa-erperientziak daude, batez ere administrazio publikoak. Gainera, erronka sozial gisa, besteak beste, honako hauek aipatzen dituzte: elikadura osasuntsua, energia segurua, garbia eta eraginkorra; klimaren, baliabideen eraginkortasunaren eta lehengaien bidezko ekintza.

### Helburua

Afrikan egokiak diren teknologia garatzeko ekimenak gauzatzea, energia, biozientziak-osasuna, elikadura eta klimaren ondorioz aldeko energien eta ekintzen arloan.

### Jarduteko ildoak:

- Afrikan zein Euskadin teknologia-esparruan lan egiten duten erakundeak harremanetan jartzea, sinergiak sortzeko.
- Afrikan teknologia egokiak garatzeko esperientzia pilotuak abian jartzea, Euskadiko erakundeen laguntzarekin.
- Emakumei babesa ematea, euren ikerketarako eta trukerako gaitasunak garatzeko Euskadiko erakundeekin harremanetan.
- Esperientzia positiboak eta jardunbide egokiak hedatzea.

Hona hemen hasiera batean **bat egin dezaketek / deia jaso dezaketek agente batzuk**:

- Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentzia (Eusko Jaurlaritza) ★
- Lehendakartzaren Idazkaritza Nagusia, Lehendakaritza (Eusko Jaurlaritza)
- Ekonomiaren Garapen eta Azpiegitura Saila (Eusko Jaurlaritza)
- Ingurumen, Lurralde Plangintza eta Etxebizitza Saila (Eusko Jaurlaritza)

Hala ere, ekimen adierazgarri honek hartuko dituen dinamikan eta orientazioan oinarrituta, beste eragile batzuek bat egin ahal izango dute, adibidez:

- Energia: EVE, Euskadiko energia-klusterra
- Ingurumena: Ihobe, Aclima
- Biozientziak: Bioef
- Elikadura: Elika, Hazi, Neiker
- Zientzia, teknologia eta berrikuntza: Innobasque, Tecnalía
- Afrikako GKEak eta erakundeak
- Afrikan lanean ari diren GGKEak eta erakundeak

---

## 10. AUZO(LAN)KIDEAK INGURUMENEAN

Garapen iraunkorreko 2030 Agendan eta honek Euskadin duen ordezkartzan —Euskadi Basque Country 2030 agenda— planteatzen zaizkigun erronken esparruan, eta lankidetzaren beraren behar bati erantzunez, ingurumen-kalitatea hobetzearekin, baliabideen kudeaketa iraunkorrarekin eta ekosistemen kontserbazioarekin lotutako estrategien garapena sustatu nahi da.

III. Gida Planearan erroka horri ekin zitzaion, bai zeharka —iraunkortasun ekologikoa— bai sektore-ikuspegitik —ingurumenaren babesa eta kontserbazioa. Urratsak eman arren, iraunkortasunaren inguruan lana sustatzeko pauso bat ematea beharrezkoa ikusten da, ingurumenaren gaian adituak diren beste eragile batzuen parte-hartzearen eta laguntzaren bitartez.

Zenbait testuinguru espezifikotan lan hori garrantzitsuagoa da klima-aldaketak bertan bizi direnengan duen eraginagatik (adibidez, bertako baliabide naturalen espoliazioa jasaten duten lurralde edo testuinguru afrikar batzuen kasuak).

Euskadin baditugu ingurumen arloan lan-esperientzia duten gizarte- eta erakunde-mailako entitateak. GLEAk beste testuinguruetako ekimenak ere babesten ditu. Bi errealitateak lotzeko, esperientziak partekatzeko, koordinazio-espazioak sortzeko eta erronka berriei elkarrekin aurre egiteko potentziala dago.

### **Helburua:**

Iraunkortasun ekologikoko zeharkako ikuspegia indartzea eta ingurumenaren babesean eta kontserbazioan zentratutako ekimenak sustatzea.

### **Jarduteko ildoak:**

- Iraunkortasun ekologikoko zeharkako ikuspegiari buruzko prestakuntza eta gogoeta sustatzea.
- Hegoaldeko herrialdeetan zein Euskadin, ingurumen-esparruan lan egiten duten erakundeak harremanetan jartzea, sinergiak sortzeko.
- Ingurumenean zentratutako ekimen/esperientzia pilotuak indartzea.
- Ebaluazioa sustatzea, eta esperientzia positiboak eta jardunbide egokiak zabaltzea.

Bereziki, testuinguru afrikar batzuen kasuak azpimarratu nahi ditugu. Hona hemen hasiera batean **bat egin dezaketen eragile batzuk**:

- Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentzia (Eusko Jaurlaritzan) ★
- Ingurumen, Lurralde Plangintza eta Etxebizitza Saila (Eusko Jaurlaritzan)
- Ihobe (Eusko Jaurlaritzan)

Hala ere, ekimen adierazgarri honek hartuko dituen dinamikan eta orientabidean oinarrituz, beste eragile batzuk deitu ahal izango dira, adibidez:

- Erakunde ekologikistak eta ingurumenari lotutakoak
- Unibertsitateak
- Gaiker-IK4
- BC3-Basque Centre for Climate Change
- Aclima

# I. Eranskina. Jarraipen eta ebaluazio matrizea

Planaren jarraipena eta ebaluazioa egiteko, adierazleak eta helburuak biltzen dituzten hainbat aginte-taula prestatu dira. Taulak hiru multzotan antolatuta daude:

- **Baliabideak:** lehen multzoa konpromiso ekonomikoei lotutako adierazleei dagokie: (I) urteko aurrekontua; (II) ekintza positiboak; eta (iii) tresna bidezko funtsen banaketa.
- **Prozesua:** bigarren blokea egikaritze-prozesuari lotuta dago. Jarduketa estrategikoko ardatz bakoitzeko ondorengo elementu hauek zehazten dira: (I) aurreikusitako jarduketa-ildoak — urteko planetan, jarduketa-ildo horietan laguntzen duten jarduera espezifikoak zehaztuko dira—; (II) egikaritzeko gutxi gorabeherako urtea; eta (III) jarduketa horiek zenbateraino betetzen diren neurtzen lagunduko diguten analisi-kategoriak edo adierazleak. Halaber, komunikazio-atalerako eta zeharkako lehentasunetarako eta lehentasun geografikoetarako, antzeko taula bat barne hartzen da; eta abiarazteko bitartekoen eta jarraipenarekin eta ebaluazioarekin lotutako jarduketan kronograma bilduko duen azken taula bat.
- **Irismena:** hirugarren multzoa lankidetzaren politika egikaritzeak dituen ondorio zuzenetan zentratzen da. Matrize honetan, planean finkatutako hiru helburuetako bakoitzerako ondorengo alderdi hauek zehazten dira: (I) hainbat ebaluazio-galdera eta adierazle; eta (ii) egiaztatze mekanismoak eta iturriak. Lehen helbururako —lankidetzaren politikaren mendeko komunitateei eta pertsonei dagozkien irismena biltzen duena—, planean konpromiso esplizitua duten gaietan edo sektoreetan irismena neurtzeko mekanismoak finkatzea proposatzen dugu epe honetan: giza eskubideak, emakumeen ahalduntzea, Afrika, gatazkak eta beste indarkeria-egoera batzuk defendatzen dituzten pertsonak babestea eta haiei laguntzea, eta herritar kritikoak sortzea. Adierazitako sektoreetan eta gaietan babesten ditugun prozesuen eta ekimenen irismena ezagutzeko hasierako esperientzia gisa planteatzen dugu ariketa hori. Esperientzia horretatik lortutako ikaskuntzek balioko digute etorkizunean politikaren irismen globala neurtzeko gaitasuna eta egokitasuna baloratzeko.

Plana onartu eta urtebeteko epean, adierazleen multzo osoa eduki beharko dugu eta oinarritzko lehen lerro bat egin beharko dugu. Horretarako, kanpoko babesa jasotzea egokia den baloratuko dugu. Halaber, Garapenerako Lankidetzaren Euskal Kontseiluaren barruan lantalde espezifiko bat sortzea proposatuko dugu, adierazleen matrizea diseinatzeko eta bere jarraipena egiteko.

## BALIABIDEAK

### Aurrekontu-esparrua

Taula honetan biltzen da planaren lau urteetan GLEAra bideratutako aurrekontuaren bilakaeraren aurreikuspena.

#### Aurrekontu-ekitaldiak

2018	2019	2020	2021
46.044.551 €	46.200.000 €	49.000.000 €	53.000.000 €

### Plana egikaritzean lortu beharreko neurri positiboak

Taula honetan biltzen dira funtsen erabilera espezifikoarekin lotuta planean hartutako konpromisoak. Ehuneko horiek —gehienek jarduketa estrategikoko ardatzen ekintza lehenetsiei erantzuten diete— ekitaldi bakoitzean emandako funtsen gainean aplikatzekoak dira<sup>5</sup>.

Ekintza lehenetsiak	Emandako funtsak
Giza eskubideen alde diharduten pertsonak babestea eta laguntzea	≥%4
Emakumeak ahalduntzea	≥%20
Erakunde feministak	≥%10
Afrika	≥%25
Gatazkak eta beste indarkeria-egoera batzuk <sup>6</sup>	≥%9
Ekintzak Euskadin <sup>7</sup>	≥%13

Ehuneko horiek lortzeko, eskura dauden tresna guztiak hartuko dira kontuan, ondorengo atal honen arabera.

### Tresnen arteko banaketa

Ondorengo taula urte bakoitzeko bana daitezkeen funtsen<sup>5</sup> gainean aplikatuko da. Burutzen ari garen tresnen azterketaren eta eguneratzearen esparruan, eta gida-plan honek eskatzen duen malgutasuna kontuan hartuta, jarraian, tresnen kategorien arabera bana daitezkeen funtsen banaketarako lehenengo hurbilketa bat aurkezten da. Hurbilketa hori plana burutzen den bitartean aztertu eta aldatu ahal izango da, apustu estrategikoak sustatzeko sortuko diren beharretan oinarrituta.

5 Urteko **aurrekontua** honako hauek osatzen dute: (I) personal- eta funtzionamendu-gastuek; (II) hainbat urtetarako konpromisoekin aurreko ekitaldian emandako diru-laguntzen ondoko ordainketek; eta (III) ekitaldian emakida berritarako eskura dauden funtsak. Azken osagai horretan oinarrituta, urtearen hasierak, **bana daitezkeen funtsak** eraikitzen dira: emakida berri baterako funts eskuragarri aurreragoko ekitaldien konpromisoak gehitzen zaizkie, tresna bakoitza arautzen duen dekretuan ezarritakoaren arabera hainbat urtetako ordainketak bermatzeko. **Emandako funtsak** eman daitezkeen funts horien esleipen errealarari lotuta daude.

6 Giza Ekintzako Estrategian urtean bana daitezkeen funtsen % 10, gutxienez, hura egikaritzera bideratzeko konpromisoa hartzen badugu ere, funts horien % 5 eta 10 bitartean larrialdiei erantzuteko bideratuko dira. Larrialdi horiek ez dute zertan gatazka- eta indarkeria-testu-inguruei lotuta egon behar.

7 Konpromiso hori Euskadin gauzatzen diren ekintzei lotuta dago. Ekintza horiek gizarte-tramitaziorako hezkuntzakoak, sektorea indartze-koak, ikerketarako politiken koherentziakoak, ikerketakoak, ebaluaziokoak edo bestelakoak izan daitezke.

<b>TRESNAK (1)</b>		
<b>GIZARTE ERALDAKETA</b>	<b>GARAPENERAKO LANKIDETZA, Hegoaldeko herrialdeetara bideratua</b>	≤%65
	<b>TOKI-GLOBAL ikuspegiaren aldeko apustua, Iparraldea-Hegoaldea eta lankidetzaz-herkuntza logikak gaindituz</b>	≤%25
	<b>GIZARTE ERALDAKETARAKO HEZKUNTZA, Euskadin zentratua eta lotura globalekin</b>	≤%20
<b>KRISI HUMANITARIOEI ERANTZUNA</b>	<b>EKINTZA HUMANITARIOA, Hegoaldeko herrialdetan zentratua eta Iparraldean ekintzak burutuz</b>	≤%15
<b>ERAGILEAK INDARTZEA (2)</b>	<b>GENERO BERDINTASUNAREN ALDEKO ANTOLAKUNTZA ALDAKETA</b>	≤%1,5
	<b>LANKIDE BOLUNTARIOAK</b>	≤%2
	<b>PRESTAKUNTZA BEKAK NAZIO BATUETAN</b>	≤%2
	<b>ESPEZIALIZAZIO BEKAK GLEA-N</b>	≤%0,5
	<b>GAITASUNAK INDARTZEA ETA ARTIKULATZEA</b>	≤%5
<b>SENTSIBILIZAZIOA, KOMUNIKAZIOA, IKERKETA ETA IKASKUNTZAK SORTZEA, GLEAk zuzenean sustatuak (2)</b>	<b>EUSKADIKO GAZTEAK LANKIDETZAN PROGRAMA</b>	≤%0,5
	<b>IGNACIO ELLACURÍA SARIA</b>	≤%0,1
	<b>GLEA-REN BEREZKO EKINTZAK</b>	≤%5

(1) Indarrean dauden lehia bidezko tresnez gain, GLEAk ekimenak sustatu ahal izango ditu diru-laguntza zuzenen bidez, lau jarduketako-ildoetan, 1/2007 Legearen aurreikuspenekin bat etorruta.

(2) Eragileak indartzeko ildoan, zein sensibilizazio, komunikazio, ikerketa eta ikaskuntzak sortzeko ekintzei dagokienez, GLEAk sustatutako hainbat ekimen funts banagarrien bitartez finantzatu beharrean funtzionamendu-partidatik finantzatu ahal izango dira.

## PROZESUA

		JARDUTEKO ILDOAK
GARAPENERAKO POLITIKEN KOHERENTZIA	Ekintza pilotuak	Gobernu barruko eta erakunde arteko artikulazio-espazioak identifikatzea diagnostikoak eta esperientziak partekatzeko, koordinazioa errazteko eta ekintza espezifikoak zehazteko
		Gobernuaren hainbat eremuren barruan garapenerako politiken koherentzia bultzatzeko ardura duten pertsonak sentibilizatzea
		Toki-eremuan, Estatuan, Europan eta nazioartean garapenerako politiken koherentziaren arloko esperientziak elkartrukatzea
		Politiken koherentzia lortzeko bidean egindako aurrerapenaren berri emateko informazio-sistemak bate-ratzea
		Garapenerako Lankidetzaren Euskal Kontseiluan eztabaida eta politiken koherentziako printzipioaren be-tetze-mailari buruzko urteko txostena egitea
		Eusko Jaurlaritzako sailak euren jarduteko esparruekin lotutako lankidetzako ekimenetan parte hartzea
Ekintza pilotuak	AUZO(LAN)KIDEAK GIZA ESKUBIDEEN ALDE: enpresa eta giza eskubideak	
	AUZO(LAN)KIDEAK EROSTERAKOAN: erosketa publiko arduratsua	

2018	2019	2020	2021	ANALISI-KATEGORIAK ETA ADIERAZLEAK
				Artikulazioa sustatu den espazioen kopurua Artikulazioaren emaitza diren ekintzen zerrenda Artikulazioa erraztu/zaildu duten elementuak
				Sentsibilizatutako pertsona kopurua eta erabakitzeko ahalmena Jasotako informazioaren eta prestakuntzaren inguruko asebetetze-maila
				GLEAk parte hartzen duen sozializatzeko, elkartruckerako edo alderatzeko ekimen kopurua.
				Informazioa biltzeko prozedura-sistemak
				Hiru txosten egin eta eztabaidatu dira Praktikara eramandako txostenen gomendio kopurua
				Koherentziako, koordinazioko eta osagarritasuneko ekintza kopurua Lau urteetan izandako bilakaeraren eta horretan laguntzen duten eta zailtzen duten elementuen analisia Lankidetzaren teknikoaren ekintzetan parte hartzen duten pertsonen kopurua
				Jarduketa-plana onartuta Plangintzan oinarritutako jardueren egikaritze-maila onartuta
				Gizarte-klausulak txertatzeko gida landuta Kontratatzear arduratutako sailetako pertsona sentsibilizatuak Kontratu publikoetan klausula sozialak eta ingurumenekoak eransteko jarraipen-sistema finkatuta

		JARDUTEKO ILDOAK
GARAPENERAKO POLITIKEN KOHERENTZIA (jarraipena)	Ekintza pilotuak	AUZO(LAN)KIDEAK MUNDUAN
	Ekintza pilotuak	Garapenerako Lankidetzaren Erakunde arteko Batzordearen eta lantalde teknikoaren aldizkako bilerak egitea
		AUZO(LAN)KIDEAK ELKARREKIN: uraren erakunde arteko programa
		Euskal Lankidetzaren Publikoaren Ataria abian jartzea
		Erakunde arteko ebaluazio bateratuak egitea
		Bi urtez behin Euskal Lankidetzaren Publikoko Foroa egitea
		(H)ABIAN 2030 – Gizarte-Eraldaketerako Hezkuntzaren Estrategiaren oinarritzko lerroa lantzea
		AUZO(LAN)KIDEAK KOMUNIKAZIOAN
		(H)ABIAN 2030 martxan jartzeari buruzko gogoetarako gunek sortzea



2018	2019	2020	2021	ANALISI-KATEGORIAK ETA ADIERAZLEAK
				Sailen artean partekatutako nazioartekotze-ekintzei buruzko informazioa Hasitako jarduketako pilotuak sailarteko koordinaziorako
				Bilera kopurua, urtean lau gutxienez Koordinazio horren ondoriozko ekintza bateratuen kopurua Erakunde parte-hartzaileen asebetetze-maila
				Programa 2018ko lehen seihilekoan abian jartzea Esperientziatik ateratako ikaskuntzak, erakunde arteko koordinazioari, lankidetzaren teknikoari, lankidetzaren trianguluarrari eta hegoaldea-hegoaldea lankidetzari dagokienez Uraren gaiaren inguruan sustatutako trukatzeko espazioen kopurua. Artikulatutako agente diferenteen kopurua Parte hartzen duten pertsonen asebetetze-maila (erabilgarritasuna eta aplikagarritasuna)
				Jendearentzako irekita dagoen eta urtero eguneratzen den ataria Erabiltzaileen asebetetze-maila honako hauei dagokienean: informazioaren eskuragarritasuna, formatua, erabilgarritasuna eta abar
				Bi ebaluazio eginak eta sozializatuak Aplikaturako gomendioak eta ondorioak
				Bi edizio eginak Parte hartutako pertsonen asebetetze-maila Parte hartutako pertsonen kopurua eta hauek ordezkatzeko dituzten agenteen dibertsitatea
				Oinarrizko lerroa gauzatu eta sozializatu
				Egindako komunikazio kanpaina bateratua Hezkuntza-komunikazioaren arloan sortutako agente desberdinekin artikulazio berriak
				Gogoetako eta prestakuntzako jardunaldi kopurua Sortutako sakontze-dokumentuak Parte hartzen duten pertsonen asebetetze-maila (erabilgarritasuna eta aplikagarritasuna)

		JARDUTEKO ILDOAK
EREMU ESTRATEGIKOAK		Eremu estrategikoen funtzionamendu, kudeaketa, jarraipen eta ebaluazioaren ereduaren garapena
	Bi esparru estrategiko abian jartzea	AUZO(LAN)KIDEAK BAKEAN: gatazkak eraldatzea eta bakea eraikitzea
		AUZO(LAN)KIDEAK EKONOMIAN: eredu ekonomiko solidarioa
		Esperientzia sozializatzea eta balioztatzea
		Esparru estrategikoetako esperientzia ebaluatzea

2018	2019	2020	2021	ANALISI-KATEGORIAK ETA ADIERAZLEAK
				Sortutako gidaren oinarrizko proposamena Oinarri-gida esparru estrategiko bakoitzera egokitzearen eta haren bilakaeraren, egokitasunaren eta erabilgarritasunaren analisia
				Plana indarrean dagoen lehen urte eta erdian hasierako taldea sortzea eta esperientzia abian jartzea
				Eremu bakoitzean urratsak, diseinatutako etapen eskalaren arabera Prozesuaren inguruko balorazioa (ontasunak eta mugak), parte hartzen duten pertsonen/erakundeen eskutik
				Esperientzia partekatzen duten gogoeta-espazio, artikulua eta abarren kopurua
				Lan-ildoak lehenesteko, ekintzak koordinatzeko eta ekimen bateratuak artikulatzeko eremu estrategikoen proposamenaren baliozkotasuna analizatzea Lehenestea, koordinazioa eta artikulazioa laguntzen eta zailtzen duten elementuak identifikatzea Agente desberdinak barne hartzeko esparru estrategikoen baliozkotasuna analizatzea Haren erabilgarritasuna analizatzea, plan honetan lehenesten diren ikuspegietan aurrera egiteko

JARDUTEKO ILDOAK		
<b>TOKI-GLOBAL</b>	Toki-global ikuspegiak sakontzea	GLEAren ikuspegia ulertzeari buruzko dokumentu bat garatzea
		Toki-global ikuspegia txertatzeko garaian jardunbide egokiak identifikatzea
		Trukerako eta ikasteko espazioak sortzea
		Tresna diferenteetan ikuspegia eranstea
	Sareak eta aliantzak sustatzea	GLEArako sare interesgarriak identifikatzea
		GLEAren parte-hartzea sareetan
		Sareetan beste agente batzuen parte-hartzea sustatzea
	Gaitasunak indartzea	GLEAren eta gainerako agenteen prestakuntza- premiak ezagutzea
		Prestakuntza-plan bat diseinatzea

2018	2019	2020	2021	ANALISI-KATEGORIAK ETA ADIERAZLEAK
				Sozializatutako dokumentua
				Identifikatutako jardunbide egokietatik abiatuta, sustatutako truketze- eta ikaste-espazioen kopurua
				Parte hartzen duten pertsonen asebetetze-maila (erabilgarritasuna eta aplikagarritasuna)
				Egindako ebaluazioak, esperientzien sistematizazioak edo metaebaluazioak
				Beste baliabide batzuen bitartez (ebaluazioak, sistematizazioak, artikulak...) sozializatutako jardunbide egokiak
				Programen tresnan elementu nuklear gisa gehitzea
				Eraldaketa sozialerako hezkuntza-proiektuetan zeharka gehitzea
				Gehitze-maila gainerako tresnetan
				Egindako analisia
				Eskualdeko edo nazioarteko bi saretan, gutxienez, parte hartzea
				Ekintza komunen kopurua eta irismena
				Sustatutako sareen kopurua
				Sustatutako agenda edo ekintza komunak
				Ekintzen irismena (adibidez, agendan jarritako gaiak, politiken aldaketa...)
				Egindako eta analizatutako beharren inkesta
				Diseinatutako eta abiarazitako prestakuntza-plana
				Parte hartzen duten pertsonen kopurua
				Parte hartzen duten pertsonen asebetetze-maila (erabilgarritasuna eta aplikagarritasuna)

JARDUTEKO ILDOAK		
<b>GIZA ESKUBIDEAK</b>	Giza Eskubideen ikuspegia sakontzea	Giza eskubideetan oinarrituta, ikuspegia txertatzeko garaian jardunbide egokiak identifikatzea
		Ikuspegiaren gaineko ikaskuntzako eta trukerako espazioak sortzea
		Ikuspegi horren zehaztapena aztertzea tresna diferenteetan
	Koordinazioa eta ikaskuntza babesari buruzko arloan	Giza eskubideak defendatzen dituzten pertsonak, komunitateak, erakundeak eta sareak babesteko GLEAtik bultzatzen diren ekimenak eta prozesuak mapatzea
		Esperientziak partekatzea babes arloan
		Babes arloan ikaskuntza eta sinergiak ahalbidetzea
	Koordinazioa eta ikaskuntza babesari buruzko arloan	Eusko Jaurlaritzako Biktimen eta Giza Eskubideen Zuzendaritzarekin artikulazioa eta koordinazioa indartzea
		Toki-, eskualde- eta nazioarte-mailan dauden babes-beharrak eta sistemak ezagutzea
		GLEArentzako ibilbide-orri bat ezartzea bere babes-papera hobetzeko
		Eusko Jaurlaritzaren komunikazio-protokolo bat diseinatzea (pertsona defendatzaileen lana baloratzea eta egoera espezifikoak salatzea)

2018	2019	2020	2021	ANALISI-KATEGORIAK ETA ADIERAZLEAK
				Identifikatutako jardunbide egokietatik abiatuta, sustatutako truketze- eta ikaste-espazioen kopurua
				Parte hartzen duten pertsonen asebetetze-maila (erabilgarritasuna eta aplikagarritasuna) Egindako ebaluazioak, esperientzien sistematizazioak edo metaebaluazioak Beste baliabide batzuen bitartez (ebaluazioak, sistematizazioak, artikulak...) sozializatutako jardunbide egokiak
				Baremo eguneratuak eta formulario gainbegiratuak
				Mapaketa egina, datuak bereiziz
				Mapaketatik abiatuta, sustatutako truketze-, ikaste- eta koordinazio-espazioen kopurua
				Parte hartzen duten pertsonen asebetetze-maila (erabilgarritasuna eta aplikagarritasuna)
				Agente diferenteen artean sortutako sinergiak Ekimenetan babes-elementuen gehikuntzaren bilakaera Egindako ebaluazioak, esperientzien sistematizazioak edo metaebaluazioak Babes arloan esperientzia sozializatua (ebaluazioak, sistematizazioak, artikulak...)
				GLEAren inplikazio-maila, Giza Eskubideen Defendatzaileei Aldi baterako Babesa emateko Euskal Programan
				GLEAren jarduketa-potentziala identifikatuta
				Diseinatutako ibilbide-orria Planifikatutakoaren arabera jarduerak burutzea
				Landutako eta abian jarritako protokoloa Jasotako eskaera kopurua eta mota Egindako adierazpen kopurua eta mota (publikoak eta/edo pribatuak)

JARDUTEKO ILDOAK		
<b>GENEROA</b>	Emakumeen ahalduntzeko zeharkako ikuspegian eta ikuspegi sektorialean sakontzea	Genero zehar-lerroaren inguruko mapaketa egitea, lagundutako ekimen eta prozesuetan
		Emakumeen ahalduntzean zentratutako ekimenen mapaketa egitea
		Jardunbide egokiak identifikatzea
		Sozializazioko eta ikaskuntzako espazioak sortzea
		Entitateen genero-ekitatearen aldeko planak genero- zeharkakotasuna bultzatzeko funtsezko elementutzat hartzea
	Sexu- eta genero- dibertsitate ikuspegia	Sexu- eta genero-aniztasunaren ikuspegiaren ezagutzan sakontzea
Sexu-aniztasunaren eta generoaren ikuspegia bultzatzeko analisi- dimentsioak edo ekintza zehatzak baloratzea eta, hala badagokio, tresnetan txertatzea		



2018	2019	2020	2021	ANALISI-KATEGORIAK ETA ADIERAZLEAK
				Mapaketa egina, datuak bereiziz
				Identifikatutako jardunbide egokietatik eta ahulezietatik abiatuta, sustatutako truketze-eta ikaste-espazioen kopurua
				Parte hartzen duten pertsonen asebetetze-maila (erabilgarritasuna eta aplikagarritasuna) Egindako ebaluazioak, esperientzien sistematizazioak edo metaebaluazioak
				Beste baliabide batzuen bitartez (ebaluazioak, sistematizazioak, artikulak...) sozializatutako jardunbide egokiak
				Babestutako prozesu kopurua Prozesuekiko GLEAren eta erakundeen asebetetze- maila Prozesuen jabetze-maila erakundeen aldetik eta sortutako aldaketak Sexu- jazarpen eta eraso sexistako protokolo bat hartzen duten erakunde kopurua Egindako prestakuntzako eta gogoetako saio kopurua, gutxienez urtean bat Prozesuetatik eskuratutako ikaskuntzen sistematizazioa eta sozializazioa
				Sustatutako prestakuntza-espazio, prestakuntza- material eta abarren kopurua Agenteen asebetetze-maila (erabilgarritasuna eta aplikagarritasuna)
				Tresnetan txertatzea analizatzea eta esperientzia baloratzea

JARDUTEKO ILDOAK		
<b>GENEROA (jarraipena)</b>	Sexu-aniztasunaren eta generoaren ikuspegia eranstea	Sexu-aniztasunaren eta generoaren ikuspegia eranstearen arloan esperientzia pilotuak ahalbidetzea
	Sexu-aniztasunaren eta generoaren ikuspegia eranstea	Genero-ekitatearen aldeko antolamendu-aldaketako prozesuetan sexu-aniztasunaren eta generoaren ikuspegia eranstea bultzatzea
	GLEAn zeharkakotasuna indartzea	GLEAren Genero-Ekitatearen Aldeko I. Plana lantzea eta abiaraztea

2018	2019	2020	2021	ANALISI-KATEGORIAK ETA ADIERAZLEAK
				Diru-laguntza zuzenen bitartez babestutako ekimen kopurua Beste tresna batzuen bitartez aurkeztutako eta babestutako ekimen kopurua Ikaskuntzak eskuratzea eta lagundutako esperientziak sozializatzea
				Ekitatearen aldeko antolakuntza aldaketako prozesuetan sexu- aniztasunaren eta generoaren ikuspegia eranstean duten erakunde kopurua
				2018ko lehen seihilekoan diagnostikoa amaituta 2019ko lehen seihilekoan I. Plana landuta Planifikatutakoarekin bat etorrira egindako ekintzak Sustatutako gogoetako eta ikaskuntzako espazio kopurua Genero arloko koordinazio eta aliantza kopurua eta egindako ekimen bateratuen kopurua Prozesuarekiko (barnekoa eta kanpoko) asebetetze-maila

JARDUTEKO ILDOAK		
AFRIKA	Afrikan oinarritutako eta Afrikako agenteekin egin beharreko ekimenak, sustatzea	Afrikaren aldeko ekimenak sustatzea
		Gure inguruan Afrikako errealitateak ezagutaraztea
		Euskadiko entitateak eta aktoreak Afrikako parekideekin lotzea (lankidetzaren sektoretik haratago)
		Afrikaren presentzia indartuko duten elementuak hainbat tresnatan zehaztea
	Agenteak indartzeko topaketa- eta ikaskuntza- espazioak sortzea	Sektoreko entitateentzat Afrikako lankidetzaren eta lanaren inguruko prestakuntza lantzea
		Afrikako toki-entitateentzako prestakuntza lantzea
		Hainbat eragileri zuzendutako Afrikako gaiari eta testuinguru garrantzitsuei buruzko prestakuntza espezifikoak lantzea
		Tokiko bazkide potentzialen eta erakunde eskatzaileen arteko harremanak sustatzea
		Migratzaileen elkarrekin hurbilketa, topaketa eta ekimenak bultzatzea

2018	2019	2020	2021	ANALISI-KATEGORIAK ETA ADIERAZLEAK
				Sustatutako ekimen kopurua Ekimen arrakastatsuen sistematizazioa ondoren sozializatzeko
				GLEAk sustatutako hedapen-ekimen kopurua Errealitate afrikarra hedatzeko ekintzak dituzten onartutako proiektu kopurua Afrikari buruzko bi topaketa egitea GLEAk antolatutako jardueretan parte hartu duten pertsonen edo Afrikako kontinenteko ekimen sozializatuen kopurua
				Antolatutako topaketen kopurua Topaketetatik abiatuta sortutako ekimen kopurua Parte hartzen duten pertsonen asebetetze-maila (erabilgarritasuna eta aplikagarritasuna)
				Errealitate afrikarren premia espezifikotara egokitutako tresna kopurua Tresna diferenteetan aurkeztutako eta onartutako ekimen afrikarren kopurua handitzea
				Gai teknikoen inguruan egindako prestakuntza kopurua (urtean bat gutxienez) Parte hartzen duten pertsonen asebetetze-maila (erabilgarritasuna eta aplikagarritasuna)
				Egindako prestakuntza kopurua, gutxienez bi herrialdetan Parte hartzen duten pertsonen asebetetze-maila (erabilgarritasuna eta aplikagarritasuna)
				Egindako prestakuntza-saio kopurua, gutxienez bi Parte hartzen duten agenteen kopurua eta tipologia Parte hartzen duten pertsonen asebetetze-maila (erabilgarritasuna eta aplikagarritasuna)
				Sortutako topaketa-espazio kopurua Lortutako harreman- edo erlazio-maila: informazioa trukitzea, elkarlana, ekimen bateratuak burutzea
				Sustatutako truke- eta ikaskuntza-espazio kopurua Ekimen zehatzetan parte hartzen duten pertsona migratzaileen erakunde kopurua Parte hartzen duten pertsonen asebetetze-maila (erabilgarritasuna eta aplikagarritasuna)

JARDUTEKO ILDOAK	
AFRIKA (jarraipena)	GLEAren zeregina sustatzea
	Priorizar contextos y temáticas que nos permitan profundizar en el conocimiento de la realidad y de los agentes e identificar áreas potenciales de actuación
	Afrikari buruzko prestakuntza espezifikotan parte hartzea
	Erakunde homologoekiko eta toki-entitateekiko harremanak lantzea
	Erakundeekin harreman handiagoa lantzea (bisitak eta bidaiak)
	AUZO(LAN)KIDEAK HEZKUNTZAN
	AUZO(LAN)KIDEAK TEKNOLOGIAN

2018	2019	2020	2021	ANALISI-KATEGORIAK ETA ADIERAZLEAK
				Identifikatutako lehentasunezko gaiak eta testuinguruak Jardunbide egoki sistematizatuak Lan-ildo espezifiko landuak
				GLEAko pertsonalak parte hartzen duen prestakuntza kopurua Parte hartzen duten pertsonen asebetetze-maila (erabilgarritasuna eta aplikagarritasuna)
				Sustatutako truke- eta ikaskuntza-espazio kopurua Egindako jarraipen- eta azterketa-bidaia kopurua Harreman horietatik abiatuta sortutako ekimenak
				GLEAk deitutako bilera kopurua (kontinente- edo herrialde- mailan) Parte hartzen duten pertsonen asebetetze-maila (erabilgarritasuna eta aplikagarritasuna) Jasotako bisita kopurua Egindako jarraipen- eta azterketa-bidaia kopurua
				Parte hartzen duten hezkuntza-zentro edo -erakunde kopurua Afrikarekin hezkuntza-mailako lankidetz-ekimenen kopurua Erakundeen eta parte hartzen duten pertsonen (irakasleak eta ikasleak) arteko harreman-maila AUZO(LAN)KIDEAKen esparruan sustatutako hezkuntzako nazioarteko saretan parte hartzen duten erakunde edo herrialde kopurua
				Afrikan zein Euskadin eremu teknologikoan lan egiten duten erakundeen arteko harremanen ondorioz, lan koordinatuko ekimen kopurua Euskal erakundeekin elkarlanean abian jarritako Afrikarako egokiak diren teknologiak lantzeko ekimen pilotu kopurua Euskadiko erakundeetan ikerketa- eta truke-ahalmenak lantzeko babesa jaso duten emakume kopurua Jardunbide egokiak lantegi, ebaluazio, sistematizazio, artikulua eta abarren bitartez sozializatuak

JARDUTEKO ILDOAK		
<b>GATAZKAK ETA BESTE INDARKERIA EGOERA BATZUK</b>	Erakunde humanitarioak sendotzea	Prestakuntza-premiak eta jardunbide egokiak identifikatzea
		Esku-hartze edo prozesu babestuen ebaluazioak egitea
		Lekuan bertan edo Euskadin prestakuntzarako eta esperientziak eta jardunbide egokiak elkartrukatzeko guneak sortzea
		Jarraipen-bilerak eta bidaiak egitea
	Kontuak ematea eta sentsibilizazioa	Ekintza humanitarioek egindako lanaren kontuak emateko ahalmenak hobetzea
		Testigantzak biltzeko, sentsibilizatzeko eta eragiteko jarduerak garatzea
		Ekimen humanitario indibidualak, elkarteenak edo erakundeena bideratzeko komunikazio-produktuak sortzea
		Ekimen humanitarioko gure jarduketan kontuak ematea, eraginpean dauden komunitateen eta pertsonen, herritarren eta beste emaile batzuen aurrean.
	GLEAren papera eta bere agenteen arteko koordinazioa indartzea	GLEAko Ekintza Humanitarioko Unitatea eta taldea ekintza humanitarioan prestatzea
		Ekintza humanitarioari buruzko eztabaidetan parte hartzea eta GLEAren esperientziaren ekarpena egitea
		Osakidetzako osasun-langileek START proiektuan parte hartzeko koordinazio-ekintzak egitea
		Garapenerako Lankidetzaren Euskal Kontseiluaren larrialdiko laguntza humanitarioko batzordea abiarazteko egokitasuna analizatzea
		Koordinazio-bilerak egitea



2018	2019	2020	2021	ANALISI-KATEGORIAK ETA ADIERAZLEAK
				Sustatutako esperientzia-truke edo prestakuntza-ekintza kopurua
				Parte hartzen duten pertsonen asebetetze-maila (erabilgarritasuna eta aplikagarritasuna)
				Diru-laguntzen deialdien erakundeen indartze-partida gaitasunak eskuratzeko erabiltzea
				Egindako ebaluazioak, esperientzien sistematizazioak edo metaebaluazioak
				Beste baliabide batzuen bitartez (ebaluazioak, sistematizazioak, artikulak...) sozializatutako jardunbide egokiak
				Sustatutako esperientzia-truke edo prestakuntza-ekintza kopurua
				Parte hartzen duten pertsonen asebetetze-maila (erabilgarritasuna eta aplikagarritasuna)
				Herritarren gomendioak jasotzeko eta asebetetzea baloratzeko ekintza espezifikoak eransten dituzten ekimenen ehunekoa
				Kontuak emateko erabilitako tresna mota
				Landutako komunikazio-produktuak edo abiarazitako kontuak emateko ekimen kopurua
				Prestatutako pertsona kopurua
				Asebetetze-maila (erabilgarritasuna eta aplikagarritasuna).
				GLEAren esperientzia partekatzen duten gogoeta-espazio, artikulua eta abarren kopurua
				START proiektuan Osakidetzako pertsonal sanitarioaren parte- hartzea sustatzeko eta babesteko koordinazio-ekintzen kopurua
				Hala badagokio, Garapenerako Lankidetzaren Euskal Kontseiluaren larrialdiko laguntza humanitarioko batzordea konfiguratzeko eta abian jartzeko proposamena
				AECIDen Ekintza Humanitarioko Bulegoarekin eta Giza Eskubide, Bizikidetzeta eta Lankidetzaren Idazkaritza Nagusiarekin egindako koordinazio-bilera kopurua

		JARDUTEKO ILDOAK
EZAGUTZA ETA IKASKUNTZA SORTZEA		Ezagutza kudeatzeko estrategia bat diseinatzea
		Ebaluazio-plan bat diseinatzea
	Ikerketa sustatzea	Egindako ikerketen mapaketa burutzea, jardunbide egokiak identifikatzea, eta beharrak eta gabeziak hautematea
		Tresna espezifiko bat ezartzeko egokitasuna analizatzea
		Eragileen ikerketa-gaitasunak indartzea
		Unibertsitateen papera indartzea, beste eragile sozial batzuekin elkarlanean, ikerketa arloan
		Sustatutako ikerketen sozializazio eta eztabaida-espazioak sortzea
		Ikerketaren bitartez sortutako ezagutza aplikatzea ahalbidetzea

2018	2019	2020	2021	ANALISI-KATEGORIAK ETA ADIERAZLEAK
				identifikatutako aldagaien aukeraketa, jarraipena emateko Abian dagoen datuen bilketa-sistema eta sistematizazioa
				Landutako ebaluazio-plana Planean identifikatutako ekintzetatik burututakoak GLEAk gauzatutako eta sozializatutako ebaluazioen, sistematizazioen eta metaebaluazioen kopurua Eskuratutako ondorioen, gomendioen eta ikaskuntzen aplikazio-maila
				Analisiaren sintesi-dokumentua
				Egindako tresna espezifiko baten egokitasuna analizatzea Hala badagokio, diseinatutako eta abian jarritako tresna
				Sortutako prestakuntza-espazio kopurua Parte hartzen duten pertsonen asebetetze-maila (erabilgarritasuna eta aplikagarritasuna)
				Unibertsitateak balio diferentzial bat eskaini dezakeen identifikatutako eremuak eta bere papera indartzeko ibilbide- orri bat finkatua Ezagutza sortzeko unibertsitateen eta agente sozialen artean sortutako sinergia kopurua Finantzatutako ikerketa kopurua
				Sozializazio- eta eztabaida-espazioa izan duten sustatutako ikerketen ehunekoa
				Ikerketaren bitartez sortutako ezagutzak eta ikaskuntzak txertatzen dituzten ekintza kopurua

		JARDUTEKO ILDOAK
<b>KOMUNIKAZIOA</b>	Komunikazio-plana	GLEAren komunikazio-plana diseinatzea
		GLEAren komunikazio-plana abiaraztea
		GLEAren komunikazio-arkitektura definitzea
	Web eta sare sozialak	GLEAren web-a berriro diseinatzea
		Sare sozialetan GLEAren presentzia baloratzea
	Kontuak ematea	GLEAren jarduketari eta kudeaketari buruzko txostenak eta memoriak lantzea eta zabaltzea
		Euskal Lankidetzaren Publikoaren Ataria abian jartzea
		Kanpainak garatzea eta ekintza puntualak abiaraztea
		Hezkuntza-komunikazioko esperientziei buruzko ikaskuntzak eskuratzea eta sozializatzea

2018	2019	2020	2021	ANALISI-KATEGORIAK ETA ADIERAZLEAK
				Komunikazio-estrategiaren dokumentua
				Estrategian aurreikusitako ekintzen gauzatze-maila eta emaitzen irismena
				Egitura beharretara doitzeko identifikatutako beharrak eta hartutako neurriak
				Etengabe eguneratutako eta inplementatutako web berria Kontsulta kopurua handitzea Erabiltzaileen asebetetze-maila (informazioaren erabilgarritasuna eta kalitatea)
				Egindako egokitasun- eta aukera-analisia Hala badagokio, finkatutako eta abian jarritako estrategia
				Urteko kontuak eta urteko memoria onartu eta sozializatuak Informazioa emateko sistemak eta programak, aldizka elikatuak Giza Eskubide eta Berdintasun Batzordearen aurrean kontuak emateko egindako urteko saioa
				Euskal Lankidetzaren Publikoaren Ataria eguneratua eta jendearentzako irekia Egindako kontsulten kopurua Erabiltzaileen asebetetze-maila (informazioaren erabilgarritasuna eta kalitatea)
				Bakarka edo beste erakunde batzuekin partekatuta egindako bi kanpaina Ekintza humanitarioko ekimenak bideratzeko informazio- produktu landua eta zabaldua
				Egindako hezkuntza-komunikazioko esperientzien ebaluazioa eta ondorio sozializatuak Eskuratutako ikaskuntzek praktiketan duten txertatze-maila

**JARDUTEKO ILDOAK**

<b>LEHENTASUNAK</b>	<b>ZEHARKAKOAK</b>	AUZO(LAN)KIDEAK INGURUMENEAN (iraunkortasun ekologikoko zeharkakoa eta ingurumen arloko ekintzak)
		Zeharkako lehentasunak aztertu eta beren ulermen eta aplikazioan sakontzea <sup>8</sup>
	<b>GEOGRAFIKOAK</b>	Testuinguruen araberako lehentasun estrategikoak identifikatzeko bidean aurrera egitea
		Asiari dagokionez, beharra analizatzea eta, hala badagokio, neurri positiboak hartzea
		Herrialde edo eskualdeekin jakintza eta esperientziak elkartrukatzeko topaketak bultzatzen jarraitzea

<sup>8</sup> Plan honetan ondorengo zeharkako lehentasun hauek sustatzen dira: (I) tokiko gaitasunak, parte-hartzea eta antolakuntza hobetzea; (II) genero-ekitate; (III) giza eskubideen ikuspegia; (IV) iraunkortasun ekologikoa, eta (V) toki-global ikuspegia. (II), (III) eta (V) matrize honetan jasotzen dira jarduketa estrategikoko ardatzak jorratzen direnean eta (IV) AUZO(LAN)KIDEAK INGURUMENEAN gaiari buruzko aurreko atalean biltzen da. Beraz, atal honetan (I) zeharkako lehentasunari buruzkoa biltzen da.

2018	2019	2020	2021	ANALISI-KATEGORIAK ETA ADIERAZLEAK
				<p><b><i>Iraunkortasun ekologikoko ikuspegia:</i></b></p> <p>Sortutako prestakuntzako eta gogoetako espazio kopurua</p> <p>Parte hartzen duten pertsonen asebetetze-maila (erabilgarritasuna eta aplikagarritasuna)</p> <p>Egindako ebaluazioak, esperientzien sistematizazioak edo metaebaluazioak</p> <p>Jardunbide egoki sozializatuen kopurua</p> <p><b><i>Ekintzak ingurumen arloan:</i></b></p> <p>Sortutako topaketa-espazio kopurua</p> <p>Lortutako harreman- edo erlazio-maila: Informazioa trukatzea, elkarlana, ekimen bateratuak burutzea Ingurumen-sektorean sustatutako ekimen pilotu kopurua</p> <p>Egindako ebaluazioak, esperientzien sistematizazioak edo metaebaluazioak</p> <p>Jardunbide egoki sozializatuen kopurua</p>
				<p>Gaitasunen indartzea, parte-hartzea sustatzea eta antolakuntza indartzearen ikuspegiak:</p> <ul style="list-style-type: none"> <li>- Bultzatutako formakuntza- eta hausnarketa-espazioen kopurua</li> <li>- Baremo eguneratuak eta formulario gainbegiratuak</li> </ul>
				<p>Egindako identifikazio-analisia</p> <p>Hala badagokio, diseinatutako eta abiarazitako neurriak</p>
				<p>Egindako analisia</p> <p>Hala badagokio, diseinatutako eta abiarazitako neurriak</p>
				<p>Egindako topaketa kopurua</p> <p>Parte hartzen duten pertsonen asebetetze-maila (erabilgarritasuna eta aplikagarritasuna)</p>

		JARDUTEKO ILDOAK
<b>JARRAIPENA ETA EBALUAZIOA</b>		Memoriak eta urteko plan operatiboak lantzea eta sozializatzea
		AUZO(LAN)KIDEAK ebaluatzea
		Amaierako ebaluzioa
		Adierazleen matrizea lantzea
<b>TRESNAK</b>	Deialdiko urtea dekretu eguneratuarekin	Proiektuak
		Programak
		Ekintza humanitarioa
		Berdintasunaren aldeko antolakuntza-aldaketa
		Lankide boluntarioak
		Nazio Batuen bekak
	Espezializazio-bekak	
	Zuzeneko diru-laguntzak	Gizarte-eraldaketarako hezkuntzaren, ekintza komunitarioaren eta kooperazioaren arloetan, Eusko Jaurlaritzak kontuan hartu ez dituen eta erantzuna mereziko luketen lehentasuneko esku-hartzen dokumentuak prestatzea
<b>ARAUDIA BERRIKUSTEA</b>		1/2007 Legearen mugen eta potentzialtasunen analisisia
		Garapenerako Lankidetzaren Euskal Kontseiluaren barruan eztabaida
<b>ADMINISTRAZIO BERRIKUNTZA ETA HOBEKUNTZA</b>		Tramitazio elektronikoko sistema sendotzea
		GLEAren kudeaketa-sistema hobetzea
		Aldaketak arakatzea, tresnen dekretuak berraztertzeke esparruan, laguntzak arinago kudeatzeko





## IRISMENA

HELBURUA	EBALUAZIOKO GALDERA ETA ADIERAZLE LEHENETSIA	
<b>H1: Pertsonen eta kolektiboen (eta, bereziki, sistematikoki bazterten dituztenen) gaitasunak sendotzea eta haiek sustatutako estrategietan laguntzea, giza garapen jasangarria lortzeko eta giza eskubideak bete-bete baliatzeko bidean aurrera egin dezaten</b>	<b>Orokorra</b>	
	Lagundutako pertsona kopurua <sup>9</sup>	
	Lagundutako erakundeen kopurua eta tipologia <sup>10</sup>	
	<b>Giza eskubideak defendatzen dituzten pertsonak babestea eta haiei laguntzea</b>	
	Lagundutako giza eskubideen defendatzaileen kopurua	
	Lagundutako giza eskubideak babesteko sareen, erakundeen edo komunitateen kopurua	
	Indartuta dauden giza eskubideak babesteko sareen, erakundeen edo komunitateen kopurua eta eskubideak defendatzen dituzten pertsonen laguntzeko baldintza hobetan	
Aldaketa-historiak eta -esperientziak, babes arloan (antolakuntza, harremanak, segurtasun-neurriak eta alderdi psikosozialak) giza eskubideak defendatzen dituzten sareen, erakundeen, komunitateen eta pertsonen ahalmenak indartzearekin lotutakoak, bizitzeko eta lanerako espazio seguruak sortzeko eta zabaltzeko		
Gaitasunak indartzean oinarrituz, giza eskubideak defendatzen dituzten sareetan, erakundeetan, komunitateetan eta pertsonengan sortutako eraldaketak eta ikaskuntzak		
<b>Emakumeak ahalduntzea</b>		
Euren ahalduntzean lagundutako emakumeen kopurua		
Indartutako sare, mugimendu eta elkarte feministak edo emakumezkoenak.		
Norbanakoaren eta kolektiboaren ahalduntze-prozesuei dagokien aldaketa-historiak eta -esperientziak, eta aurrerapen efektiboak emakumeen eskubideak gauzatzean		
Gaitasunak indartzean oinarrituz, erakundeetan, mugimenduetan edo sareetan sortutako eraldaketak eta ikaskuntzak		

<sup>9</sup> Pertsonen kopuruari buruzko taulako datu guztiak sexuaren eta eremu geografikoaren arabera bereiziko dira.

<sup>10</sup> Erakundeen kopuruari buruzko taulako datu guztiak eremu geografikoaren arabera bereiziko dira.

## DATUAK SORTZEKO ITURRIAK ETA MEKANISMOAK

---

Eskaerak

---

Eskaerak

---

Ondorengoetatik sortutako eta elikatutako tresna espezifikoa:

- Jarraipeneko eta amaierako txostenak
  - Bisitak
  - Ebaluazioak edo sistematizazioak
  - Truke-saioak
- 

Eskaerak

---

Ondorengoetatik sortutako eta elikatutako tresna espezifikoa

- Jarraipeneko eta amaierako txostenak
  - Bisitak
  - Ebaluazioak edo sistematizazioak
  - Truke-saioak
-

HELBURUA	EBALUAZIOKO GALDERA ETA ADIERAZLE LEHENETSIA	
<b>H1: Pertsonen eta kolektiboen (eta, bereziki, sistematikoki bazterten dituztenen) gaitasunak sendotzea eta haiek sustatutako estrategietan laguntzea, giza garapen jasangarria lortzeko eta giza eskubideak bete-beteen baliatzeko bidean aurrera egin dezaten (jarraipena)</b>	<b>Afrika</b>	
	<p>African sustatutako ekimenetan lagundutako pertsonen kopurua</p> <p>Indartutako Euskadiko eta Afrikako erakundeen, mugimenduen edo sareen tipologia eta kopurua</p>	
	<p>Hezkuntzaren eskubidea, eskuratzea, kalitatea eta inklusioa defendatzearekin lotutako aldaketa-historiak eta -esperientziak</p> <p>Aldaketa-historiak eta -esperientziak, alor hauetan: energia, biozientziak/osasuna, elikadura, energiak eta klimaren inguruko ekintzak, ikerketa-gaitasunen garapena eta beste hainbat arlotan teknologia egokien garapena</p> <p>Gaitasunak indartzean oinarrituz, erakundeetan, mugimenduetan edo sareetan sortutako eraldaketak eta ikaskuntzak</p> <p>Errealitate afrikarren eta euskaldunen arteko konexiotik abiatuta sortutako aldaketa-historiak eta -esperientziak</p>	
	<b>Gatazkak eta beste indarkeria-egoera batzuk</b>	
	<p>Krisi egoeran laguntza jasotzen duten pertsonen kopurua</p> <p>Krisiak zigortutako herritarrak hobeto babesteko indartu diren Euskadiko eta toki-mailako erakundeen kopurua</p>	
	<p>Ekintza humanitarioaren eta garapenaren arteko lotura, erantzuteko denborak eta moduak, kontuan hartutako beharrek eta eskubideekin lotutako aldaketa-historiak eta -esperientziak</p> <p>Gaitasunak indartzean oinarrituz, erakundeetan sortutako eraldaketak eta ikaskuntzak</p>	
	<b>Herritar kritikoak</b>	
	<p>Lagundutako pertsonen kopurua Euskadin</p> <p>Lagundutako kolektiboen tipologia eta kopurua Euskadin</p>	
	<p>Toki-global errealitatera begirada zabala eta kritikotik hurbiltzea ahalbidetuko dizkieten jarrerak, trebeziak eta gaitasunak garatu dituzte pertsonak eta kolektiboak? Desberdintasunen erroen aurrean alternatibak sortzeko bakarka eta taldeka aritzeko protagonismoa hartu dute? Gai dira gizartea inplikatu eta mugiarazteko? Ekimen eta aliantza globaletara artikulatu dira?</p>	

## DATUAK SORTZEKO ITURRIAK ETA MEKANISMOAK

---

Eskaerak

---

Ondorengoetatik sortutako eta elikatutako tresna espezifikoa:

- Jarraipeneko eta amaierako txostenak
  - Bisitak
  - Ebaluazioak edo sistematizazioak
  - Truke-saioak
- 

Eskaerak

---

Ondorengoetatik sortutako eta elikatutako tresna espezifikoa:

- Jarraipeneko eta amaierako txostenak
  - Bisitak
  - Ebaluazioak edo sistematizazioak
  - Truke-saioak
- 

Eskaerak

---

(H)ABIAN 2030 adierazleak

HELBURUA	EBALUAZIOKO GALDERA ETA ADIERAZLE LEHENETSIA
<p><b>H2. Lankidetzapolitikaren gizarte-oinarrria zabaltzea eta Euskadiko pertsona, entitate eta erakundeen elkartasuna eta inplikazioa sustatzea</b></p>	<p>Garapenerako lankidetzapolitika gauzatzen erantzunkide egindako agente sozialen, hezkuntzakoen, akademikoaren, ekonomikoaren eta erakundeetakoaren inplikazio-maila, mota eta kopurua — modu gehigarrian, osagarrian edo GGKEekin loturik —</p> <p>Agente sozialek, hezkuntzakoek, akademikoek, ekonomikoek eta erakundeetakoek ezagutzen dute IV. Gida Plana? Agenteen lana orientatzen duten jarraibide argiak ezartzen ditu? Sailen, erakundearen eta agente sozialen, hezkuntzakoaren, akademikoaren eta ekonomikoaren plangintzan erreferentziako dokumentu bat da? IV. Gida Plana edo bere edukiak Eusko Jaurlaritzaren planen prestaketan sartuko dira XII. legegaldian?</p> <p>Diagnostikoak partekatzea, ekintzak lehenestea eta lankidetzaren espezifikoa zehaztea ahalbidetuko duten agente desberdinen artean sustatu dira artikulazio-espazioak? Agente ez tradizionalak barne hartzeko maila</p> <p>Herritarren inplikazio solidarioaren bilakaera eta politikari eta lankidetzaren agentei buruzko euren balorazioa neurtu ahal izateko parametroa</p>
<p><b>H3. Gure jardunbideak eta ikuspegiak berrikuntza eta ikaskuntzaren bidetik eraldatzea, garapeneraren arazoei era egokitu, integral, estrategiko eta koordinatuagoan erantzuteko</b></p>	<p>Agente diferenteen artean artikulatutako ekintzen kopurua</p> <p>Maila anitzeko, eskualde-artikulazioko eta artikulazio globaleko ekintzen kopurua</p> <p>Iparralde-Hegoalde eta lankidetzaren/ekintza humaitarioa-hezkuntza dikotomia apurtzen laguntzen duten ekintzen kopurua. Horretarako balio izan duten tresnak</p> <p>Koherentziako, koordinazioko eta osagarritasuneko ekintza kopurua Erakunde arteko ekintza bateratuen kopurua</p> <p>Garapenerako Lankidetzaren Euskal Kontseiluan eta Garapenerako Lankidetzaren Erakunde arteko Batzordean partekatutako lidergoen onartze-maila</p> <p>Agenteen eskaerentzako erantzun-denbora, txostenak aztertzea, ordainketak, etab.</p> <p>GLEAren lotura agenteen asebetetze-maila (ekimenak babestea; tramiteak eta kudeaketa, komunikazioa, plana egikaritzea...)</p> <p>Agente eta gaitasun ezberdinak modu integratuagoan eta estrategikoagoan artikulatzea lortu da? Zein elementu lagundu dute eta zeintzuk zaildu dute artikulazioa? Asebetetze- eta erabilgarritasun-maila</p>

## DATUAK SORTZEKO ITURRIAK ETA MEKANISMOAK

Eskaerak

AUZO(LAN)KIDEAK aktak

Garapenerako Lankidetzaren Euskal Kontseiluan parte hartzearen erregistroak, GLEAk antolatutako ekintzak...

---

Galdera-sortak

Plangintza-dokumentuen analisia

Aktak

Ekimen bateratuen ebidentzia

Finkatutako iritzi-inkestak

---

Eskaerak

Erregistro espezifikoa

Sailen araberako jarraipen-fitxak

Ekintzen ebidentziak

Aktak

Aktak

Galdera-sortak

Erregistro-sistema

---

Galdera-sortak

Ekimen adierazgarrien aktak eta balorazioak

Galdera-sortak

---

HELBURUA	EBALUAZIOKO GALDERA ETA ADIERAZLE LEHENETSIA
<p><b>H3. Gure jardunbideak eta ikuspegiak berrikuntza eta ikaskuntzaren bidetik eraldatzea, garapenaren arazoei era egokitu, integral, estrategiko eta koordinatuagoan erantzuteko (jarraipena)</b></p>	<p>Tokiko prozesuen eta dinamika globalen artean artikulazio handiagoa lortu da? Zein tresnek lagundu dute horretan? IV. Gida Planaren lehentasunekiko artikulazio-ekintzen egokitasuna. Artikulazio honek zein aldaketa ekarri ditu? (ikaskuntzak, politika-aldaketak, agendak...)</p> <p>Iparraldea-Hegoaldea eta lankidetz/ekintza komunitarioa-hezkuntza dikotomiaren etenduran aurrera egin da? Zer ikasi da? Beste mota bateko esku-hartzeekiko irismen diferente bat lortzen da? Horizontaltasun eta elkarrekikotasun handiagoko harremanak lortu dira?</p> <p>Eusko Jaurlaritzaren politikak diseinatzean, abian jartzean eta ebaluazioan giza garapeneko eta iraunkortasuneko ikuspegiaren integrazioan aurrera egin da? Zehazki, enpresa eta giza eskubide, erosketak publiko eta nazioartekotze alorretan</p> <p>Erakunde arteko artikulazio handiagoa lortu da? Aztertutako edukiak, hartutako akordioak, erakunde arteko koordinazioan partekatutako lidergoen onartze-maila</p> <p>Garapenerako Lankidetzaren Euskal Kontseilua dinamizatu egin da eta ikuspegi estrategikoagoa eman zaio (eztabaidarako espazioa, proposamena, eraikuntza kolektiboa...)? Agente desberdinek bat egitea lortu da? Landutako eduki, agenteen parte hartze maila, denborak, hartutako akordioak eta abarrekin lotuta, nola baloratzen da Garapenerako Lankidetzaren Euskal Kontseilua? Lidergo partekatuen onartze-maila (gai-zerrendan proposatutako gaiak, gaien azalpena...)</p> <p>Prestakuntza-ekintzak, esperientzien eta ezagutzen trukea, ebaluazioa, esperientzien sistematizazioa, gaitasunak indartzea eta abar jarduketak estrategikoko ardatz guztietan garatu dira? Sortutako ezagutzatik eta ikaskuntzetatik abiatuta, praktika hobekak identifikatzen dira?</p> <p>Parte hartu da euskal lankidetzaren politika Europako eta nazioarteko esparruan kokatzeko ekimenetan? GLEA eta euskal lankidetz publikoak agente garrantzitsu gisa aitortzen dira Estatu-, Europa-mailako eta maila globaleko lankidetz deszentralizatuaren esparruan? Zein elementu bereizgarri egotzen zaizkie? Lehenetsitako ikuspegiaren batetik GLEAren kooperazioa finkatu eta aitortu da?</p> <p>V. Gida Planari begira, egokia da plan honetan sustatutako ikuspegiak sakontzea, aztertzea, zabaltzea edo baztertzea?</p>



## DATUAK SORTZEKO ITURRIAK ETA MEKANISMOAK

Sustatutako esku-hartzeen analisia

Galdera-sortak

Artikulazio-espazioen balorazioak

Osagai azpimarragarriaren batekin emandako diru-laguntzen analisia

Galdera-sortak

Truke-espazioen balorazioa

Sailen araberako jarraipen-fitxak

AUZO(LAN)KIDEAKen jarraipena

Galdera-sortak

Aktak

Ekintza bateratuen ebidentziak

Galdera-sortak

Aktak

Galdera-sortak

Urteko memoriak

Galdera-sortak

Jardunaldi, mintegi, topaketa, sare eta abarretan parte hartzea

Ekimen enblematikoen balorazioak eta sustatutako beste ekintza batzuk

Galdera-sortak

---

## II. Eranskina. Beste sail batzuen ekimenen zerrenda

Plana lantzeko prozesuan, Eusko Jaurlaritzako hainbat sailek eta hari atxikitako entitate eta erakunde autonomoek burutzen dituzten ekintzen hasierako mapaketa egin dugu, garapenerako laguntza ofizial gisa kalifikatzen dituztenak edo garapenerako politiken koherentzian lagundu dezaketenak.

Halaber, Euskadi Basque Country 2030 Agendaren helburuak (H) eta hauei lotutako gobernu- programen konpromisoak (GPK) eta plangintza-tresnak (PT) gehitu ditugu. Gure ustez, Eusko Jaurlaritzako hainbat sailen artean garapenerako politikekin bat etorritz, lanerako esparru bat izan daitezkeelako, agendan laguntzeaz gain.

Gainera, ekintzak ondorengo irizpideen arabera bereizi ditugu, finkatutako harremanaren intentsitatearen arabera:

**Koherentzia:** ikuspegi bateratuago baten integritasun eta garapen handiagoa eskaintzen duten ekintzak eta lan egiteko guneak.

**Koordinazioa:** GLEAren eta beste sail batzuen arteko elkarlan eta elkarrizketa handiagoa ahalbidetzen duten erreferentzia-esparruak eta gune zehatzak (araudi bidez ezarriak edo ad hoc sortuak), eta haien ondoriozko ekintzak.

**Osagarritasuna:** beste sail edo erakunde autonomo batzuk beren ekimenez eta GLEAren inplikaziorik gabe egiten ari diren eta garapenerako laguntza ofizialtzat har daitezkeen ekintzak.

Saila	Ekimena	Mota
Kanpo-Ekintzarako Idazkaritza Nagusia	Euskadi Basque Country 2018-2020 estrategia	Koherentzia
	Euskadi 2030 Basque Country agenda	Koherentzia
	Garapenerako Lankidetzaren Euskal Kontseilua	Koordinazioa
	Kanpo Harremanetarako Sailarteko Batzordea	Koordinazioa
	Sahararako diru-laguntza izenduna	Osagarritasuna
	ORU-FOGAR Eskualdetako Elkarten Foro Globala	Osagarritasuna
	Eusko Jaurlaritzaren eta Unescoren arteko lankidetzaren memorandua: hezkuntza, ingurumen, bakearen kultura, atlas linguistikoa eta beste hainbat gairen inguruan lankidetzaren	Osagarritasuna
	Eusko Jaurlaritzaren eta Estatu Iberoamerikarren Erakundearen arteko lankidetzaren memorandua: elkarlana hezkuntza, zientzia, berrikuntza eta kulturako gaietan. Garapen zientifikoa ikuspegi sozial batetik	Osagarritasuna
Lehendakari Giza Eskubide, Bizikidetzaren eta Lankidetzaren Idazkaritza Nagusia	GIH 16 (H 87, GPK 166): giza eskubideen eta pluralismoaren errespetuan oinarritutako bake eta bizikidetzaren kultura sustatzea GIH 16 (H 93, GPK 159): Gatazken ebazpen alternatiboko sistemak sustatzea GIH 16 (H 95, GPK 162): Egia, justizia eta erreparazioko eta biktime guztienganako elkartasuneko politika publikoak abiaraztea	
	Bizikidetzaren eta Giza Eskubideen Plana (GIH 16 PT 69; GIH 10 PT 48)	Koherentzia
	Giza Eskubideen Defendatzaileak Aldi Batez Babesteko Euskal Programa (GIH 16, PT 76)	Koordinazioa
	Mediterraneoan errefuxiatuek sufritzen duten krisi humanitarioari erantzun soziala, politikoa, erakunde artekoa eta sailartekoa modu partekatuan orientatzeko Eusko Jaurlaritzaren esparru-dokumentua. 3. ardatza. Ekintza humanitarioa, 4. ardatza. Ekintza prebentiboa eta 5. ardatza. Posizionamendua (GIH 10 PT 49)	Koordinazioa
	Eusko Jaurlaritzaren jarduketaren programa, euskal komunitate islamiarrekin bizikidetzaren sustatzeko, bere proiektuetan. 16. Ekintza humanitarioa eta 17. Ekintza prebentiboa	Koordinazioa
	Errefuxiatuen sailarteko koordinazioa	Koordinazioa
	Garapenerako Lankidetzaren Euskal Kontseilua	Koordinazioa
	Gogora Memoriaren Institutuko Kontseilua	Koordinazioa
	2017-2020 Giza Eskubideen, Bizikidetzaren eta Lankidetzaren Hezkuntza-programa osagarria (GIH 4, PT 28)	Koordinazioa

Saila	Ekimena	Mota
Giza Eskubide, Bizikidetzaren eta Lankidetzaren Idazkaritza Nagusia (jarraipena)	Iheslarietarako Nazio Batuen Goi Mandatariaren bulegoarekin elkarlana	Osagarritasuna
	Nazio Batuekin lortutako akordio baten bitartez, Kolonbian bake-akordioak abiarazteko laguntza	Osagarritasuna
	Europar Batasuneko arriskuan dauden giza eskubideak babesten dituztenen aldi baterako lekuz mugitzeko plataforma globalean parte hartzea	Osagarritasuna
	Giza Eskubideetarako Nazio Batuen Goi Mandatariaren Bulegoarekin elkarlana: giza eskubideen sustapena	Osagarritasuna
Lehendakaritza (jarraipena) Emakunde	GIH 5 (H 32, GPK 147 eta 157): Emakumeen aurkako indarkeria ezabatu eta genero-indarkeriaren biktimeentzako arreta judiziala hobetu. Nazio Batuen Erakundeko Fondo de Poblacion (UNFPA) erakundeari laguntza, Indarkeria jasaten duten emakumeentzako eta neskatxentzako zerbitzu bereziei buruzko programa bateratua parte hartzeko (UNFPA-ONU Mujeres)	
	GIH 5 (PT 29): Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako VII. Plana	
	GIH 5 (PT 30): Genero-indarkeriaren adingabeko biktimek jasandako kalteak aurreikusteko, babesteko eta onbideratzeko plan integrala	
	Sailen arteko talde teknikoa	Koherentzia
	Garapenerako Lankidetzaren Euskal Kontseilua	Koordinazioa
	Munduko Nekazaritza Foroarekin esparru- akordioa	Koordinazioa
	Ignacio Ellacuría Saria	Koordinazioa
	Laguntza puntualak, prestakuntzako eta dibulgazioko ekintzetan	Koordinazioa
	Emakumeak El Salvadorrentzako laguntza teknikoa NBErekin egindako hitzarmenean	Koordinazioa
	UNFPAr babesa	Osagarritasuna
	Martxoaren 8ko kanpaina Idazkaritza Nagusi Latinoamerikarrarekin	Osagarritasuna
	Lan-bilerak Amerikako Estatuaren Erakundearekin, Emakumeen Batzorde Interamerikarra	Osagarritasuna
	Emakumeen eta gizonen berdintasunaren arloan, Mexikoko Gobernuarekin lankidetzaren memorandua	Osagarritasuna
ONU Mujeres-ekin elkarlana, Europa eta Erdialdeko Asia	Osagarritasuna	
Irekia	Euskal Gobernu Irekiaren Eredurako Open Government Partnership (OGP) Local Programme ekintza-plana	Osagarritasuna

Saila	Ekimena	Mota	
Hezkuntza	GIH 4 (H 23, GPK 92): Gure ikastetxeetan oreka, gizarte-koehesio, kulturartekotasun eta bizikidetzaren handiagoa lortzea GIH 4 (M 27, GPK 166): Bizikidetzaren eta giza eskubideen arloan hezkuntza sustatzea (indarkeriaren eza, dibertsitatea eta elkartasuna) GIH 4 (PT 21): Hezkuntza-sisteman genero-indarkeriari aurrea hartzeko eta baterako hezkuntza lantzeko Plan Zuzentzailea, 2017-2020 GIH 4 (PT 22): Ikasle Immigranteen arretarako plana Kulturarteko Eskola Inklusiboaren esparruan		
	Garapenerako Lankidetzaren Euskal Kontseilua	Koordinazioa	
	Hezkuntza Berritzatzeko Zuzendaritza	Heziketa Topaketa	Koordinazioa
	Ikerketa eta Unibertsitateen Zuzendaritza	Euskal Herriko Unibertsitateari laguntza, Saharako Errepublikaren Arabiar Demokratikoko ikasleek "Nazioarteko Lankidetzaren Ez Zentralizatua. Bakea eta Garapena Masterra" masterrean ikasketak egiteko bekak eta laguntzak emateko	Osagarritasuna
Lanbide Heziketa	Bisitak eta trukea Tknika ereduarekin	Osagarritasuna	
Osasuna	GIH 3 (H 13, GPK 66): Osasunaren zaintzan pertsonen erantzunkidetasuna sustatzea GIH 3 (H 14, GPK 67): Arreta sanitarioan ekitatearen zaintzea, genero-ikuspegia eta kolektibo ahulak bereziki kontuan hartuz, eta kalitatezko arreta eskaintzea GIH 3 (H 15, GPK 69): Osasuna ingurune komunitarioan bultzatzea, jarduera fisikoa eta elikadura osasungarria sustatuz GIH 3 (PT): Elikadura Osasungarriko Estrategia		
	Garapenerako Lankidetzaren Euskal Kontseilua	Koordinazioa	
	Larrialdietako Laguntzako eta Erantzuteko Talde Teknikoa (START)	Koordinazioa	
	Teknologia sanitarioaren ebaluazio arloan Euskadi eta Tunisia arteko lankidetzaren memorandua	Osagarritasuna	
	Gizarte Aseguruko Institutu Mexikarraren eta Osasun Sailaren arteko lankidetzaren memorandua	Osagarritasuna	
	Herrialde pobretuetako edo gatazketan murgildutako herrialdeetako adingabeei eta aldi baterako abegi-familietan hartutako adingabeei arreta sanitarioa eta kirurgikoa ematea	Osagarritasuna	
Ogasuna eta Ekonomia	GIH 12 (PT 60): Euskadiko Erosketa eta Kontratazio Publiko Berdearen Programa		
	Garapenerako Lankidetzaren Euskal Kontseilua	Koordinazioa	

Saila	Ekimena	Mota	
Ingurumena, Lurralde Plangintza eta Etxebizitza	<p>GIH 4 (PT): 2030erako Jasangarritasunerako Hezkuntzako Estrategia</p> <p>GIH 11 (H 61, GPK 47): Lurralde-estrategia iraunkorra, soziala, adimenduna, orekatua eta parte-hartzailea sustatzea</p> <p>GIH 12 (H 68, GPK 62): Ekonomia zirkularra babestea</p> <p>GIH 12 (H 69, GPK 45): Ingurumenari dagokionez eredugarria den administrazio publiko baten konfigurazioan aurrera egitea</p> <p>GIH 12 (PT 59): Euskadi 2020ren Ekonomia Zirkularreko Estrategia</p> <p>GIH 12 (PT 60): Euskadiko Erosketa eta Kontratazio Publiko Berdearen Programa</p> <p>GIH 13 (H 74, GPK 41): Energia berriztagarrien erabilera sustatzea</p> <p>GIH 13 (H 75, GPK 41): Eraikuntza iraunkorra, ekodiseinuaren sustapena eta garraio publikoaren erabilera indartzea</p> <p>GIH 13 (H 76, GPK 41): Klima-aldaketara egokitzeko ikuspegia Lurralde Antolamenduko gidalerroak onartzeko prozesuan eta lurralde- eta hiri-plangintzako tresnetan integratzea</p> <p>GIH 13 (PT 62): Klima Aldaketaren aurkako Estrategia 2050 – Klima 2050</p> <p>GIH 15 (H 82, GPK 46): Ingurumen-hezkuntzako politikak indartzea, ingurumena babesten eta kontserbatzen herritarren erantzunkidetasunean aurrera eginez</p> <p>GIH 15 (PT 65): Ingurumen Esparru Programa 2030</p>		
	Garapenerako Lankidetzaren Euskal Kontseilua	Koordinazioa	
	Iraunkortasuneko eskola-sarea, IRAES 21	Osagarritasuna	
	Etxebizitza Sailburuordetza	Ezagutzen eta metodologiako nazioarteko esparru bat diseinatzea, politika publikoen diseinuan herritarrek parte hartzeko prozesuak ebaluatzeko (Iberoamerika eta Europa), Demokrazia Parte Hartzailearen Nazioarteko Erakundearekin (ODIP)	Osagarritasuna
	Uraren Euskal Agentzia - URA	Esparru-akordioa – Uraren kanona	Koordinazioa
		Uraren erakunde arteko programa	Koordinazioa
		Uraren erabilerari buruzko sentsibilizazio- programak	Osagarritasuna

Saila		Ekimena	Mota
Enplegua eta Gizarte-Politikak	Gizarte Politiketako Sailburuordetza	Garapenerako Lankidetzaren Euskal Kontseilua	Koordinazioa
		GIH 10 (H 57, GPK 137): Boluntarioen lana sustatzea GIH 10 (H 58, GPK 140): Immigrazioaren aldeko eta arrazakeriaren eta xenofobiaren aurkako gizarte-ituna sustatzea GIH 10 (H 59, GPK 165): Bizikidetzaren eta giza eskubideen erronka berrien aurrean dibertsitatearen eta elkartasunaren kudeaketa positiboa (immigrazioa, pertsona errefuxiatuak, erlijio-dibertsitatea,...) GIH 10 (PT 43): Immigrazioarako Euskal Estrategia GIH 10 (PT 44): Boluntariotzako Euskal Estrategia 2017-2020 GIH 10 (PT 46): Hirugarren Sektore Soziala Sustatzeko Estrategia 2017- 2020	
	Gazteria Zuzendaritza	Euskadiko Gazteak Lankidetzan Programa	Koordinazioa
Kultura eta Hizkuntza Politika	Hizkuntza Politikarako Sailburuordea	Esparru-akordioa	Koordinazioa
		Saharako Errepublika Arabiar Demokratikoko ondarea katalogatzeko laguntza	Osagarritasuna
		Irakasleen trebakuntza jatorrizko hizkuntzetan	Osagarritasuna
Lana eta Justizia		GIH 8 (H 44, GPK 7): Enpresaren gizarte-erantzukizuna sustatu GIH 8 (H 45, GPK 8): Gizarte Ekonomiako enpresak sustatzea GIH 16 (PT 75): Gazte Justiziaren Plana 2019-2020	
		Lan eta Justizia Sailaren eta Tierra de Hombres Fundazioaren arteko lankidetzeta-memoranduma (Panama)	Osagarritasuna
Turismoa, Merkataritza eta Kontsumoa		GIH 12 (H 70, GPK 32): Informazio eta prestakuntza arina eta eraginkorra eskaintzea, kontsumitzaileak konprometituagoak egoteko eta arduratsuagoak izateko	
Garapen Ekonomikoa eta Azpiegiturak	Nekazaritza, Arrantza eta Elikagaien Politikako Sailburuordetza	GIH 2 (H 10, GPK 26): Nekazaritzako azpisektorean berrikuntza eta ikerketa sustatzea GIH 2 (H 11, GPK 26): Nekazaritza ekologikoa eta bere industria eraldatzailea sustatzea GIH 2 (PT 4): Landa Garatzeko OSOA Programa 2015-2020 GIH 2 (PT 8): Nekazaritza Ekologikoko Plana	
		Garapenerako Lankidetzaren Euskal Kontseilua	Koordinazioa
		Munduko Nekazaritza Foroaren esparru- akordioa	Koordinazioa
		Landa Topaketa	Koordinazioa
		Zabalketa-HAZI proiektua Bolivian	Koordinazioa
		Lankidetzeta-hitza Txilerekin	Osagarritasuna
		Txileko Nekazaritza Ministerioaren eta Sailburuordetzaren arteko lankidetzeta- memoranduma, nekazaritza arloko lankidetzari eta landako familia-nekazaritzaren babesari buruz	Osagarritasuna
	Industria Sailburuordetza	GIH 7 (H 37, GPK 19): Energia-iturri berriztagarriak eta iraunkorrak erabiltzeko enpresako garapen teknologikoa babestea	





A large, bold, grey number '4' is the central focus. It is partially overlaid by a white, torn-paper-like shape that originates from the top left and extends across the upper half of the page. To the right of the number, the word 'dokumentua' is written vertically in a smaller, grey, sans-serif font. Below the number and the text, there is a small grey circle, followed by a larger magenta circle on the right edge of the page.

dokumentua

---

Nazioartean Bakeari Ekarpena  
egiteko Euskal Programa



---

## **Nazioartean Bakeari Ekarpena** egiteko Euskal Programa

---

(Zirriborro izaera duen dokumentua, XII. Legegintzaldirako proiektatua)

**Euskadi, 2020ko ekaina**

---

Giza Eskubide, Bizikidetzeta eta Lankidetzaren Idazkaritza Nagusia  
Lehendakaritza – Eusko Jaurlaritza

---

**EUSKO JAURLARITZA**



**GOBIERNO VASCO**

LEHENDAKARITZA  
Giza Eskubide, Bizikidetzeta  
eta Lankidetzaren Idazkaritza Nagusia

PRESIDENCIA  
Secretaría General de Derechos Humanos,  
Convivencia y Cooperación



## Sarrera

---

2017ko urriaren 13an, Eusko Jaurlaritzak *2017-2020rako Bizikidetzaren eta Giza Eskubideen Plana* onartu zuen. Bere 13. ekimenak giza eskubideen arloko nazioarteko ekintzari buruzko aurreikuspenak ezarri eta honako helburu hauek zehazten ditu:

- Nazioartean bakea, bizikidetzaren, aniztasuna, elkartasuna eta giza eskubideak defendatzeko egindako esfortzuen parte izatea eta esfortzu horien sinergia sustatzea.
- Basque Country marka bakearen eta giza eskubideen aldeko konpromisoari lotzea eta nazioartean bizikidetzarako politiken euskal eredia partekatzea..

Helburu horiek islatzean, Planak hiru esku-hartze eremu aurreikusten ditu. Horietako batek deskribatzen duena honela proiektatzen du:

- Euskadik bakea lortzeko prozesuei bere ekarpina egitea. Euskal kasutik ateratako esperientziei buruzko oinarritzko dokumentu bat prestatuko da, beste testuinguru batzuekin alderatzeko.

*Planaren* aurreikuspenak garatze aldera, Giza Eskubide, Bizikidetzaren eta Lankidetzaren Idazkaritza Nagusiak 2018ko irailean egin eta onartu zuen "2019-2020rako gidoia, Eusko Jaurlaritzaren Giza Eskubideen aldeko Nazioarteko Jardueraren Lehentasunei buruzkoa". Plangintza hartan hartutako konpromisoetako bat izan zen nazioartean Bakerako Ekarpina egiteko Euskal Programa bat prestatzea. Dokumentu honek konpromiso horri erantzuten dio. Bestalde, aurreikuspen hori 2020 Nazioartekotzeko Esparru Estrategia – Euskadi Basque Country estrategia eguneratzeko dokumentuan sartu zen.

2020ko lehen seihilekoan zehar, Eusko Jaurlaritzak euskal kasutik ateratako esperientziei buruzko txostenaren lehen zirriborroa idatzi du; nolana ere, onartzeko dagoena. Oinarri horren gainean taxutzen eta proiektatzen da nazioartean Bakerako Ekarpina egiteko Euskal Programa.

---

# 1. Nazioartean Bakeari Ekarpena egiteko Euskal Programaren osagaiak

---

Eusko Jaurlaritzaren jarduera-programa hau hiru osagitan oinarritzen da: (1) behin onartuta, "Indarkeria prebenitzeko eta bakea babesteko euskal kasuaren ikaskuntzak" izeneko dokumentua; (2) Nazioarteko Eremuan Bakeari Laguntzeko Euskal Foroa sortzea (aurrerantzean, Foroa) eta (3) Foro honen lan-plangintza. Hori guztia hurrengo Legegintzaldian ezartzeko asmoa dago.

## 1.1. "Indarkeria prebenitzeko eta bakea babesteko euskal kasuaren ikaskuntzak" izeneko dokumentua

2018an terrorismoaren behin betiko amaieraren ondoren, ikasitakoari buruzko hausnarketa eragin du euskal kasuak. Hausnarketa hori "Indarkeria prebenitzeko eta bakea babesteko euskal kasuaren ikaskuntzak" izeneko dokumentuan gauzatuko da.

1. eranskinean, dokumentu honen gidoi aurreratu bat aurkezten da, 60 urteko indarkeriatik, terrorismotik, zatiketarik eta gatazketatik, alde batetik, eta aldi berean gure herrian bakearen eta bizikidetzaren alde egindako ahaleginetatik, bestetik, atera daitezkeen irakaskuntza nagusietan sakonduko duena.

Eduki horretan, Euskadik beste indarkeria- eta gatazka-testuinguru batzuetan egin dezakeen ekarpena sartuko da; eta, horregatik, Nazioartean Bakeari Ekarpena egiteko Euskal Programa honen lehen euskarria da.

Nazioartean bakearen aldeko euskal ekarpen gisa apalki proiektatua izateko helburua dauka. Zalantzarik gabe, sufrimendu bidegabeko hamarkada hauetatik atera ditugun irakaskuntzek planetako edozein bazterretan indarkeria prebenitzeko eta bakea eta bizikidetzaren babesteko balio lezakete.

## 1.2. Nazioarteko Eremuan Bakeari Ekarpena egiteko Euskal Foroa sortzea

Ikaskuntzei buruzko dokumentu horren edukiak nazioartean bakeari ekarpena egiteko Foro baten sorrera iradokitzen du. Foro horren helburua ateratako ikaskuntzak nazioartean partekatzea da.

Foro horren muinean egongo dira Kanpo Harremanetarako Idazkaritza Nagusia, Giza Eskubide, Bizikidetzaren eta Lankidetzaren Idazkaritza Nagusia eta Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentzia. Osaera horrek Batzorde Iraunkorra ekarriko luke.

Nolanahi ere, Eusko Jaurlaritzako beste Sail batzuek eta beste eragile batzuek ere parte hartu ahal izango dute beti, Osoko bilkuretan parte hartzeko gonbita jaso ahal izango baitute, eta haien parte-hartzea aldakorra izan daiteke, horietan lantzen den gaiaren arabera.

Foro honen xedea da hausnarketarako eta nazioarteko eremuan indarkeriazko gatazken prebentzioan eta bitartekotzan laguntzeko ekimen eta proiektu zehatzak definitzeko gune bat sortzea. Helburuak hiru ildotan egituratzen dira:

**-Partekatzea.** Euskal kasutik ateratako ikaskuntzak barnean eta nazioartean zabaltzea, indarkeria prebenitzeko eta bakea babesteko.

**-Ekarpena egitea.** Euskal esperientzian oinarrituta, nazioarteko gatazketan elkarriketarako, prebentziorako eta bitartekaritzarako prozesuak ezagutzen eta bultzatzen laguntzea.

**-Ikastea.** Gatazken prebentzioari, bitartekaritzari eta konponbideari buruzko nazioarteko esperientzien ikaskuntzak euskal gizarteari hurbiltzea.

## 1.3. Foroaren lan-plangintza

Foroak bi urtean behin eguneratzen den Legegintzaldiko lan-plangintza batean oinarrituta funtzionatzen du. Hauek dira jarduera-ardatz nagusiak:

-Euskal kasuaren ikaskuntzei buruzko txostena nazioartean zabaltzea.

-Foroaren osoko bilkuren deialdiarekin lotu daitezkeen kasu-azterketak egitea.

-Prebentzioan eta bitartekaritzan (10) adituak diren nazioarteko sare bat egituratzea. Eusko Jaurlaritzarekin lankidetzan aritzen dira, aholkuak ematen dizkiote eta urtero topaketa batean parte hartzen dute.

-Nazioartean indarkeriazko gatazken prebentzioan eta bitartekotzan esku hartzeko laguntza eskaintzeko proiektuak identifikatzea.

-Ikerketa-, dibulgazio- eta dokumentazio-jarduera osagarrien programa bat sustatzea.

## 2. Foroaren lan-plangintzaren ardatzak garatzeko irizpideak

Foroaren Legegintzaldiko Lan-plangintzak, gutxienez, aipatutako bost ardatzen edukia garatzen du, ardatz bakoitzerako jarraian azalduko diren irizpideak erreferentziatzat hartuta.

### 2.1. Euskal kasuaren ikaskuntzei buruzko Txostena nazioartean zabaltzea

·Foroak euskal kasuaren ikaskuntzei buruzko txostena itzuliko du zabaltzea errazteko beharrezkotzat jotzen diren hizkuntzetara.

·Foroak txosten hori nazioarteko erakundeetan zabaltzeko programa bat izango du, bai eta bakearen, bizikidetzaren, giza eskubideen eta indarkeriazko gatazken prebentzioaren, bitartekaritzaren eta konponbidearen arloko nazioarteko ekitaldietan eta biltzarretan ere.

·Eusko Jaurlaritzako Kanpo Harremanetarako Idazkaritza Nagusiak dokumentu hau partekatu ahal izango du nazioarteko kudeaketa eta harreman diplomatikoetan.

·Giza Eskubide, Bizikidetzeta eta Lankidetzaren Idazkaritza Nagusiak, halaber, txostena euskal gizartean zabaltzeko estrategia bat izango du.

### 2.2. Nazioarteko adituen sare bat antolatzea, urteko topaketa batekin

·Foroak prebentzioko eta bitartekaritzako adituen sare bat eratuko du, gutxienez hamar kidez osatua. Parte-hartzaileak prebentziorako eta bitartekaritzarako erreferenteak izango dira, GKEetako kideak, esperientzia praktikoa zein akademikoa duten gobernuetako funtzionarioak.

·Foroak harremanak ezarriko ditu nazioarteko zentroekin eta bitartekaritza-sareekin, bai eta nazioarteko erakundeekin ere, hala nola NBEren Bitartekaritza Laguntzeko Unitatearekin, Europar Batasuneko Bitartekaritza Sailarekin eta Afrikako Unitatearen Bitartekaritza Laguntzeko Unitatearekin.

· Adituen sarea osatzen duten pertsonak hiru konpromiso hartzen dituzte beren gain: (1) Eusko Jaurlaritzari prebentzio-bitartekaritzari eta kasu-azterketei buruzko aholkularitza ematea; (2) urteko mintegi edo topaketa batean parte hartzea; eta (3) prebentzio- edo bitartekaritza-prozesuetan laguntzeko berriazko proiektuetan laguntzea. Halaber, Foroaren Osoko Bilkurako dibulgazio-ekitaldietan edo bilera monografikoetan parte hartzera gonbidatu ahal izango dira.

·Urteko topaketa lan-programa baten, gaien, saioen eta parte-hartzaileen arabera egituratuko da, bi edo hiru eguneko programarekin. Momentuko gatazka-kasu bat edo bi eztabaidatzera eta egiten ari diren bitartekaritza-lanak eztabaidatzera bideratuko da bilera. Era berean, saio tematikoak programatu ahal izango dira.

### 2.3. Kasuaren azterketak egitea

·Foroaren Batzorde Iraunkorrek urtero landu behar diren kasu-azterketak identifikatuko ditu.

·Azterlan horietarako lehen oinarrizko txostena edo hasierako txostena idazteko ardurua sarea osatzen duten kideei edo beste aditu batzuei eskatu ahal izango zaie, kasu bakoitzaren ezaugarrien arabera.

---

·Kasu azterketak nazioarteko adituen sarearen urteko topaketan azaldu ahal izango dira, aztertu, kontrastatu eta sakontzeko.

·Era berean, Batzorde Iraunkorrek Foroaren osoko bilkurak deitu ahal izango ditu, eta haietara gonbidatu ahal izango ditu egoki irizitako eragile sozial, instituzional edo akademiko guztiak. Osoko bilkura horien helburua kasu-azterketak aztertzea, kontrastatzea eta sakontzea izan daiteke, edo horiekin lotutako alderdi monografikoak edo espezifikoak aztertzea.

#### **2.4. Esku hartzeko proposamenak edo proiektuak identifikatzea**

·Foroak nazioarteko eragileekin ezartzen dituen harremanek, kasu-azterketek eta adituen sarearen ekarpenek testuinguru zehatzetan eragiteko proposamenak identifikatzea ekar dezakete, edo indarkeriazko gatazken prebentzioan eta bitartekaritzan laguntzeko proiektuak identifikatzea.

·Foroaren Batzorde Iraunkorrek proposamen edo proiektu horiek egin ahal izango ditu, bai eta horien ezarpena aurreikusi eta prestatu ere; horretarako, Euskadiko pertsonak nahiz dagokion herrialdean harremana edo esperientzia duten atzerritarrak eduki ahal izango ditu.

·Era berean, Foroaren Batzorde Iraunkorrek Euskadin gatazka bizien solaskideekin topaketak edo mintegiak egitea jaso dezake, elkarrizketarako eta elkar ulertzeko aukera bat probatzeko prest badaude.

#### **2.5. Jarduera osagarrien programa bultzatzea**

·Foroak ikerketa-, dibulgazio- eta dokumentazio-jarduera osagarrien programa bat garatuko du.

·Foroak webgune bat izango du, eta bertan, adituen testuak, elkarrizketak, saretik eratorritako ekoizpena, berrikuntza bibliografikoak eta podcast-ak argitaratuko dira. Webgunea euskaraz, gaztelaniaz eta ingelesez izango da. Urteko topaketaren emaitza gisa, elkarrizketak, egileen testuak eta eztabaiden laburpenak argitaratuko dira, bai eta lan-ildo nagusien azken laburpena ere.

·Foroak prebentzioari eta bitartekaritzari buruzko ikerketa sustatuko du, bakerako eta gatazken konponbiderako ikerketaren teoriaren zati gisa. Sustapen hori euskal ikasleentzako beken, adituen egonaldien eta euskal unibertsitateekin egindako lankidetzak-akordioen bidez gauzatu ahal izango da.

·Zentroak bitartekaritza-esperientzien funts digitala garatuko du: negoziazio-prozesuei buruzko analisiak eta lekukotasunak, bake-akordioen testuak, negoziazioetan egindako bileren aktak. Funts hori Nazio Batuekin eta beste zentro batzuekin egindako akordioen bidez jarri ahal izango da abian.



## Eranskina. Dokumentuaren gidoi aurreratua

“Euskal kasuaren ikaskuntzak indarkeria prebenitzeko eta bakea babesteko”

### Sarrerako esparrua

2018ko maiatzaren 5ean, ETA behin betiko desegin zela iragarri zuen, 60 urteko jarduera terrorista baten ondoren. Jarduera horren helburua euskal auzien diagnostikoa ezartzea izan zen. Sei hamarkada hauetan, Euskadi Diktaduraren testuinguruan bizi izan zen 1975ean Diktadorea hil zen arte, eta, Trantsizioko urte batzuen ondoren, testuinguru demokratiko batean. 1960tik 2010era bitartean 1.080 hildako izan ziren, horietatik 853 ETAREN terrorismoaren ondorioz.

Hirurogeita hamarrekoko hamarkadaren amaieran eta laurogeiko hamarkadaren hasieran, hainbat urtez agertu ziren erakunde terrorista parapolizialak edo eskuin muturrekoak, esaterako, BVE eta GAL 74 hilketa eragin zituzten. Aldi berean, poliziaren legez kontrako indarkeria-egoeretan hildako gehienak izan ziren, eta 70 eta 80 pertsona artean hil ziren. Torturak presentzia handia izan zuen Diktaduran. Demokrazian eta nazioarteko erakundeen arabera, bere praktika ezin da sistematikotzat hartu, ezta noizbehinkakotzat ere.

Sei hamarkada luzez, terrorismoa, indarkeria eta banaketa uztartuta, amesgaizto luze baten trama izan zen Euskadin. Garai honetan eta testuinguru honetan, bi eztabaida bizi garatu dira, gainjarri, nahastu, banandu eta aurrez aurre jarri direnak. Alde batetik, ETAREN amaierari buruzko eztabaida, eta, bestetik, gai nazionalari buruzko eztabaida politikoa. Zein zen ETARI eman behar zitzaion erantzuna amaiera azkartzeko? Nola heldu behar zitzaion gatazka politikoa konponbideari?

Galdera hauek banaketa garrantzitsuak izan zituzten. Estrategia ugari garatu, entseatu eta aurrez aurre jarri ziren. Inguruabar traumatikoen, bidegabekeriaren, sufrimenduen eta zatiketen amalgama horri “Euskal kasua” deitzen diogu.

Euskal kasuaren azterketari ikuspegi etiko batetik heltzea proposatzen da txosten honetan. Munduan gehien miresten eta proiektatzen diren prozesu historikoetako bi Gandhik eta Mandelak buru izan zituztenak izan ziren. Bi prozesu horiek muga etiko irmo eta antzemangarriak ezarri zituzten.

Ikuspuntu etiko horretatik, Diktadura frankistak ordezkatu zuenaren deskalifikazioa aurretikoa eta erradikala da. Konpromiso etikoa da, ziurrenik, erregimen totalitario baten aurkako antidotorik onena.

Hala ere, euskal kasuari berezitasuna ematen dion faktorea da Diktaduran sortutako ETA bezalako erakunde batek bere estrategiarekin batera indarkeriazko jarduera bat izatea, jarduera hori sei hamarkadatan zehar luzatzea, azken laurak demokrazian; gizarte-laguntzarekin gauzatzea; eta Euskal Herriaren izenean egitea.

Gertaera bereizgarri hori da euskal kasuaren ikaskuntzei buruzko txosten honen abiapuntua. Nolanahi ere, ikuspegi etiko beretik, txosten honek garai hartan terrorismoa, indarkeria eta giza eskubideen urraketa larria eragin zuen guztia jorratzen du.

Indarkeria luzaroan jasan izanak indarkeria pairatu zutenengan antzeko gertakariak saihesteko premia handia eragiten du. Hori gertatu zen gure gurasoen eta aitona-amonen belaunaldian, Gerra Zibilean jasandako sufrimenduarekin. Bere mezua etengabea izan zen: “Munduko ezergatik ez, inoiz ez gerra gehiago”.

Gutako asko 1960aren aurreko eta ondorengo urteetan jaio ginen. ETAREN sorrerarekin kointziditu genuen, frankismo betean. Bizitza osoa eman dugu zama hori kendu ezinik. 2018an, azkenean, behin betiko desegin zen. Bizitakoaren eta jasandakoaren, akatsen eta asmatzeen ondoren, partekatu ditzakegun ikaskuntzak ditugu. Txosten honek ekarpen hori gauzatu nahi du.

Hausnarketa honen lehen hartzailea belaunaldi gazteak dira. Ikasi duguna kontuan hartzea gustatuko litzazuke. Bigarrenik, lan hau 2017-2020rako Bizikidetzaren eta Giza Eskubideen Planetik eratorritako nazioarteko bakearen aldeko ekarpenerako euskal programaren zati gisa apalki proiektatua izateko asmoa dauka.

---

Proiektu hau inoiz gertatu behar ez zuten biktimei eskainita dago. Ezerk ezin du bete familiek sentitzen duten hutsunea. Beren ondoan egon gaitzke, gogoratuz eta lagunduz. Bidegabea eta zentzugabekeria izan zela eta haren memoria kritikoa mundu bidezkoago eta gizatiarrago baterako etorkizuneko pedagogia izatea nahi dugula esanez.

Aldi berean, lan hori egin da gertatu behar ez liratekeen biktimengan pentsatuz. Hausnarketa hori edozein biktima-eragileri zuzentzen zaio, azken batean, hark erabaki baitezake akats izugarria den hori –dugun esperientziagatik dakiguna– errepikatzea edo ez. Akats itzulezina, zorigaitzkoa eta bidegabea. “Ez, inola ere ez, inoiz gehiago”.

## Laburpen baterako hurbilketa

### I. Aurkezpena

### II. Euskal kasuaren laburpena

*(II. puntu honetan txertatuko den testua eta prozesu eztabaidatu eta parte-hartzaile baten emaitza da. Bigarren hezkuntzako eta batxilergoko historia irakasgaien memoria hurbilari dagokion aldia sartzeko material didaktikoaren esparru historiografikoarekin bat dator. Juan Pablo Fusi, Mari Carmen Garmendia eta Mariano Ferrerren laguntzarekin eta aholkularitzarekin egin zen.)*

*Fusi historialari ospetsua da, batez ere Espainia garaikidearen historian eta, bereziki, Euskal Herrian eta nazionalismoetan zentratua. Garmendiak erantzukizuneko kargu garrantzitsuak izan ditu azken hamarkadetan euskal erakunde sozialetan eta politikoetan, batez ere kulturaren arloan. Ferrer kazetari ezaguna, eguneroko lekukoa eta azken 50 urteetan gertatutakoaren kronista independentea izan zen.)*

- II.1. Sintesi historikoa 1960-2018.
- II.2. Kronologia.
- II.3. ETaren historia.
- II.4. ETaren aurkako polizia-kolpe nagusiak.
- II.5. Su-etenak eta negoziazio-prozesuak.
- II.6. Gizarte mugimenduak.
- II.7. Hildakoak.
- II.8. Beste erakunde terroristak.
- II.9. Non egon zen euskal gizartea.

## Bigarren zatia. Ikaskuntzak

### III. Prebentzioaren arloko hiru ikaskuntza

- III.1. Indarkeriara ez jotzea... justifikatua dirudien arren
  - Giza eskubideen eta, bereziki, bizitza-eskubidearen errespetua betetzearen salbuespena justifikatzen duten argumentu-erakuntzen erabilerari buruz.
- III.2. Metxa piztea erraza da. Zaila itzaltzea da.
  - Indarkeriaren makina martxan jarri ondoren gelditzeko zailtasunari buruz, horrek norbere burua bultzatzen eta sustatzen duen inertzia handia sortzen duelako.
- III.3. Bidegabekeriaren aurrean buru gehiago eta bihotz gehiago
  - Frankismoa bezalako bidegabekeria bati indarkeriaz emandako erantzunaren hasierako larritasuna banaka garaikidetzaren edo kolektiboki gutxiestearen ondorioei buruz.

#### IV. Indarkeriaren denborari aurre egiteko lau ikaskuntza.

##### IV.1. Biktimei lehenago begiratzea

·Biktimen errealitateari aurrez aurre eta benetan begiratzen noiz eta nola hasi ginen, eta euskal kasuan egindako akatsei eta asmatzei buruz.

##### IV.2. Muga argiekin... “hobe hitz egitea, ez hitz egitea baino

·Elkarrizketarako eta/edo negoziatziorako beharrezkoak diren garrantziari, erabilgarritasunari eta beharrezko aldintzei buruz, bai eta bakoitzaren arriskuei eta bertutei buruz ere.

##### IV.3. Giza eskubideak ez urratzea... Estatuak inork baino gutxiago

·Estatuko estamentuek legez kontrako bitartekoak –hala nola terrorismoa, indarkeria edo giza eskubideen urraketak– erabiltzearen larritasun kualitatiboari eta ondorioei buruz.

##### IV.4. Gizarteari hobeto entzutea

·Gehiengo eta zeharkako gizarte-borondateek, gizarte-mugimendu nagusien adierazpen iraunkor gisa, aurreratzen duten eraikitze-balioari buruz.

##### IV.5. Indarkeriaren agendaren aurrean... politikaren agenda

·Ekintza politikoak indarkeriaren aurrean duen erabilgarritasunari eta zilegitasunari buruz, euskal kasuan metatutako aktibo positiboari buruz eta hobetzeko tartea duten esparruei buruz.

#### V. Bi ikaskuntza, gero indarkeria kudeatzeko.

##### V.1. Atzera begiratzea... giza eskubideen optika

·Giza eskubideen urraketa ekarri duen orotan iraganarekiko begirada kritikoak izan behar duen gutxieneko etikoari eta bizikidetzarako duen erabilgarritasunari buruz.

##### V.2. Aurrera begiratzea... bizikidetzaren optika

·Egungo bizikidetzaren berreraikitzea eta etorkizun partekatua eraikitzea adierazten duten lehentasunei aurre egiteko beharrezkoak diren oinarriei buruz.

#### VI. Ondorioak

### Ondorioak ateratzeko abiapuntua

“Etika politiko batek politika etiko batera darama”

Balio-anabasa akats bat da lehena zer den eta bigarrena zer den definitzerakoan. Eta 1958an sortu zenetik 2018an desegin zen arte, euskal kasuak denboran zehar iraun duen balio-desordena islatzen du, hainbat jatorriekin, intentsitatekin, testuinguruekin eta zirkunstantziarekin.

Zer da lehena bizitzan edo politikan: jarrera etikoa edo ideologikoa. Zer balio du gehiago: giza eskubideak errespetatzea, bizitzeko eskubidea, giza duintasuna eta pertsonen osotasuna, edo bakoitzak defendatzen duen kausa defendatzea eta konkistatzea.

Galdera horien aurrean, hiru erantzun-egoera daude: bat, garrantzitsuena posizionamendu etikoa da; bi, lehenengo, posizionamendu ideologikoa; eta hiru, ez dago erantzunik, galdera planteatu ere ez delako egin.

Lehenengo agertokian giza duintasunaren etikarekiko errespetuaren nagusitasunak zehaztutako balio-ordena irudikatzen da. Bigarren agertokian balio-desordena irudikatzen da. Hirugarren agertokian, bere gabezia irudikatzen da.

Bigarren eta hirugarren eszenatokiek etika politikoaren gabezia islatzen dute. Etika politikorik ez egoteak politika etikoaren gabezia dakar. *Denak balio du* gailentzen da, *denak balio du* baieztapenaren mugak gero eta lausoagoak direlako. Indarkeriara jotzeak bidea irekita dauka.

---

Balio-desordenak indarkeria erabiltzea gaitzen duen bitartean, balio-ordena etiko batek desgaitzen du. Euskal kasuan, etika politikoaren defizit hori egon zen. Pertsonen eta taldeen arrazoibide politikoan, defendatutako kausaren balioa bizitzeko eskubidearen balioaren aurretik jarri zen. Desordena horri esker, ETAk 60 urtez eutsi zion indarkeriari; eta etapa desberdinetan, baita beste terrorismo edo indarkeria mota batzuek ere hala eutsi zioten.

Euskal kasuaren azken ondorioa da politikan eta edozein kausaren defentsan lehenik eta behin lehenengo zer den hausnartzea dela. Aldez aurretiko gogoeta hori egin ez denean, anbiguotasuna egin behar denaren edo egin dezakeenaren eta egin ezin denaren mugez jabetzen da. Mugarik eta balioen ordena etikorik gabe, dena posible egiten duten logikak dira nagusi, okerrenaren okerrena ere bai.

Euskal kasuaren esperientziak agerian uzten du lehenengo gauza bizitzeko eskubidea eta pertsonen osotasuna errespetatzea dela. Horrek balio-ordena eta etika politikoa definitzen ditu. Etika politiko batek politika etiko batera darama. Inoiz ez gehiago kausa baten balioa giza eskubideen balioaren aurretik jartzea. Bakoitzak defendatzen duen kausa baino zerbait garrantzitsuagoa dago, kausa hori giza duintasunarena besterik ez da.

Azken bigarren ondorio bat azpimarratzea merezi du. Nahiz eta bere garaian baldarrak iruditu, bakearen, giza eskubideen, aniztasunaren eta elkarrizketaren aldeko ahaleginak inbertsio baliotsua izan ziren. Ezin da aldez aurretik jakin zer izango den eraginkorra nahi ez den egoera bati amaiera emateko. Bakeak eta bizikidetzak erabakitasuna eta iraunkortasuna behar dute. Indarkeriaren eta etsipenaren erdian, itxaropena tematzea ezinbestekoa da. Mundua hobera aldatzeak *insistentzialismo etiko* asko behar du.

Euskal gizartea, gaur egun, elkarrekin bizi daiteke, giza eskubideak eta aniztasuna errespetatzearen klabea; izan ere, pertsona, erakunde eta instituzio askok erein zuten horretarako hazia hamarkada izugarri haietan. Baldintzak sortu zituzten ahalegin haiek noizbait emaitza izan zezaten. Bakerako eta bizikidetzarako eragina izan zuten, eta horrek, azkenean, fruitua eman zuen.

Hauek dira Euskadik nazioartean partekatu ditzakeen ondorioetako batzuk, indarkeria prebenitzeko eta bakea babesteko euskal kasuaren ikaskuntza gisa.